

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>



Observatorio Vasco de la Juventud

- Argitaraldia: 4.a, berrikusi eta eguneratuta, 2015eko maiatza
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
- Egilea: Antonio Jesús Rodríguez Martínez
- Koordinazioa eta itzulpena: Gazteen Euskal Behatokia
- Diseinu eta maketazioa: Neverland, S.L.
- Internet: www.euskadi.eus
- Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz



AURKIBIDEA



AURKEZPENA	8
NOLA ERABILI GIDA HAU?	9
■ 1. MUGIKORTASUNA EUROPAR BATASUNEAN	13
1.1. Zure mugikortasun-plana	14
1.2. Zure eskubideak	16
1.3. Aholkuak	17
1.4. Osasuna	18
1.5. Aukerak eta lorpenak	19
1.5.A. Muga gutxiago, aukera gehiago	19
1.5.B. Atzerrian ikasteko	20
1.5.C. Europa berdeago bat	20
1.5.D. Euroak poltsikoan	20
1.5.E. Aukera berdintasuna	21
1.5.F. Enplegua eta hazkundera	21
1.5.G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat	22
1.5.H. Toki bat Europar Batasunean	22
1.5.I. Kontinente oso bat	23
■ 2. EUROPAR BATASUNEAN LAN EGITEKO	24
2.1. Aholku eta iradokizunak lana aurkitzeko	26
2.1.A. Non aurkitu lana?	26
2.1.B. Zer izan behar dut gogoan lana aurkitzen hasi aurretik?	27
2.1.C. Lan egiteko oinarrizko informazioa	28
2.1.D. Nola aurkitu lana?	29
2.1.E. Nola atzeman iruzurrezko lan-eskaintzak?	30
2.1.F. Aitortza, kualifikazioak eta tituluak	31
2.1.G. Curriculum eta aurkezpen-gutuna	32
2.1.H. Nola prestatu lan-elkarrizketa bat?	32
2.2. EURES	33
2.3. Sepe	36
2.4. Enplegurako europar programak	37
2.4.A. Zure lehen EURES lana	37
2.4.B. Gazte-bermea	38
2.4.C. Erasmus gazte ekintzaileentzat	39
2.5. Atariak: lan bila Europan	39
2.6. Gazteentzako lan-baliabideak	40

2.7. Baliabideak: enplegu zerbitzu-publikoak herrialdeka	43
2.8. Baliabideak: lana aurkitzea herrialdeka	45
■ 3. URTE-SASOIKO LANA	56
3.1. Sarrera	57
3.2. Baliabideak oro har	58
3.3. Itsas bidaietan, itsasontzietan eta ontzi enpresetan lan egiteko	62
3.4. Abenturen eta arrisku kirolen arloan lan egiteko	63
3.5. Animazio turistikoarekin loturiko postuetan lan egiteko	65
3.6. Kanpamenduetan lan egiteko	66
3.7. Nekazaritzan eta baserrietan lan egiteko	67
■ 4. EBn IKASTEA, OPOSIZIOAK	70
4.1. Prestakuntza EBn	71
4.2. EBn ikasteko 10 arrazoi	72
4.3. Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua	73
4.4. Lanbide Heziketa Europan. LH duala	74
4.4.A. LH duala Alemanian. <i>The job of my life</i>	75
4.5. Kualifikazioen eta tituluen aintzatespena	76
4.5.A. Herririk herri	78
4.5.B. Naric sarea	80
4.6. ERASMUS+ Hezkuntza	82
4.7. Ploteus	84
4.8. Ikasturtea atzerrian igarotzea	85
4.9. Ikasteko eta ikertzeko baliabideak herririk herri	86
4.10. Zentrozen arteko trukeak eta lankidetzak	100
4.10.A. Prestakuntza eskolan	100
4.10.B. Lanbide heziketa	101
4.10.C. Unibertsitatean ikastea	101
4.11. Europar Batasunerako oposizioak	104
4.11.A. EBn lan egitea	104
4.11.B. Enplegu-motak	104
4.11.C. Enplegu-profilak	105
4.11.D. EBko instituzioak eta agentziak	106
4.11.E. Hautaketa-prozesua	106
4.11.F. Oposizioak egiteko baliabideak	106
■ 5. BEKAK ETA PRAKTIKAK	108
5.1. Sarrera	109
5.2. Erasmus+ egitasmorako beka	110
5.3. Praktikaldiak Europako instituzioetan	111
5.4. Praktikaldiak nazioarteko organismoetan	117
5.4.A. Garapena eta lankidetzak	117

5.4.B. Segurtasuna	118
5.4.C. Ekonomia eta finantzak	119
5.4.D. Zuzenbidea	120
5.4.E. Energia	121
5.4.F. Zientziak eta teknologia	121
5.4.G. Garraioa	122
5.4.H. Telekomunikazioak eta aeronautika	122
5.4.I. Giza zientziak: hezkuntza eta kultura	123
5.4.J. Hirigintza / habitata eta ingurumena	123
5.4.K. Psikologia, soziologia, gizarte-lana	123
5.4.L. Emakumea eta berdintasuna	124
5.5. Nazioarteko praktikaldietarako beka	125
5.6. Praktikaldiak kudeatzen dituzten bilatzaileak eta webguneak	128
5.7. Praktikaldiak eskaintzen dituzten europar elkarteak	133
■ 6. ERASMUS+	135
6.1. Egitasmoa	136
6.2. Helburuak	137
6.3. Erasmus+ egitasmoaren egitura	138
6.4. Nork har dezake parte?	139
6.5. Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeak	139
6.6. Ekintzen deskribapena	140
6.6. A 1. Ekintza: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta	140
a. 1. Ekintza. Gazteen trukeak	140
b. 1. Ekintza. Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana	141
c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)	142
d. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS)	143
6.6. B 2. Ekintza: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana	144
a. 2. Ekintza. Elkarketa estrategikoak	144
b. 2. Ekintza. Gaitasunak indartzeko proiektuak	146
6.6. C 3. Ekintza. Erreforma politikoei laguntzea	147
a. 3. Ekintza. Elkarrizketa egituratuak: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean	148
■ 7. HIZKUNTZAK	149
7.1. Hizkuntzak ikasteko	151
7.1.A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua	152
7.1.B. Ingelesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak	154
7.1.C. Frantsesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak	157
7.1.D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak	159
7.1.E. Italiara. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak	161
7.1.F. Portugesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak	162

7.2. Baliabideak	163
7.2.A. Online hiztegiak eta itzultzaileak	163
7.2.B. Autoebaluazio probak	164
7.2.C. Aurrez aurreko ikastaroak: hemen eta atzerrian	165
7.2.D. Online ikasteko tresnak eta ikastaroak	166
7.2.E. Gizarte sareak	170
7.2.F. Trukeak	172
7.2.G. Beste baliabide batzuk	174
Smartphone-ak eta tablet-ak	174
Podcast-ak	177
Beste dispositibo batzuetan: telebista, irratia, kontsolak	177
Hizkuntzak musikaren bidez ikastea	178
7.2.H. Bekak eta laguntzak	180
7.2.I. ERASMUS+ Hizkuntzak online ikasteko laguntza	180
7.3. Hizkuntzak eta enplegua	181
7.3. A. Lanean edo beste jardunen batean nabilen bitartean hizkuntzak ikasteko	181
7.3. B. Eskaintzen adibideak	182
7.4. Agentziak: hizkuntzak eta gehiago	184
■ 8. “AU PAIR”	187
8.1. Zer da ‘au pair’ plana?	188
8.2. Nola lan egin ‘au pair’ moduan?	191
8.3. ‘Au’ pair moduan joateko baliabideak	192
■ 9. BOLUNTARIO LANA	195
9.1. Nazioarteko boluntarioak	196
9.1.A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa	197
9.1.B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak	198
9.2. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)	201
9.2.A. Europako Boluntario Zerbitzuak Euskadin dituen erakundeak	202
9.2.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak	203
9.3. Auzolandegiak	204
9.3.A. Auzolandegiekin loturiko baliabideak	205
9.4. Gazte trukeak	206
9.4.A. Baliabideak	207
■ 10. CV-a ETA EUROPASS	208
10.1. Curriculum vitae-a eta aurkezpen gutuna	209
10.2. EUROPASS	210
10.2.A. Europass curriculum vitae-a (Europass cv -a)	212
10.2.B. Gaitasunen pasaporte europarra	213
10.2.C. Europass hizkuntza pasaporte	213
10.2.D. Europass mugikortasun dokumentua	213

10.2.E. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria	214
10.2.F. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria	215
10.2.G. Europass agiri berriak	216
10.3. YOUTHPASS	217
■ 11. EUROPAN BARRENA BIDAIATZEKO	218
11.1. Beharrezko dokumentuak	219
11.2. Bidaiatzeko aholkuak	221
11.3. Lekualdatzea	222
11.3.A. Errepidetik	222
11.3.B. Hegazkina	224
11.3.C. Trena	227
11.3.D. Itsasontzia	228
11.3.E. Metroa	229
11.3.F. Bizikleta eta txangoak	229
11.3.G. Motxila turismoa	229
11.4. Nazioarteko txartelak	230
11.5. Ostatua	231
11.6. Bestelako informazio praktikoak	237
11.7. Zer egin?	238
■ 12. EUROPAKO SAREAK	240
12.1. Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES)	241
12.2. Europako Batzordearen Espainiako ordezkariak	242
12.3. Europako Batzordearen informazio sareak	243
12.3.A. Europe Direct	243
12.3.B. Europako Dokumentazio Zentroak (EDZ)	245
12.3.C. Eures. Mugikortasun profesionalaren Europako ataria	245
12.3.D. Naric	247
12.3.E. Ploteus	248
12.3.F. Eurodesk	248
12.3.G. Euroguidance	249
12.3. H. Solvit	250
12.3. I. Kontsumitzailearen Europako Zentroa	250
12.3.J. Enpresei laguntzeko Europako sarea	251



AURKEZPENA

Europa Helmuga Gida 2015 argitalpenak Europa zabalean bidaiatzeko, ikasteko edo lan egiteko online baliabide multzo ezin osatuagoaren berri ematen dizu. Laugarren edizioa duzu hau.

Milatik gora web-orrialdetara jo ahal izango duzu, eta bertatik bidaia antolatu, hizkuntzak ikasi, beste herrialde batean lan bat aurkitu, beka bat eskatu, gazteen arteko truke batean parte hartu, ikasketak baliozkotu edo Europako curriculuma prestatu.

Gaurkotze-lana Antonio Jesús Rodríguez Martínezek egin du, **aurreko edizioak** atondu zituen berak. Nazioarteko mugikortasunaren alorrean aholkularia da, eta hainbat urtetatik hona Gazteen Euskal Behatokiarekin dihardu elkarlanean. Bihoakio gure esker ona erakutsitako ardura eta profesionaltasunagatik.

Aurreko edizioak biltzen zituen erreferentziak egiaztatzeaz gainera, egileak informazio berri interesgarria erantsi dio 2015ekoari. Besteak beste: Gazte Bermearen europar programa, Europako gaitasunen pasaportea, Erasmus + programaren berrikuntzak hizkuntzak ikasten laguntzeari eta ekintzaitzari dagokienez, herrialdez herrialdeko titulazioen homologazioa, italiara edo portugesa bezalako hizkuntzen ziurtagiri, azterketa eta ikastaroak, edo hainbat herrialdetan boluntario-lanetan diharduten erakundeen zerrendak.

Gida hau zuei benetan baliagarria izatea espero dugu!



Observatorio Vasco de la Juventud



GIDA NOLA ERABILI



ESKAITZEN DUGUN INFORMAZIOA

Europar Batasunak mugikortasun-gaietan (enplegua, prestakuntza, hizkuntzak, boluntario-lana eta abar) eskaintzen dituen aukera guztiak Euskadiko gazteei helaraztea da gida honen helburua. Gidaren atal bakoitzean, atalaren azalpena aurkituko duzu, baita eskura dituzun baliabideen azalpena ere.

Eskaintzen dizkizugun baliabide publiko zein pribatu guztiak honako irizpide hauei jarraiki bildu dira:

1. Eusko Jaurlaritzaren web-orrietan eta aldizkari ofizialetan egindako bilaketa.
2. Euskal erakunde eta instituzioetako (unibertsitateak, aldundiak, boluntario-elkarteak eta abar) webguneetan egindako bilaketa.
3. Europako webgune ofizialetan (Gazteen Europako Ataria, Europa ataria) egindako bilaketa.
4. Beren lanarengatik ezagunak diren Europako gazteen atarietan egindako bilaketa.
5. Gazte- eta ikasle-fofoetan eta mugikortasun-arloko foroetan ere ikerketa batzuk egin ditugu, iritziak jasotzeko.

Gida hau argitaratzean, web-orrietarako loturak indarrean zeuden, baina Internet azkar aldatzen denez, lotura eta eduki horiek alda daitezke. Aldaketaren bat antzematen baduzu, edo, besterik gabe, atal edo informazio bati buruzko iritzia bidali nahi badiguzu, jar zaitez gurekin harremanetan: gaztebehatokia@euskadi.eus helbidera idatzita. Zure laguntza balio handikoa izango da guretzat, ondorengo argitalpenetan aplikatzeko.

Azkenik, nabarmendu beharrean gaude, batetik, guk ezin dugula gure gain hartu aipatutako enpresen zerbitzuen kalitatearen erantzukizuna, eta, bestetik, enpresa batzuek kobratu egiten dutela egindako lanaren truke. Gure ustez, hautatu aurretik, hobe duzu aukera bat baino gehiago bilatu, aukera horiek alderatu eta ahalik eta informaziorik osoena bildu.

ALDERDI PRAKTIKOAK

Litekeena da webgune batzuetan edukia zer hizkuntzatan —([EN] ENGLISH, [FR] FRENCH, eta abar)— dagoen ez zehaztea; horrek esan nahi du espainolez daudela, herrialdez herrialde antolatutako helbideak izan ezik, nagusiki, herrialdearen hizkuntza ofizialean jasota daudenak.

Gai batzuk atal bati baino gehiagori lotuta egon daitezke; esaterako, atzerrian tituluak homologatzea EBn lan egiteari eta ikasteari buruzko atalei lotzen zaie.

Bikoiztasuna saihesteko, gaia atal batean garatu dugu, eta bestean, berriz, ohar bat jarri dugu, aurreko atalean gaia sakonetik garatuta dagoela adierazten duena.

GIDAREN EDUKIA

1. Mugikortasuna Europar Batasunean

Zertan datza mugikortasunak Europar Batasunean barrena?; zure eskubideak, irabazten dituzunak eta galtzen dituzunak; zure mugikortasun-plana, zure burua antolatzen jakin dezazun; eta Europar Batasunak eskaintzen dizkizun aukeren eta lorpenen laburpena (moneta bakarra, merkatu bakarra, mugikortasun-programak eta abar).

2. EBn lan egitea

Europar Batasunean lana aurkitzeko jakin behar duzun guztia aurkituko duzu gidan, eta iruzurrezko eskaintzek engaina ez zaitzaten Eures Europako enplegu-zerbitzuak erabiltzeko behar duzun informazioa edo eskura dituzun enplegurako europar programak (gazte ekintzaileentzako Erasmus programa, gazte bermea edo nire lehen Eures lana). Era berean, Europako enplegu-atariei, lanbidez lanbideko atariei, gazteentzako enplegu-baliabideei buruzko bilduma zabala ere, eta, areago, lana bilatzeko webguneak herrialdez herrialde.

3. Urte-sasoiko lana

Udan lan egiteko premia al duzu? Oporretan lan egiteko aukera ugari daukazu: auzolandegiak, itsas bidaiak, turismo-animazioa, abentura-kirolak eta granjak.

4. EBn IKASTEA. Oposizioak

Europako Hezkuntza Eremuari, Lanbide Heziketari (baita LH duala ere) eta prestakuntza Europako beste herrialde batean egiteko eskaintzen dizkigun aukerei buruzko azalpen osoa. Funtsezko informazioa, batetik, tituluen homologazioari buruz, eta, bestetik, atzerrian bekekin ikasteko aukera ematen diguten mugikortasuneko hezkuntza-programei buruz. Ikasturtea atzerrian igarotzeko edo ikertzen emateko informazioa. Europako instituzioetan lan egitea interesatzen bazaizu, hemen aurkituko duzu informazio osoa.

5. Bekak eta praktikak

Europako eta nazioarteko erakundeetako bekei eta erakunde publiko eta pribatuetako beka- eta praktika-bilatzaileri buruzko bildumarik handiena. Gainera, nazioarteko erakundeetan praktikak egiteko aukeren zerrenda bat aurkituko duzu, sektorez sektore sailkatua.

6. Erasmus+

Europako gazteria-, hezkuntza- eta kirol-egitasmoa. Programa honi buruzko informazio guztia: Erasmus bekak, ikasleentzako mugikortasun-bekak, gazteen trukerako bekak, Europako Boluntario Zerbitzua (EVS) eta abar.

7. Hizkuntzak

Hemen hizkuntzak ikasteko informazio baliagarria aurkituko duzu, baita ikastaro, beka eta laguntzei buruzkoa ere. Gainera, hizkuntza ikastea enpleguarekin, praktikekin eta mota guztietako jarduerekin uztartzeaz arduratzen diren agentzien zerrenda kontsulta dezakezu. "Hizkuntzak eta Enplegua" izeneko atala gomendatzen dizugu.

8. 'Au pair'

Atzerrira au pair joateko behar duzun guztia. Dokumentazioa, baliabideak, eskaintzak eta motak.

9. Boluntario-lana, auzolandegiak eta gazte trukeak

Aisialdirako aukera ugari daude. Boluntario-lanaren, auzolandegien eta gazte-trukeen aukera-eskaintza zabala aurkituko duzu hemen, bai eta Europako Boluntario Zerbitzuari buruzko informazioa (EVS).

10. Curriculum Vitae-a eta Europass

Oso baliagarria EBn beren gaitasunak aurkeztu behar dituzten guztientzat. EBko edozein herrialdetan gure curriculuma prestatzeko aholku praktikoak.

11. Europan barrena bidaiatu

Bidaiatzeko informazio praktikoa: aholkuak, bidaiatzeko baliabideak, nazioarteko deskontu-txartelak, hegaldi eta ostatu merkeak, gida turistikoak eta zure eskubideei eta eskubide horiek erreklamatzeko moduari buruzko informazioa.

12. Europako sareak

Europako sareak, eta gure eskubideei buruzko zalantzak argitzeko, tituluak homologatzeko edota atzerrian ikastaro bat edo lan bat aurkitzeko lagungarri izan daitezkeen erakundeak.

LABURPENA

Gaur egungo mugikortasunak ez dauka zer ikusirik behialako emigrazio-mugimenduekin. Porrotik ez izateko, beharrezkoa da zure mugikortasun-plana ondo diseinatzea, eta atera orduko ahalik eta informazio gehien bilduta izan behar duzu. Beharrezko izango duzu, zalantzarik gabe.

- Jarraitu urratsez urrats Mugikortasun Planari. Zure lehentasunak agerian utziko dituzu, eta planifikazio egokia egin.
- Mugikortasun Planean ezusteak ere gerta dakizkizuke. Izan prest beti ihes egiteko plan bat.
- Aldean daramazunarekin abiatu ahal zara; dena den, eta ezustekorik ez izateko, planifikatu ondo zure bidaiak.
- Aztertu ondo zure eskubideak zeintzuk diren (baita zure betebeharrak ere) atzerrira ateratzen zarenean.
- Egin kasu gomendio eta aholkuei, eta ez ahaztu Europako Osasun Txartela.



MUGIKORTASUNA EUROPAR BATASUNEAN

1.1. ZURE MUGIKORTASUN PLANA

Mugikortasuna norberaren erabaki bat da, prestakuntza-maila ertain-altua eskatzen duena eta hizkuntza-maila altua. Argi daukazu? Hala bada, zure mugikortasun-esperientzia urratsez urrats planifikatzea gomendatzen dizugu, ezustekorik izan ez dezazun. Horretarako, 8 urratseko plan bat prestatu dizugu:

1- Zein da buruan duzun mugikortasun-esperientziaren asmoa?

Joateko erabakia hartu aurretik, galdera batzuei erantzun behar diezu: argi daukazu?, erabaki pertsonala da, zeurea? Hala bada, zein da zure asmoa: bidaiatzea, mundua ezagutzea, atzerrira betiko joatea, prestakuntza jasotzea edo, besterik gabe, bizirautea? Bestetik, noiz eta nora joan nahi duzu? Kasuan kasuko herrialdeko hizkuntza kontuan hartu behar duzu, eta noiz joan nahi duzun jakin, egonaldian

ahalik eta gehien aurreztu nahiko bazenu.

2- Lan-merkatua

Ba al dakizu joan nahi duzun herrialdeak zure zerbitzuak behar dituen? Ba al dakizu zure lanbidea edo prestakuntza baliagarriak diren herrialde horretan arazorik gabe jarduteko? Badakizu zeintzuk diren sektore ekonomikorik pisutsuenak? Ba al dakizu zein izapide exijituko dizuten lan-merkatu horretan sartzeko?

Horretarako, Enplegua atalean aurkituko dituzun **Euresen, SEPEren edo Kanpo Ministerioaren webguneak** kontsultatu ahal izango dituzu.

3- Marka pertsonala

Beste herrialde batean lan egin edo ikasi nahi baduzu, zure marka pertsonala prestatu behar duzu, hau da, **zure burua saldu eta ikusgarri bilakatu**. Zure **CVa prestatu** behar duzu, bai eta zoazen herrialdean eskatzen duten **dokumentazioa** ere. Gizarte-**sareak** egokitu itzazu eta are **komunikatzeko modua** ere (mugikorra, tablet-a eta abar). Prestatu, era berean, Skype edo Google kontu bat ere, Hangoutsen erabili ahal izateko, bai lana hemendik bilatzeko, bai kanpoan zaudenean komunikatu ahal izateko.

4- Presta ezazu zure burua

Argi dago: bazoaz. Baina behar bezain ondo moldatzen zara herrialde horretako hizkuntzan? Bertako kultura ezagutzen duzu? Exijitutako ezagutza tekniko guztiak dituzu?

Jar zaitetz abian. Egizu **hizkuntza-mailaren azterketa bat**, zer behar duzun egiaztatzeko. Informa zaitetz bidaiari buruz, kulturari buruz eta han aurkituko duzunari buruz, eta presta ezazu behar den guztia, zure **ikasketak baliozkotzeko edo homologatzeko**, zerbait falta baduzu, sasoiz prestatzeko moduan egon zaitezen.

Aholku bat: begira itzazu zoazen lekuko lan-eskaintzak. Horrela, zein baldintza eskatzen dituzten ikusi ahal izango duzu, eta betetzen dituzuna la ez konprobatu ahal izango duzu.

5- Kontuak egin

Badakizu zenbat diru behar duzun? Kalkulatu behar duzu alokairuan egoteko fidantza eskatuko dizuten, ibilgailu beharko duzun edo garraio-bonoak eta zein den kostua eta zenbat denbora emango duzun kontratua izan arte. Hori guztiori kontuan hartuta, zure burua planifikatu beharko duzu, **3 hiletik 6 hilera diru-sarrerarik gabe egon ahal izateko**.

6- Laguntzarik behar?

Euskal Herriko eta Espainiako herritarren komunitatea nahiko handia da dagoeneko hainbat hiritan. Dagoeneko komunitateak osatzen ari dira Londresen, Berlinen, Vienan edo Pragan. Komenigarria izango zaizu horiek zure kontaktu-sarean txertatzea. Spaniards edo Erasmus foroak oso baliagarriak izango zaizkizu informazioa eta laguntza eskuratzeko. Atzerrian laguntza jasotzeko komunitateei buruzko informazio gehiago helbide hauetan: <http://www.cext.es/> edo http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contcvpv/eu/contenidos/informacion/v2_presentacion/eu_colectiv/presentacion_colectividades.html

7- Zer behar duzu?

Funtsezko zein gauza eramango dituzu? Nolako klima izango duzu? Zer eros dezakezu han eta, hortaz, ez da beharrezkoa hara eramatea? Non hartuko duzu ostatu? Elektrotresnak edukiko dituzu? Autoa eramango duzu? Nola konektatu Internetera?

8- Ihes egiteko plana

Azken puntua, baina ez garrantzi txikiagokoa, buelta planifikatzea da. **Gogoratu zergatik irten zinen eta zergatik bueltatu nahi duzun.** Gogoratu beti itzultzeko hegazkin bat hartzeko beste diru izan behar duzula aurreztuta.

1.2. ZURE ESKUBIDEAK

Europar Batasunari eta langileen zirkulazio askeari esker, **eskubide hauek dituzu:**

- EBko edozein herrialdetan prestakuntza jasotzeko;
- lan-eskaintzei erantzun eta lekuz aldatzeko;
- enplegua eskuratzeko eta berdintasunezko tratua jasotzeko;
- lanbideari dagokionez, titulazioa aintzatetsita izateko.
- beste estatu kide batean bizi izateko, lanpostu batean jarduteko;
- lanean egondako herrialdean geratzeko.

Eskubide hauek guztiek **aldi baterako mugak edo baldintzak dituzte**, eta ezagutu behar dituzu. EBko beste herrialde batean ari bazara bizitzen eta lanean, garrantzizkoa da honako alderdi hauen berri izatea:

- Zure prestazioak
- (gaixotasunagatik, amatasunagatik edo aitatasunagatik, pentsioak, lan-

istripuengatik, laneko gaixotasunengatik, heriotzagatik, langabeziagatik, erretiro aurreratuagatik, kargupeko senideengatik eta abarregatik).
- Zergak non ordaindu behar dituzun.

Horretarako, **Tu Europa ataria** kontsultatzea gomendatzen dizugu
http://europa.eu/youreurope/citizens/index_es.htm

1.3. AHOKUAK ABIATU BAINO LEHEN

Irten aurretik, eta bidaiaren helburua kontuan hartuta, honako **dokumentazio** hau prest izatea gomendatzen dizugu:

- **NAN** edo pasaporte indarrean www.dnielectronico.es/
- **CV itzulia**. Eraman ale batzuk, ahal dela, formatu digitalean, litekeena delako aldaketak egin behar izatea.
- **Aurkezpen- eta babes-gutunak**; pasaporte-neurriko argazkiak.
- **Lehen soldata jaso arte behar adinako funtsak edukitzea.**
- **Europako osasun-txartela edo E-100 inprimakiak**

Gizarte Segurantzaren arreta- eta informazio-zentroa:

https://sede.seg-social.gob.es/Sede_1/Serviciosenlinea/ciudadanos/164993

- **Nazioarteko jaiotza-agiria eta familia-liburua**. Erregistro zibilean lortu ohi da. Aurkeztu familia-liburua eta horren fotokopia.
<http://www.justizia.net/jaiotza-ziurtagiria>

- **Gizarte segurantzaren eskubideak babesteko eta prestazioak esportatzeko inprimaki egokiak**

http://europa.eu/youreurope/citizens/work/social-security-forms/index_es.htm

Oro har U1 inprimakiak langabezia-prestazioa kalkulatzeko kontuan izan beharreko aseguru-aldiak aitortzeko erabili ohi dira, eta U2 inprimakia langabezia-prestazioa jasotzen jarraitzeko baimena da, beste herrialde batean enplegu bila zabiltzanean.

- **Gidabaimena**

Trafiko Zuzendaritza Nagusia. Probintziako buruzagitza.

<http://www.dgt.es/es/>

- **Banku-kontu bat irekitzea**

Lan-kontratu bat edukiz gero, enpresak berak gutun bat ematen du bankuan kontu bat irekitzeko erraztasunak emateko. Lan-kontraturik eduki ezean, bankuan alokairu-kontratua aurkeztu behar da, edo, bestela, argiaren edo uraren fakturak eta abar.

Espainiako banku baten gutuna, interesduna bezero ona dela adierazten duena, eta kontuaren azken mugimenduak. Bilatu helmugako herrialdean sukurtsalak dituzten banku espainiarrak. Atzerrian bulego gehien dituzten bankuak **Santander** eta **BBVA** dira.

Ikasleak: egiaztatu zentro batean gutxienez hiru hilabeteko matrikula egin duzula.

- **Lanbide batean aritzeko tituluak egiaztatzea**

Ikus egiaztariak Hezkuntza Ministerioaren web-orrian. Gobernuaren Ordezkariordeztan ere aurkez daitezke.

- **Tituluaren itzulpen ziurtatua eta ikasketa-ziurtagiriaren fotokopiak**

Espanian behar bezala inskribatutako edo baimendutako zinpeko itzulpen batekin. Estatu espainiarrak atzerrian duen edozein diplomazia- edo konsul-ordezkaritzaren eskutik. Kanpo Arazoetako Ministerioaren webgunean, www.exteriores.gob.es "Zinpeko interpreteen zerrenda eguneratua" ageri da.

- **Kontsulatuan edo enbaxadan izena ematea**

Beste herrialde batean egoitza iraunkorra baduzu, kontsulatuko matrikula-erregistroan inskribatu behar duzu. Espainiako kontsulatu eta enbaxaden helbideak www.exteriores.gob.es webgunean daude eskuragarri.

1.4. OSASUNA

EBko herritarrek doako edo kostu murriztuko osasun-laguntza jaso dezakete bidaiatzean gaixotzen direnean. Europako Osasun Txartelak gauzak errazten ditu alor horretan.

Europako osasun txartela (EOT)

Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) edo Suitzan barrena bidaiatzeko asmoa baduzu, ez ahaztu Europako osasun-txartela edo ordezeko behin-behineko ziurtagiria eraman behar duzula. **Osasun-laguntza eskuratzeko bidea erraztuko dizute agiri horiek, eta laguntza hori herrialdearen legeriaren arabera eskainiko dizute** (zenbait herrialdetan guztiz doakoa da). Laguntza **doakoa ez bada** eta horrenbestez ordainketarik egin behar bada, agiri horiek bermatuko dizute etxera itzuli eta berehala **osasun-laguntzan gastatutako dirua itzuliko dizutela**.

https://sede.seg-social.gob.es/Sede_1/ServiciosenLinea/Ciudadanos/index.htm?ssUserText=232000

Bidaia-asegurua

Bidaia-aseguru bat kontratatzea komeni da, **Europar Batasuneko herrialde batzuek bakarrik ordaintzen dutelako osasun-tratamenduaren guztizko zenbatekoa**. Atzerrian gertatutako gaixotasun eta istripuek kostu osagarriak ekar ditzakete berekin bidaiari, ostatuari eta aberriratzeari dagokienez, eta bidaia-aseguru batek horiek guztiak estal ditzake.

Kreditu-txartel gehienek doako bidaia-aseguru bat daramate, banku-entitatearen arabera aldatzen diren zenbait kondizio biltzen dituena. Irten aurretik, egiaztatu zure txartelaren kondizioak.

http://europa.eu/youreurope/citizens/health/unplanned-healthcare/temporary-stays/index_es.htm

Osasuna munduan

Oro har, **EBn barrena bidaiatzeko nahitaezko txertorik ez dago**. Atzerrira bidaiatzeko asmoa baduzu, hobe duzu lehenbailehen informazioa jasotzea zure helmugako gaixotasun ohikoenen eta beharrezko txertoen inguruan.

www.who.int/ith/es/index.html [EN]

Europar barrena bidaiatzeko

Abiatu aurretik, informa zaitez bainatzeko uren kalitatearen edo aireko ozono-mailen inguruan, eta aukeratu eraman behar duzun eguzki-babesa. Erretzeko debekuari buruzko informazioa herrialdez herrialde kontsultatzeko aukera ere baduzu:

www.europa.eu/travel/healthy/index_es.htm

1.5 AUKERAK ETA LORPENAK

1.5. A. Muga gutxiago, aukera gehiago

la Europar Batasun osoan barrena bidaiatzeko aukera dugu, **pasaportetik gabe eta mugan kontrolik pasatu beharrik gabe**. Beste herrialde batera joan gaitzeko gauza merkeagoak erostera, **murrizketarik gabe eta zerga osagarririk ordaindu beharrik gabe**, betiere gauza horiek norberaren erabilerarako badira. Euroa edo moneta bakarra indarrean dagoen herrialde guztietan prezioak zuzenean alderatzeko aukera ere badugu. Euroguneko herrialdeetan barrena bidaiatzea errazago da, dirua aldatu

beharrak berekin dakartzan arazoak eta gastuak desagertu direnez geroztik. Mugarik gabeko **merkatu bakarraren** esparruan sortutako lehiaren eraginez, **kalitateak gora egin** du, eta prezioek, aldiz, behera. Telefono-deiak, Internetetako sarbidea eta hegazkin-bidaia merkeagoak dira gaur egun. EBren legeriak kontsumitzailea babesten du produktu akastunen edo kalitate txarrekoen aurka, produktu horiek bakoitzaren herrialdean zein beste Estatu kide batean erosi. EBk mailarik handienak dauzka, halaber, elikagaien segurtasunaren alorrean.

EBko herritarrek EBko edozein herrialdeetan bizitzeko, lan egiteko, ikasteko eta erretiroa hartzeko eskubidea dute. Hamabi Estatu kide berrienetako langileentzako aldi baterako murrizketak poliki-poliki desagertzen ari dira.

1.5. B. Atzerrian ikasteko

Dagoeneko bi milioi gaztek baino gehiagok bat egin dute Europar Batasuneko programekin, Europako beste herrialde batean ikasteko eta prestatzeko. Horri esker, **mugaz gaindiko lankidetzarako eta hezkuntza-trukerako programak (Erasmus eta Leonardo, adibidez)** oso ezagunak dira ikasle eta ikastunen artean.

EBk ez du ikastetxeetan ikasi behar duguna erabakitzeko ahalmenik, baina titulazio akademiko eta profesionalak EBko herrialde guztietan behar bezala onartzea lortu nahi du.

1.5. C. Europa berdeagoa

Ingurumen osasuntsua izatea garrantzi handikoa da Europako herritarrentzat eta gobernuentzat. Horregatik, munduan ingurumena babesteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko abian jartzen diren **ekimenen buruan dago Europar Batasuna.**

Kutsadurak ez duenez mugarik, EBko Estatu kideek baterako neurriak hartu dituzte hainbat sektoretan. Horregatik, ez da harritzekoa Europako ibai eta hondartzak garbiago egotea, ibilgailuek gutxiago kutsatzea eta hondakinen isurketari buruzko arauak zorrotzak izatea. Dagoeneko ezinezkoa da Europako hondakin arriskutsuak herrialde pobreetan botatzea. Bestetik, EBk zenbait arau sortu ditu enpresek erabilitako produktu kimikoek herritarrei eta ingurumenari kalterik eragin ez diezaioten bermatzeko.

EBk lortu nahi du funtsezko zenbait sektore (garraioa, industria, nekazaritza eta turismoa, adibidez) garatzea, baliabide naturalak suntsitu gabe. Horri **garapen iraunkorra** deitzen zaio.

1.5. D. Euroak poltsikoan

Euroa da (€), agian, Europar Batasunaren lorpenik nabarmenena. Hogeita lau herrialdetan dago indarrean euroa, horietako 19 Europar Batasunekoak (2014), eta, horrenbestez, EBko 350 milioi biztanleen zati handi batek egunero erabiltzen du euroa. Eta beste batzuek ildo beretik jarraituko dute, ekonomiak horretarako prest dituztenean.

Euroa onartzen den herrialde guztietan erabil daitezke euroko moneta eta billeteak.

Billeteak berdin-berdinak dira herrialde guztietan. Txanponak ez dira berdinak, ordea: alde bat bai, berdina da txanpon guztietan; bestean, aldiz, herrialde jaulkitzailearen enblema ageri da txanpon bakoitzean.

Euroa EBko herrialde hauetan dago indarrean: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Letonia, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Portugal.

Gainera, Europako lau mikroestatutan akordioak daude EBrekin, euroa moneta gisa erabiltzeko: Vatikanok, Monakok, San Marino eta Andorra. Bestetik, Montenegrok eta Kosovok euroa hartu dute monetatzat, alde bateko erabakiz.

1.5. E. Aukera berdintasuna

Gure gizartea bidezkoagoa eta eraginkorragoa da, baldin eta gure kideak beren nazionalitatearengatik, sexuarengatik, arrazarengatik, ezintasunarengatik edo beste zenbait faktorearengatik diskriminatzen ez baditugu. Horrengatik, **EBren Zuzenbideak diskriminazioa debekutzen du.**

EBren lehen itunak 1950eko hamarkadan egin ziren, eta itun horietan guztietan jasota dagoen arau batek argi eta garbi adierazten du **gizon eta emakumeek ordainsari bera jaso behar dutela lan bera egiteagatik.** Horrekin, EB aitzindari izan zen emakumeen eskubideen aldeko borrokan, eta gaur egun eskubide horiek EBren politika guztietan daude jasota.

1.5. F. Enplegua eta hazkundera

Urteetan zehar, Europar Batasunak gure oparotasunaren alde jardun du, merkatu bakarra eta moneta bakarra sortuz eta merkataritzarako eta mugikortasunerako beste zenbait oztopo kenduz.

Eta hori lagungarri gertatu da 2008ko munduko finantza-krisiak Europan izan dituen ondorioak arintzeko. EBko zuzendariek elkarlanean jardun dute, Europan bankuak eta bestelako finantza-erakundeak egonkortzeko eta hazkunde ekonomikoa

biziberritzeko.

Gaur egungo mundu lehiakorrean, Europak lanpostu berriak eta lan-esku kualifikatua behar ditu. Ikerketak eta garapenak enplegua sorraraz dezakete. EBko zuzendariak aurreikusi dute ikerketarako gastua nabarmen handitzea, 2020rako BPGaren % 3ko helburua ezarri. Kualifikazio berriak ere behar dira, eta guztiok ere denbora gehiago eman beharko dugu ikasten, bizitza osoan zehar.

EBren aurrekontuaren herena (urteko aurrekontuko 130.000 milioi euro) **eskualde pobretuetan enplegua sortzera eta inbertsioa erakartzera bideratzen da, baita langabeei eta lanbide-trebakuntzarik ez dutenei prestakuntza eskaintzera ere.**

EBren laguntzari esker, zenbait herrialdetako (Irlanda eta Espainia, esaterako) herritarrek hobeto bizi dira gaur egun orain hogeita bost urte baino. Gaur egun, EBko ekialdeko Estatu kide berriak dira hazkunde handienak lortzen ari direnak.

1.5. G. Askatasuna, segurtasuna eta justizia guztiontzat

Nazioarteko terrorismoaren eta delinkuentziaren aurka borrokatzeko, Europar Batasuneko herrialdeek zenbait neurri hartu dituzte **polizia-indarren, aduana-administrazioen, immigrazio-zerbitzuen eta justizia-azuzitegien artean erabateko lankidetzaz ahalbidetzeko.**

Besteak beste, **Europako atxilotze-agindua sortu dute**, atxilotutako ustezko delitugileak atxilotetaren herrialdetik haien bila dabilen herrialdearen esku uzteko bidea errazteko, jarraian azken herrialde horretan galdeketa egiteko edo epaitzeko. Gainera, EBko herrialdeek asilo-politikak koordinatzen dituzte eta kontrolak zorrotzen, EBren kanpo-mugetan.

EBko herritarrek Estatu kide guztietan askatasunez bizitzeko eskubidea dutenez, Estatu kide guztietan **justizia eskuratzeko berdintasuna** izan behar dute. Gobernuak ahalgaitzak egin behar dituzte EBren arauak herrialde guztietan era berean ezar daitezkeen eta herrialde baten azuzitegian emandako epaiak beste herrialde batean betearazteko aukera izan dadin. EBk asko egin du ezkontzarekin, banantzearekin, dibortzioarekin eta adingabeen zaintzarekin zerikusia duten mugaz gairikoa arazo juridikoen konponbidea errazteko, baita beste zenbait auzi zibilen konponbidea errazteko ere.

1.5. H. Toki bat Europar Batasunean

Orain 50 urte baino gehiago sei kide fundatzaileek sortu zuten zutenez geroztik, EBrekiko atxikimenduak bata bestearen segidan etorri dira, etengabe. 2004tik 2007ra bitarte, EB 15 kide izatetik 27 kide izatera igaro zen, eta horrek kontinentea batu egin zuen,

gerra hotzaren ondorioz 45 urtez zatituta egon ondoren.

Europako edozein herrialdek dauka atxikitzeko aukera, baldin eta zuzenbideko Estatua, giza eskubideak eta gutxiengoen babesa bermatzen dituen demokrazia egonkorra baldin bada. Halaber, merkatu-ekonomia eraginkorra eduki behar du, baita EBren legeria aplikatzeko gauza den administrazio publikoa ere.

Kroazia izan da Europar Batasunean sartu den azken herrialdea, 2013ko uztailean. Garai bateko Jugoslaviako Mazedoniako Errepublika eta Turkia dira herrialde hautagaiak une honetan. EBk herrialde hautagaiei laguntza ekonomikoa eta praktikoa eskaintzen die, atxikimendurako prestatzen laguntzeko.

1.5 I. Kontinente oso bat

1952 Alemania, Belgika, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Herbehereak

1973 Danimarka, Irlanda, Erresuma Batua

1981 Grezia

1986 Espainia, Portugal

1995 Austria, Finlandia, Suedia

2004 Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika

2007 Bulgaria, Errumania

2013 Kroazia



2. EUROPAR BATASUNEAN LAN EGITEKO

2.1. Aholku eta iradokizunak lana aurkitzeko	26
2.1.A. Non aurkitu lana?	26
2.1.B. Zer izan behar dut gogoan lana aurkitzen hasi aurretik?	27
2.1.C. Lan egiteko oinarrizko informazioa	28
2.1.D. Nola aurkitu lana?	29
2.1.E. Nola atzeman iruzurrezko lan-eskaintzak?	30
2.1.F. Aitortza, kualifikazioak eta tituluak	31
2.1.G. Curriculumuma eta aurkezpen-gutuna	32
2.1.H. Nola prestatu lan-elkarrizketa bat?	32
2.2. EURES	33
2.3. Sepe	36
2.4. Enplegurako europar programak	37
2.4.A. Zure lehen EURES lana	37
2.4.B. Gazte-bermea	38
2.4.C. Erasmus gazte ekintzaileentzat	39
2.5. Atariak: lan bila European	39
2.6. Gazteentzako lan-baliabideak	40
2.7. Baliabideak: enplegu zerbitzu-publikoak herrialdeka	43
2.8. Baliabideak: lana aurkitzea herrialdeka	45

LABURPENA

Norberaren herrian lana aurkitzea gaitza da; Europar Batasunean ere ez da lan makala hori, gero. Atal honetan helmuga aukeratzen lagunduko dizugu eta, ahal dela, lana bilatu eta aurkitzeko prestatzen.

- Nora ezean ibili gabe, egin kasu aholku eta gomendioei. Jarraian proposatutako sei urratsek artez ibiltzen lagunduko dizute.
- Izan garbi nora zoazen lan bila: herria eta ingurunea, eskatutako baldintzak, bizitza-maila eta zergak. Giltzarri izango dira arrakasta izateko, eta denborarik eta dirurik ez galtzeko.
- Kontu handia izan iruzurrezko lan-eskaintzekin. Atzematen eta bereizten ikasi behar duzu. Zalantzarik baduzu, egin behar beste kontsulta.
- EURES lana aurkitzeko oinarrizko sare bat da. Azter itzazu egiten dituzten eskaintzak eta eskatutako baldintzak. Jo ezazu EURES aholkulariengana eta baliatu sarearen eta web-gunearen ahalmena (My EURES, herrialdez herrialdeko informazioa, txat-zerbitzua...).
- SEPEren langile-hautaketa zerbitzuan alerta ezarri, eta herrialde bakoitzeko informazioa aztertu. Interesgarria da oso herrialdeei begira egin ohi den CV-a.
- Baliatu EBren diru-laguntzak. Beharbada programa batean edo beste batean baduzu zer aukeratu.
- Lana sektorearen, herrialdearen, edo adinaren arabera aurkitzeko baliabide asko eta asko dituzu eskura. Enplegu-zerbitzu publikoetara jotzeko aukera ere hor duzu. Ez ito gero! Zure ezaugarrien arabera bilaketa egin ahalko duzu. Ekin!

2 EUROPAR BATASUNEAN LAN EGITEKO

2.1. AHOLKU ETA IRADOKIZUNAK LANA AURKITZEKO

2.1. A. Non bila dezaket lana?

Europako Esparru Ekonomikoan (EEE), pertsonen zirkulazio askea oinarrizko eskubide bat da, eta, horrenbestez, EEEko langileek **EEEtik kanpoko herrialde batean lan egin, bizi eta ikas dezakete lan- ez egoitza-baimenik gabe**. Atxikimendu-itunetan ezarritako aldi baterako xedapenen eraginpeko Estatu kide berrietako herritarrei aplikatzen zaie langileen zirkulazio askea.

(<http://ec.europa.eu/eures/main.jsp?lang=es&acro=free&step=0>).

Beraz, eskubidea duzu Europar Batasuneko edozein herrialdetan lan egiteko, baina Europako hiri, eskualde edo Estatu batean lan bila hasi aurretik, garrantzitsua da hiru kontu argi izatea:

1- Lan-merkatua.

Jardun nahi duzun alorrean zer-nolako eskaintza dagoen jakin behar duzu.

2- Nire lanbideari ekiteko baldintzak.

Baduzu zure lanbidean herrialde batean arazorik gabe aritzerik? Titulazio osagarririk edo eskuratu ez duzun ezagutza berezirik behar duzu?

3- Lan-baldintzak.

Zein herrialdetan dago ondo aitortuta eta ordainduta zure ogibidea? Zein baldintzaren pean egingo duzu behar?

2.1. B. Zer hartu behar duzu kontuan lana bilatu aurretik?

Europako beste herrialde batean bizitzeak eta lan egiteak zenbait arazo ekar ditzake berekin, hala nola:

- **Bestelako kultura bati** egokitzea.
- **Atzerriko hizkuntza** batean lanean jardutea.
- Ezezagunak diren **zerga-araudi eta gizarte-segurantza** darabiltzan ekonomian bizitzen ohitzea.
- **Familia, gizarte eta lan harremanei dagokien egokitzapena.**

Hautatutako herrialdeari buruz ongi informatzea da prestatzeko modurik onena.

Lan-mugikortasunak arrakasta izango badu, faktore hauek eraginkorrak dira:

- **Langilearen beraren ekimena.**
- **Norbanakoaren ezaugarriak.**
- **Pertsonaren kualifikazioak.**
- **Atzerriko hizkuntzen jakite-maila**

Zure gaitasun pertsonalak eta zure erabakimena ere kontuan hartzekoak dira, baita, jakina, zure kualifikazioak eta atzerriko hizkuntzei buruz duzun jakintza-maila ere. Europako lan-merkatuaren sektore batzuek aukera handiak eskaini ditzakete zuretzat. EURESen txosten baten arabera, oro har EBn eskaera handiena lanbide hauen ildokoa da:

- Industriari begirako ingeniariak: aeronautikoa, informatika, mekanikoa eta elektronikoa.
- Osasungintzari loturiko lanbideak: erizaintza, medikuntza eta geriatrila-laguntzailea.
- Lanbide heziketa teknikoak: elektrikariak, hotz/bero sistemen instalatzaileak ...
- Ostalaritza

Oporraldietako turismo-sektoreari loturiko aldi baterako lanean ere aukerak handiak dira. Gogoan hartu, halaber, lanpostuen eskaintzari dagokionez, alde handiak daudela Europako Esparru Ekonomikoko eskualdeen artean, eta, gainera, egoera oso azkar alda daitekeela.

Behar bezain ondo moldatzen zara herrialdeari dagokion hizkuntzan? Homologa daitezke zure tituluak eta lan-esperientzia herrialde horretan? Ba al dago zure gustuko arloan lana aurkitzeko aukerarik? Galdera horiei guztiei erantzuteko, hona

hemen bi esteka: lehenengoa, Europako Enplegu Atariarena (EURES) eta, bigarrena, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena (SEPE). Esteka horietan informazio eguneratua aurkituko duzu honako gai hauei buruz: bizi-baldintzak eta egoiliarra izateko baldintzak, zergak, lan-merkatua, exijitutako titulazioak eta abar.

<https://ec.europa.eu/eures/main.jsp?acro=lw&lang=es&catId=2648&parentId=0>

http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/empleo_europa.html

2.1. C. Lan egiteko oinarrizko informazioa

• Zer da langileen zirkulazio askea?

Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan barrena, langileen zirkulazio askea **funtsezko eskubidea da. Eskubide horri esker, EEEko herritarrek edozein herrialde kidean lan egiteko eta ezartzeko askatasuna dute**, lan egiteko baimenik, herrialde horretako nazionaletik eskubide-berdintasuna bermaturik. Senitartekoak ere eskubide horren jabe dira.

• Nire tituluarekin, jardun al dezaket Europako beste herrialde batean?

Oro har, **Europako herritar batek EBko beste herrialde batean jardun dezake edozein lanbidetan, nazionalen arau eta muga berberak baino ez dituela**. Zenbait herrialdetan, tituluak, diplomak, ziurtagiriak edo kualifikazio espezifikoak edukitzea eskatzen dute autonomo gisa zein besteren kontura jarduera jakin batzuetan aritzeko. Kasu horietan, horien onarpena eskatu beharko da xede profesioaletarako, harrerako Estatu bakoitzeko eskumeneko erakundeen aurrean.

• Osasun laguntzarik ba al dut EBko beste herrialde batera joaten banaiz?

Osasun-laguntzari dagokionez: **Gizarte Segurantzaren onuradun bazara**, irten aurretik **Europako osasun-txartela lortu behar duzu**. Txartel hori indibiduala da, eta titularraren eskubidea ziurtatzen du ikuspegi mediko batetik beharrezkoak diren osasun-prestazioak jasotzeari dagokionez, Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetan eta Suitzan aldi baterako dagoen bitartean. Gizarte Segurantzaren lor daiteke. Osasun-laguntza doakoa da herrialde gehienetan.

Hala eta guztiz ere, herrialde batzuetan kostu osoa edo kostuaren zati bat ordaindu beharko du. Oso garrantzitsua da ordainagiriak eta fakturak gordetzea, ondoren dirua itzul diezazuten.

• **Lan bila nagoen bitartean, kobra al dezaket langabezia prestazioa Europako beste herrialde batean?**

Langabezia-prestazioak edo subsidioa jasotzen ari bazara, prestazio horiek esportatzeko aukera duzu lan bat bilatzeko, gehienez, 3 hilabetez. Horretarako honako hauek eskatuko dizkizute: jatorriko herrialdearen Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez 4 astean erregistratua egotea, zerbitzu horri abiatzen zaren eguna jakinaraztea eta helmugako herrialdeko Enplegu Zerbitzu Publikoan izena ematea 7 eguneko epean.

U2 inprimakia eraman behar duzu zurekin EBn, edo E303 inprimakia Islandia, Lietchestein, Norvegia eta Suitzan, **eskubidea onartu zizun Enplegu Zerbitzuak emango dizuna**. Kontuan hartu zenbait herrialdetan izapideak 2 hilabete ere atzera daitezkeela.

Azkenik, komenigarria da **U1 inprimakia** izatea, EBko herrialde batetik lan egindakoa etxera zatozenerako, eta **E301 inprimakia** Islandia, Lietchestein, Norvegia edo Suitzatik itzulian abiatzen zarenerako. **Modu horretan, kotizatutako aldiak kontuan hartuko dira geroko prestazioak kalkulatzeko.**

• **Non ordaindu behar ditut nire zergak?**

Europar Batasunean ez dago berariazko legeriarik zerga-arloari dagokionez, baina kontu handiz ibili behar da, batetik, ezarpen bikoitza saihesteko bi herrialdetan jasotako diru-sarrerak dituzten pertsonen errentetan, eta, bestetik, atzerrikoak nazionalen aldean ez diskriminatzeko. **Normalean egoitza fiskala dagoen herrialdean ordainduko dira zergak.**

2.1. D. Nola aurkitu lana?

Lan egiteko hautatu duzun herrialdean egotea da enplegua aurkitzeko modurik errazena. Horrela, gertuko baliabideak ezagutuko dituzu, paper guztiak behar bezala izango dituzu (ostatua, bankuko kontua, egoitza eta abar), lan-elkarrizketetara bertaratu ahal izango duzu eta abar. Horregatik, honako **gomendio** hauek egiten dizkizugu:

— Hautatutako herrialdea ondo ezagutu nahi baduzu eta bertan lan bila ibili nahi baduzu, onena duzu herrialde horretan denboraldi bat ematea praktikak egiten edo lan-formula jakin batekin. (Praktikak, bekak, AU PAIR, boluntarioak, hizkuntza- eta lan-eskaintzak, opor-sasoi-tako lanak, eta abar). Agentzia askok horrelako lanak antolatzen dituzte.

— Herrialde askotan oso garrantzizkoa da **kontaktuak** izatea, askotan lehen-lehenik ahoz komunikatzen delako lan-eskaintza bat sortu dela.

- **Bisitatu EURES lan-mugikortasuneko ataria** (hurrengo atalean), eta bertan hainbat lan-eskaintza aurkituko dituzu, baita bititza- eta lan-baldintzei buruzko eta lan-merkatuari buruzko informazioa eta beste zenbait informazio baliagarrirekiko loturak ere.
- Estatu kide askotan **agentzia pribatu batzuk daude, aldi baterako lanak aurkitzeaz berriaz arduratzen direnak**. Aldez aurretik, beren zerbitzuengatik kobratzen duten edo ez egiaztatu behar duzu, eta enplegu-kontratuen nondik norakoak aztertu.
- **Laneratzeko agentzia pribatuak ere badaude**, baina exekutiboentzako enpleguez edo berriazko sektoreetako enpleguez arduratzen dira normalean, hala nola informatika edo finantzak.
- Ikasleentzat, **enplegu-azokek eta lanbide-orientazioko zentroek** oso zeregin garrantzitsua bete dezakete enplegua bilatzean.
- Gero eta ohikoagoa da **enpresetarako hautagaitzak norberaren ekimenez aurkeztea**. Enpresa askok beren kontratazio webguneak dituzte, zenbaitetan eskaera-inprimaki elektronikoa aurkezteko aukera ematen dutenak. Horietara baino ez duzu jo behar.
- **Kontsultatu lan-eskaintzei buruzko iragarkiak harrerako herrialdeko egunkarietan**. Kontuan hartu hainbat aldizkari espezializatuk lanbide espezifikotarako iragarkiak biltzen dituztela.
- **Jar zaitetz harremanetan harrerako herrialdeko enplegu-zerbitzu publikoarekin, hark aholku eman diezazuke-eta**. Eta gogoan hartu beste Estatu kide batean herrialde horretako herritarrek dituzten eskubide berberak dituzula, EEEko herritarra zaren neurrian.

2.1 E. Nola atzeman iruzurrezko lan-eskaintzak?

Lan-eskaintza gehienetara internet bidez jotzen dugu. Horietako asko iruzurrezkoak izan daitezke: lan bila dabilenari maula egin nahi diote. Atal honetan halakoak identifikatzeko zenbait zantzu emango dizkizugu.

1. Benetako enpresen izenak darabiltzate hautagaiak nahasteko asmoz.

Egiaztatu enpresa badela: zuzenean deitu edo saiatu email bat bidaltzen giza baliabideen atalari, eskainitako lana egiazkoa den jakiteko.

2. Domeinu jeneralisten email-helbideak baliatzen badituzte, ez fida. Iruzurrezko eskaintzak argitara ematen dituztenek helbide korporatiboak barik, domeinu

jeneralisten posta elektronikoko helbideak erabiltzen dituzte (hotmail, gmail, yahoo, eta abar).

3. Telefono mugikorren zenbakiak:

Bulegoetakoak ez, mugikorren zenbakiak erabiltzen dituzte.

4. Atzerrian lan egiteko baldintza ezin hobekak. Zuhur jokatu behar duzu. Nahiz eta soldata izugarriak eta lan-baldintza apartak eskaini, pentsatu bi aldiz. Merkatuan diren beste eskaintza batzuetatik oso urrun dabilta.

5. Lanpostua gordetzea: Hautagairi diru-zenbateko bat ordaintzeko eskatzen diote, lanpostua gordetzekotan. Halako eskaintzarik ez da.

6. Informatzeko deiak: Eskaintzaren zehaztasunak eman ez eta ordainketa gehigarria duen telefono-zenbaki batera deitzeko eskatzen dute, ondo informatu nahi baduzu.

Kontuz gero: lan-eskaintza on batek zehaztasun guztiak azaldu behar ditu.

7. Transferentziak eginaraztea. Dirua erruz lortuko duzula esango dizute, baldin eta banku-transferentziak egiten badituzu. Inoiz ez duzu halakorik onartu behar.

8. Datu pertsonalak: Adi ibili iragarkian datu pertsonalak emateko eskatzen badute. Datu gehiegi eskatzea susmagarria da; iruzur fiskala egiteko erabil ditzakete, edo hirugarren bati eskaini edo saldu. **Hainbat datu, NANA kasu, hautaketa-prozesuaren amaieran baino ez eman.**

Inoiz ere egin behar ez duzuna:

Ez onartu lan-eskaintzarik, dirua aurreratzea baldintzatzat jartzen badute (ez aurreratu dirua inoiz ere). Normalean dirua bidaltzeko erabili ohi diren enpresak Western Union edo Money Gram dira.

Sarrien erabilitako aitzakiak dira:

- Dagokion administrazioan kudeaketa-lanak dirua ordaindu behar izatea.
- Bertaratu baino lehenago diru nahikoa duzula egiaztatzea.
- Ostata bermatzeko diru-gordailua, enpresak berak ostataua eskaintzen duenean.

2.1. F. Kualifikazioen eta tituluaren aintzatespena

Harrerako herrialdean prestakuntzak onartzeko zer egin dezakezun jakitea; horixe da gauza garrantzitsuenetako bat.



OHARRA: EBn Ikasteari buruzko 4. atalean aurki ditzakezu kualifikazioak eta tituluak onartzeko beharrezko betekizun guztiak..

2.1. G. Curriculuma eta aurkezpen gutuna

Ongi ziurtatu behar duzu curriculum vitae argi eta ongi egituratua idatzi duzula, bila zabiltzan lanari berariaz egokitua. Gainera, harrerako herrialdeko hizkuntzara itzuli behar duzu, kualifikazioekin batera.



OHARRA: Gida honetan baduzu atal oso bat curriculumaz eta aurkezpen-gutunaz jarduten duena: 10. atala.

2.1. H. Nola prestatu lan-elkarrizketa bat?

Zure jatorriko herrialdean bezala, **lan-elkarrizketa ongi prestatu behar duzu:** Lortu enpresari buruzko oinarriko informazioa, eta pentsatu zer galde diezazuketen enpresari eta lanpostuaren ezaugarri partikularrei buruz. Harrerako herrialdearen hizkuntza zenbateraino menderatzen duzun ere erakutsi beharko duzu, baita zure funtsezko gaitasun eta kualitateak lanpostu jakin horren enplegu-emaileak lanpostu horretarako ezarritako eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren erakutsi ere. Europar Batasuneko enpresa handi askok ebaluazio-zentroetara jotzen dute beren enplegatuak izan daitezkeenek benetako bizitzaren egoeretan nola jokatuko luketen epaitzeko.

Elkarrizketa egitera honako agiri hauek eraman behar dituzu

- Zure CVaren zenbait ale, dagokion hizkuntzan.
- Zure titulazioaren itzulpen ziurtatua (zure ikastetxeak edo dagokion ministerioak emango dizu, normalean).
- Ikasketa-ziurtagiriaren, unibertsitate-titulazioaren edo beste edozein prestakuntzaren fotokopiak.
- Indarreko pasaportearen edo nortasun-agiri bat.
- Jaiotza-agiriaren kopia bat.
- Europako osasun-txartela.
- Pasaporte-neurriko zenbait argazki.

2.2. EURES

EURES (Enplegurako europar zerbitzuak) mugikortasun profesionalaren ataria da. Gaur egun 31 herrialdek hartzen dute parte. Sarearen bazkide dira enplegu-zerbitzu publikoak, sindikatuak eta ugazaben elkarteak, eta Europar Batzordeak egiten ditu koordinazio lanak. 984 EURES aholkularik osatzen dute giza sarea Europa osoan. Egunean-egunean ia milioi bat lan-eskaintza proposatzen ditu EURESek.

EURES sareak informazioko, aholkularitzako eta kontratazioko/laneratzeko (enplegu-bilaketa) zerbitzuak eskaini nahi dizkie langile eta enpresaburu guztiei, baita Europar Batasuneko pertsonen zirkulazio askea baliatu nahi duten herritar guztiei ere.

• **EURESen zerbitzuak Interneten** <https://ec.europa.eu/eures/page/index>

• Enplegu-bilaketa

EURES atarian argitaratutako enplegu-eskaintzak Europako enplegu-zerbitzu publikoetatik jasoak dira. **Enpresek atzerriko pertsonekin bete nahi dituzten lanpostuak bandera urdin batez markatuta ageri dira**, enplegu-eskaintzak ezagutzera ematen dituen EURES tresnan.

Europako lan-merkatuaren gardentasuna handitzeko asmoarekin, Europako enplegu-zerbitzu publikoek iragarritako enplegu guztiak beren web-orrian kontsulta daitezke. Lanpostu horiek ez daramate bandera urdinik, eta ez dira “EURES lanpostuak”.

Lanpostu hutsak askotariko lanbideetan ageri dira, urte-sasoian eta modu iraunkorrean lan egiteko aukerak barne. Lanpostu huts bakoitzean, kontaktuko pertsonari eta hautagaitza aurkezteko moduari buruzko informazioa jaso da. **Kontaktua EURES aholkulari baten bitartez** bidera daiteke, eskaera bideratuko duena; beste kasu batzuetan, enpresaburuarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera dago.

Europako enplegu-zerbitzuek **egunero-egunero eguneratzen dute enpleguak bilatzeko EURES datu-basea**, eta lanpostu hutsei buruzko iragarkiek hutsik dauden bitartean bakarrik jarraitzen dute sisteman.

• Bizitza- eta lan-baldintzak

EURESek funtsezko datu-base bat eskaintzen du Europako Esparru Ekonomikoaren herrialdeetako lan-merkatuari, lan-baldintzei eta bizitzari buruz. Beste herrialde batera lanera joan nahi baduzu, funtsezkoa da datu-base hori bisitatzea.

• Aholku praktikoak

Enplegu-eskaintza interesgarri bat aurkitzen baduzu, bisitatu atal hau herrialdeko lan- eta bizitza-baldintzak ezagutzeko. Izan ere, litekeena da, aldez aurretik jende askok egin duen bezala, eskaintza bat onartzea soldata zoragarria iruditzen zaizulako, **bizitza-maila handia dela eta zergetan % 40** ordaindu behar dela jakin gabe.

Herrialde jakin batera aldatzeko aukera aintzat hartzerakoan gogoan izan behar diren gai praktiko, juridiko eta administratiboei buruzko ikuspegi orokor laburra eskaintzen du datu-base honek. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, jarraitu Interneteko beste gune batzuekiko loturak, edo, bestela, jo aipatutako harreman-puntu eta erakundeetara.

Herrialde horretan enplegua bilatzeko moduari, lekualdatzeari, lan- eta bizitza-baldintzei, gizarte-segurantzari, aseguruiei eta abarri buruzko informazioa eskaintzen du.

• Nire EURES

“Nire EURES” doako zerbitzua da, enplegu-eskatzailleentzat zein enpresentzat sortua. **Enplegu-eskatzailleek bilaketa-profilak sortu eta gordetzeko eta posta elektronikoko bidezko abisuak jasotzeko aukera dute**, profileragokitutako lanpostuak izanez gero. EURESen lineako CVa, EBko hizkuntza guztietan eskuragarri dagoenak, curriculuma iragartzeko eta erregistratutako enpresei eta EURES aholkulariei erakusteko aukera eskaintzen du.

“Nire EURES” ataleko erabiltzaile-kontuan enplegu-eskatzaileren curriculumak bilatzen hastean, enpresek bilaketa-profilak sortu eta gorde ditzakete, baita posta elektronikoko bidez abisuak jaso ere.

Plataforma nagusietan eskura dago EURESen APPa.

• Europako gaitasunen pasaporte

EURESek sustatutako **agiri honek sektore jakin batean eskuratu dituzun gaitasunak ziurtatzeko balio du**. Modu horretan, sektore horretako enpresaburuek erraz eta azkar jo dezakete zugana eta zure gaitasunak zeintzuk diren jakin. Gaur egun jatetxe-arloko, ostalaritza eta turismoko sektoreei begira erabilgarri da.

• EURES kontseilariak edo aholkulariak

Aholkulari-sare batek osatzen du EURES. Enplegu-eskatzailleek eta enpresek eskatutako informazioa ematen dute aholkulari horiek, harreman pertsonal baten bitartez.

Europa osoan 984 EURES aholkulari daude, eta kopuru hori gero eta handiagoa da. **EURES aholkulariak espezialistak dira, eta EURESen oinarrizko hiru zerbitzuak (informazioa, orientazioa eta laneratzea) ematen dizkiete enplegu-eskatzailleei** zein Europako lan-merkatuan interesa duten enpresei. Mugikortasun nazionalarekin eta mugaz haraindikoarekin zerikusia duten gai praktiko, juridiko eta administratiboei buruzko espezializazioa lortu dute. Estatu kide bakoitzeko edo EURES sareko kide diren beste erakunde batzuetako enplegu-zerbitzu publikoaren esparruan dihardute.

Honako webgune honetan aurki dezakezu Eures aholkulari hurbilena:

<https://ec.europa.eu/eures/main.jsp?acro=eures&lang=es&catId=3&pa%20rentCategory=3>

- Mugikorretarako App-a <https://itunes.apple.com/us/app/eures-your-job-in-europe/id554155163?ls=1&mt=8> (Disponibile tambien para Android)
- Facebook: www.facebook.com/EURESjobs
- Twitter: <https://twitter.com/euresjob>
- LinkedIn: www.linkedin.com/groups?mostPopular=&gid=1884728
- Google+: <https://plus.google.com/103780376865975473149/about>

2.3. SEPE

SEPE Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuak **EBko enpleguari buruzko garrantziko informazioen bilduma** aurkezten du bere webgunean.

www.sepe.es

Web-orriak garrantziko informazio hau eskaintzen du:

- **Lan-deialdiak: hautaketa-prozesuak Espainiatik**

Herrialdez herrialde antolatzen dira. **EBn lan egiteko Espainian egiten diren hautaketa-prozesuak aurkezten dituelako nabarmentzen da** atal hau. Aukera hau oso garrantzitsua da, EBko langileak kontratatze aldera zerbitzu publikoek egiten dituzten eskaintzak baitira. Kasu askotan, aurretiako hizkuntza-prestakuntza sartzen da.

- **CVak eta aurkezpen-gutunak herrialdez herrialde**

SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak informazioa eskaintzen du Europar Batasuneko **zenbait herrialdetan aurkezpen-gutuna eta curriculum vitae lantzeko jarraibide orokorren** inguruan, dagozkien hizkuntzetan. Laguntza handikoak izango dira zuretzat, herrialde bakoitzaren ezaugarri espezifikoekin berri ematen dizuten neurrian.

- **Europar lan egiteko informazioa eta gida baliagarriak herrialdeen arabera**

Atal honetan honako hauek nabarmendu behar dira:

- **“Trabajar en” gidak**

Eures sareak argitaratzen ditu gida horiek, eta nahi duzun gida espezifikoak aukera dezakezu lan egiteko aukeratzen duzun **herrialdearen arabera**. Nahiko gida osoak dira, eta hainbat gairi buruzko informazioa biltzen dute: lan-merkatua, kontratuak, Gizarte Segurantza, osasuna eta prestazioak, zergak, ostatua, hezkuntza, kultura, helbide baliagarriak eta abar.

- **“Buscar empleo en” liburuxkak**

EBko herrialde bakoitzean enplegua bilatzeko eskuragarri dagoen **informazio praktikoa** laburbiltzen dute liburuxka horiek, enplegua bilatzeko oinarritzko helbideen berri emanez.

- **“Cuánto cuesta en”**

EBko gainerako herrialdeetan **bizitzak duen kostuari** buruzko datu praktikoak eskaintzen dituzte liburuxka horiek.

Kontuz! Erreparatu datari, litekeena delako eguneratuta ez egotea.

2.4. ENPLEGURAKO EUROPAR PROGRAMAK

2.4. A. Zure lehen EURES enplegua

• Zer da?

Laneko mugikortasun-ekimena da “Nire lehen EURES enplegua”. Bere **helburua gazteei enplegua lortzea erraztea eta enpresei EBko kide diren Estatuetako edozeinetan eta Norvegian eta Islandian langileak aurkitzen laguntzea da**. Finantza-laguntza eta informazioa eskaintzen dizkie lana eskatzen duten edo lanez aldatu nahi duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei. Horretarako, laguntza eskaintzen du jatorrizko herrialdea ez den EBko beste batean lana bilatzeko eta EBko beste herrialde batzuetako langile gazteak kontratatu nahi dituzten enpresei.

EURES Espainia Italia eta Suediako “Your First EURES Job” proiektuetan bazkide da, eta, hortaz, laguntzak eskatu ahal dira hemen:

- “Your First EURES Job” EURES-Italia. YFEJ 4.0
- “Your First EURES Job” EURES-Suecia.

Prestakuntza-ekintzaren diseinua eta kudeaketa globalaren ardura Europako Batzordearena da

http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/encontrar_empleo_europa/tu_primer_empleo_eures.html

• Nori dago zuzenduta?

Lana eskatu eta baldintza hauek betetzen dituztenei:

- 18 eta 35 urte bitartekoak izatea. Gazteek parte har dezakete, duten kualifikazio-maila, lan-esperientzia edo aurrekari ekonomiko edo sozialak garabehera.
- Europako herritartasuna izatea.
- EBko herrialde batean legez bizi egotea.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten **enpresei**:

- Enpresa EBko herrialde batean legez ezarrita izatea.
- Dagokien herrialdean aurkitzen ez duten berriazko profila duten langileak bilatzea.
- Gutxienez 6 hileko kontratuak eskaintzea, herrialdeko lan-legeria betetzen duten ordainsariak eta baldintzak dituztenak.

Enpresentzako informazio gehiago:

http://www.sepe.es/contenidos/empresas/ofertas_empleo/encontrar_empleo_europa_empresas.html

• **Nolakoak izango dira laguntzak?**

Lana eskatzen dutenentzat

Lanpostu huts egokiak bilatzea eta laneratzeko laguntza; lan-elkarrizketa egiteko bidaia ordaintzeko gastuetarako edota lanpostu huts bat betetzeko atzerrira joateko bidaiarako diru-laguntza.

Enpresentzat

Kontratatzeko laguntza. Langile kontratatu berrien prestakuntza-gastuen eta herrialdean bizitzen hasteko laguntzen zati bat ordaintzeko diru-laguntza bat eska dezakete enpresa txiki eta ertainek (250 langilekoak, gehienez ere).

Informazio guztia: <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=993&langId=es>

2.4.B. Gazte Bermea

Gazte Bermea Europar sustatutako ekimen bat da, **25 urtetik beherako gazteek lan-merkatuan leku izan dezaten**. Espainian Gazte Ekintzailtza estrategiaren baitan ezarri da.

Gazte Bermearen helburua da 25 urtetik beherako gazteek lan-, heziketa- edo prestakuntza-eskaintza bat jasotzea ikasketak amaitu edo langabe geratu eta, askoz jota, hurrengo la hilabeteetan.

Xede horrekin, estrategiak 100 neurri biltzen ditu, gazteak lan merkatuan sar daitezen, bai beste baten kontura lan eginez, bai ekintzailtzaren bidez.

- Aurreikusitako neurriak lau ardatzen inguruan gorpuzten dira:
 - Bitartekaritza hobetzea
 - Enplegarritasuna hobetzea
 - Kontrataziorako pizgarriak
 - Ekintzailtza sustatzea

Gazte Bermearen onuradun izateko ezarritako baldintzak bete behar dira eta Gazte Bermearen Sistemaren fitxategian sartu.

<http://www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/darsealta.html>

Informazio gehiago 060 telefonoan eta Gazte Bermearen web-atarian:
<http://www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/home.html>

2.4.C. Erasmus gazte ekintzaileentzat

Gazte Ekintzaileentzako Erasmus **programa nazioarteko trukeetan oinarritzen da, enpresa bat sortu nahi duten gazte ekintzaile eta pertsoneri proposatuta, beste herrialde bateko enpresari zailduekin ikasteko aukera eskainiaz.**

Eskarmentua duten enpresetara bertaratuko dira gazte ekintzaileak eta egonaldi horretan esperientzien berri jasoko dute eta beharrezkoak diren trebetasunak eskuratu enpresa txiki edo ertain bat zuzentzeko bestekoak. **Zati batean Europar Batasunak diruz laguntzen du programa eta iraupena bi edo hiru aste bitartekoa izaten da.**

Zure enpresa sortu berria izan zein eskarmentu luzea izan, programa honek balio erantsi handia eman diezaioke zure negozioari: ezagutzak eta esperientziak trukatzeko aukera ederra da, bai eta European zehar harreman-sarea eta erlazio komertzialak sortzeko ere, edo atzerriko merkatuetara jotzeko bidea.

Informazio gehiago: <http://www.erasmus-entrepreneurs.eu/>

2.5. ATARIK: LAN BILA EUROPAN

• Enplegurako atari orokorrak

Adibidez, jobrapido edo trovit bilatzaile pribatuek, bilaketak hainbat herrialdetan egiteko aukera ematen dizute, eta dagokion hizkuntzan. Gehiago ere badira; hona horietako batzuk:

<http://www.infojobs.net/jobsearch/jobs-advanced-search/edit.xhtml?canal=0>

www.infoempleo.com/trabajo/en_union-europea

www.laboris.net/Buscador.aspx?Idioma=es&Portal=1

<http://buscartrabajo.monster.es/>

<http://www.overseasjobs.com/>

<http://www.quierounbuentrabajo.com/>

<http://www.trabajosporelmundo.com/>

<https://www.jobandtalent.com/es/ofertas-de-empleo>

- **Enplegurako atari berezituak**

www.jobtransport.com/ (Garraioa-Frantzi)

www.turijobs.com (Turismo-eskaintzak atzerrian)

www.ticjob.es/ (Informazio eta Teknologiaren alorrean espezializatutako ataria)

<http://jobs.newscientist.com/en-gb/> (Zientzia eta teknologia alorreko lanak)

www.hacesfalta.org/oportunidades/remuneradas/buscador/

<http://www.pole-emploi.fr/> (Ostalaritza)

<https://profesores.bebee.com/> (Hezkuntza)

<http://www.hacesfalta.org/> (Enplegua boluntario-lanetan)

<http://www.ngojobsonline.com/> (Enplegua GKEetan)

- **Osasun arloko enplegua / Europa**

<http://www.seleuropa.com/index.html>

<http://agencemobileurope.com/>

<http://www.efisioterapia.net/empleo> (Eskaintzak Espainian eta Frantzian)

<https://www.mediempleo.com/>

<http://www.careersinwhite.com/>

2.6. ENPLEGU-BALIABIDEAK GAZTEENTZAT

- International job links

Bilatu lana oporretarako edo bidali zure CVa online. Webguneen direktorio zabal honek hainbat aukera eskaintzen dizkizu,aldi baterako enpleguekin hasi eta funtzio publikoaren lanpostuekin buka. Hautatu eskualde bat eta eremu bat eta honako hauek lortuko dituzu: herrialdez herrialde sailkatutako loturak, enplegua bilatzeko datu-baseei eta bilatzaileei buruzko iruzkinak, eta horiek eskuragarri dauden hizkuntzei buruzko informazioa.

www.4icj.com [EN]

- Anywork Anywhere

Enplegu-iragarkiak eta oinarrizko informazioa, Erresuma Batuan eta mundu osoan lan egiteko eta bidaiatzeko. Informazio-iturri baliagarri honetan, bisatu eta asegurupei, zergen itzulketari eta abarri buruzko informazioa bila dezakezu.

www.anyworkanywhere.com/ [EN]

- **Mundospanish**

Bilatu enplegua sektorez sektore, zure preferentzien arabera, eta aurki ezazu lana 30 herrialdetan baino gehiagotan. Eskaintza guztiak Espainiako pertsoneri zuzenduta daude, edo Espainiako jendearentzat eskuragarriak dira, gaztelaniaz mintzo direnentzat. Izan ere, gure herrialdean atzerriko lanpostuetarako profilak bilatzen dituzten laneratze-enpresek kudeatzen dituzte.

<http://mundospanish.com/empleo/>

- **Para emigrantes**

Espainiako emigranteentzako enplegu-ataria, mundu osoko lan-eskaintzak argitaratzen dituena, informazio praktikoa eta gidak herrialdez herrialde, lan egiteko, ikasteko edo ostatua aurkitzeko.

www.paraemigrantes.com/

- **Trabajar por el mundo**

Mundu osoko lan-eskaintzak argitaratzen dituen ataria. Norakoei, bekei, boluntario-lanari, lehiaketei eta abarri buruzko informazioa. Oso gomendagarria. Jarrai ezazu gizarte-sareetan edo posta elektronikoz, albisteen berri izateko.

<http://www.trabajarporelmundo.org/>

- **Eurograduate**

Graduatu berrientzako enpleguen ataria. Enplegua eskaintzen duten enpresa nagusiei buruzko informazioa, prestakuntza-bekak eta informazioa graduatuak behar dituzten lan-merkatuei buruz, titulaziorik titulazio.

<http://www.eurograduate.com/>

- **Just Landed**

Atzerrian lan egiteko behar duzun guztia aurkituko duzu webgune honetan. Bere helburua atzerrira joandako pertsonak elkarren artean konektatzea da. Gidak herrialdez herrialde, informazioa alokairuei buruz, komunitatea sortzeari buruz, enpleguari buruz eta iragarki klasifikatuei buruz.

<http://www.justlanded.com/espanol>

- **Jobsabroad**

Munduko enplegu-eskaintzen iturria. Bilatu hautatutako helmugaren arabera.

<http://jobs.goabroad.com/> [EN]

- Atzerrian enplegua bilatuz

Europako beste herrialde batera lan bila joan aurretik bizitza-estiloari eta lan-baldintzei dagokionez eta kulturari dagokionez kontuan hartu beharreko desberdintasunei buruzko informazio-iturria. Herrialdeetako gidetan informazio praktikoa aurkituko duzu 40 herrialde baino gehiagoren kultura-alderdiei heltzeko moduari eta bertan lana bilatzeko moduari dagokionez.

www.labourmobility.com/ [EN]

- Eurobrussels

Bruselan, EBko erakundeetan, abokatu-kabineteetan, nazioarteko erakundeetan, erakunde akademikoetan, unibertsitateetan, enpresa-eskoletan eta think tank direlakoetan enplegua aurkitzeko lagungarri izan daiteke webgune hau. Lana bilatzeko tokiei buruzko aholku baliagarriak.

www.eurobrussels.com/index.php [EN]

- Nazioarteko erakundeetan lan egin

Lan-eskaintzen webguneetarako estekak ditu atari honek, bai eta Europako eta itsasoz gaindiko nazioarteko erakundeen zerrenda zabala ere.

<https://www.coe-recruitment.com/> [EN] [FR]

- Iagora

Graduatu berritan eta lehen enpleguaren bila? Hasiberri batentzako lanpostu baten edo bestelako lanpostu baten bila bazabiltza, webgune honetan Europar Batasun osoko eskaintzak aurkituko dituzu, kokapenaren, industriaren eta eginkizunaren arabera antolatuak. Posta elektronikoa ere erabil dezakezu, izena emateko eta lan-aukerari eta praktikaldiei buruzko informazioa jasotzeko.

<http://www.iagora.com/work/en/internships-and-jobs-abroad>

2.7. BALIABIDEAK: ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOAK HERRIALDEZ HERRIALDE

- Alemania
 - Bundesagentur für arbeit www.arbeitsagentur.de/
 - BVA. Bundesverwaltungsamt http://www.bva.bund.de/DE/Home/home_node.html
- Austria
 - AMS. Arbeitsmarktservice www.ams.at/
- Belgika
 - Orbem/gda. Office régional bruxellois de l'emploi / brusselse gewestelijke dienst voor arbeidsbemiddeling www.actiris.be/
 - Forem. L'office wallon de la formation professionnelle et de l'emploi www.leforem.be/
 - Vdab. Vlaamse dienst voor arbeidsbemiddeling www.vdab.be/
- Danimarka
 - AMS. Arbejdsmarkedstyrelsen, labour market authority www.ams.dk/
- Finlandia
 - Mol. Työministeriö/arbetsministeriet (ministry of labour) <http://www.te-services.fi/te/en/index.html>
- Frantzia
 - ANPE. Agence nationale pour l'emploi www.pole-emploi.fr
 - APEC. Association Pour L'emploi Des Cadres www.apec.fr
 - OFII. Office Français De L'immigration Et De L'integration www.ofii.fr/
- Grezia
 - OAED www.oaed.gr/
- Irlanda
 - FAS. Training and employment authority www.fas.ie

- Islandia
 - Vinnumalastofnun www.vinnumalastofnun.is
- Italia
 - MLPS. Ministero del lavoro e delle politiche sociali <http://www.lavoro.gov.it/Pages/default.aspx>
- Luxenburgo
 - ADEM. Administration de L'emploi www.adem.public.lu/
- Norvegia
 - AETAT. Arbeidsmarkedsetaten www.aetat.no/
- Herbehereak
 - CWI. Centrum Voor Werk En Inkomen www.werk-en-inkomen.com
 - Werk.NI <https://www.werk.nl>
- Portugal
 - IEFP - Instituto do emprego e formação profissional <http://www.iefp.pt/>
- Erresuma Batua
 - Universal Jobmatch www.gov.uk/jobsearch
 - Jobcentreonline, department for employment & learning Northern Ireland www.jobcentreonline.com
- Suedia
 - Arbetsförmedlingen www.arbetsformedlingen.se/
- Suiza
 - SECO. Directorate of labour <http://www.seco.admin.ch/>

2.8 BALIABIDEAK: ENPLEGUA BILATZEKO BALIABIDEAK HERRIALDEZ HERRIALDE

Herrialdez herrialde enplegua bilatzeko baliabide-bilduma ugari daude. Hona hemen interesgarrienak.

- **SEPE**

EURES sareak argitaratzen ditu gida horiek, eta **nahi duzun gida espezifiko**a aukera dezakezu lan egiteko aukeratu duzun herrialdearen arabera. Nahiko gida osoak dira, eta hainbat gairi buruzko informazioa biltzen dute, hala nola lan-merkatua, kontratuak, Gizarte Segurantza, osasuna eta prestazioak, zergak, ostatua, hezkuntza, kultura, helbide baliagarriak eta abar.

http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/empleo_europa.html

- **Enplegua gazteentzat, herrialdez herrialde**

Kantabriako gobernuak herrialdez herrialde enplegua bilatzeko gida bat argitaratu du, enpleguari, bekei, udako lanari eta abarri buruzko loturak barne. Herrialde jakin batean interesatuta bazaude, kontsultatu gida hau, ezinbestean. Oso gomendagarria!

<http://www.jovenmania.es/index.php/comunes/contenido/id/7502/h/no>

- **Oportunidad Europa**

Oportunidad Europa webgunearen **helburua gazteen mugikortasuna, ezagutza, kultura-artekotasuna, erantzukizuna eta gazteek gizartean duten partaidetza sustatzea da**. Informazioa herrialdez herrialde antolatuta dago. Egunero atzerriko lan-eskaintzak, praktikaldiak, bekak, boluntario-jarduerak eta kultura-trukeak iragartzen dira bertan.

<http://oportunidadeuropa.com/>

- **Enplegua bilatzeko baliabideak herrialdez herrialde**

- **Alemania**

www.arbeitsagentur.de

<http://www.emploi-allemande.de/>

www.jobpilot.de

www.jobs.de

www.jobber.de

www.afasp.net

<http://crosswater-job-guide.com/>

<http://alemaniatenecesita.es/>

<http://trabajar-en-alemania.es/ofertas>

<http://www.conexion-empleo.com/es>

<http://www.make-it-in-germany.com/en/home/>

<http://www.european-job-service.eu/category/ofertas-de-trabajo/>

<http://www.empleo.gob.es/es/mundo/consejerias/alemania/webempleo/index.htm>

<http://www.tta-personal.es/>

<http://www.thejobofmylife.de/en/>

<http://www.stellenanzeigen.de/>

<http://www.spanien-personal.de/>

<http://www.tecnoempleo.de/>

<http://trabajaralemania.com/>

<http://www.jobs.de/>

<http://www.it-jobs.stepstone.de/>

<http://www.jobsintown.de/>

<http://www.jobware.de/>

<http://www.bildungsserver.de/>

<http://www.auswaertiges-amt.de/>

<http://www.worldwidejobs.de/>

<http://www.entwicklungsdienst.de/>

<http://buehnenjobs.de/>

- Austria

<http://www.jugendservice.at/>

www.stepstone.at

<http://oscarsjobs.com/>

<http://www.nebenjob.at/jobsite/home.php>

<http://www.bewerbung.at/>

<http://www.hogastjob.com/>

<http://www.rollingpin.at/>

<http://www.hoteljob-oesterreich.de/>

www.ams.at

www.jobcenter.at

www.finden.at/Jobs/Ferialjobs-Praktika

- Belgika

www.leforem.be

www.actiris.be

www.brico.be/fr/hr/vacatures

www.federgon.be

www.colruyt.be

www.centres-de-vacances.be

www.stepstone.be

www.references.be

www.jobscareer.be

- Bulgaria

www.bluelink.net/

<http://jobs.goabroad.com/search/bulgaria/jobs-abroad-1>

- Danimarka

<http://www.careerbuilder.dk/>

<https://job.jobnet.dk/CV>

<http://www.ofir.dk/>

<http://www.jobzonen.dk/>

- Eslovakia

www.bakalari.sk

www.brigadnici.sk/

www.ccusa.sk

www.ckm.sk/buxus/generate_page.php?page_id=60

<http://www.indexnoslus.sk/>

www.studentagency.sk

- Eslovenia

www.ess.gov.si/

www.impel-bohinj.si

www.studentski-servis.com/

<http://www.nasvet.com/zaposlitev/>

- Estonia

<http://www.cv.ee/>

<http://www.cvkeskus.ee/>

<http://www.politsei.ee/>

www.luisa.ee

- Finlandia

<http://www.nordjobb.org/sv/>

<http://www.infopankki.fi/en/frontpage>

<http://www.uranus.fi/>

- Frantzia

www.animjobs.com/

www.yoopala.com

www.etudis.com/

www.iquesta.com/

www.planetanim.com

<http://www.letudiant.fr/jobsstages.html?origin=emploi>

www.unse.org/fr/sejours/jobs.html

<http://www.saisonnier.fr/>

<http://www.chez-vous.com/>

<http://jobs-emplois.studyrama.com/jobs-etudiants/>

<http://redfrancia.com/empresas-francesas/402/31000emploi-com/>

<http://www.amplement.fr>

<http://www.cpcampus.com/>

Eskualdeka: <http://www.abcdent.pro>

Eraikuntza, herri lanak: <http://www.actionbtp.com>

Kontabilitatea eta administrazioa: <http://www.admincompta.fr>

Ingeniariak: <http://www.aerocontact.com/>

Aeronautika, ingeniaritza: <http://www.aeroemploifformation.com/>

Ikasleak, tituludun berriak: <http://ww21.afij.org/>

Desgaitasuna duten pertsonak: <http://www.agefiph.fr>

Nekazaritza eta elikagaien sektorea: <http://www.agrojob.com>

Zuzendariak, tituludun berriak: [Web Apec](#)

Arkitektura eta hirigintza, kontabilitatea eta administrazioa, zuzendariak, ingeniariak:

<http://www.apec.fr>

Nekazaritza eta elikagaien sektorea: <http://www.apecita.com>

Arkitektura eta hirigintza: <http://www.archiemploi.com>

Kontabilitatea eta administrazioa: <http://www.assistance-experte.com>

Bankuak, finantzak eta aseguruak: <http://www.assurancejob.com>

Informatika, informazio-teknologiak: <http://www.bale.fr>

- Grezia

www.diversparadise.gr/

<http://www.ctp.gr/intrasteki/working.htm>

<http://www.skywalker.gr/>

<http://www.kariera.gr/>

- Hungaria

www.allas.lap.hu

www.afsz.hu

www.mol.hu

<http://www.morganstanley.com/about-us/global-offices/>

www.congresstravel.hu

www.profipower.hu

www.job.lhsystems.hu

www.jobbkezek.hu

<http://www.ilovediakmunka.hu/>

www.furgediak.hu/cegek.php/default/index_en

<http://www.decathlon.co.hu/>

- Irlanda

www.hoteljobs.ie

www.approachpeople.com

www.careerbuilder.ie/

www.irishjobs.ie/

www.recruitireland.com/

www.jobs.ie/

<http://www.headhunt.ie/>

<http://www.enterprise.gov.ie/en/>
www.dublinzoo.ie
www.fotawildlife.ie

• Islandia

<http://www.nordjobb.org/sv/>
<http://www.stra.is/>
<http://asetur.is/>
<http://www.ninukot.is/>

• Italia

www.mirabilandia.it/#/lavoraconnoi
<http://www.zainettoverde.it/it/collaboratori.asp>
<http://www.riminimpiego.it/>
<http://www.cercalavoro.com/>
<http://www.bancalavoro.it/>
<http://www.cliccalavoro.it/>
<http://www.talentcampus.it>
<http://www.experis.it/>
<http://www.obiettivolavoro.it/>
<http://www.umana.it/>

• Letonia

www.study.lv/
<http://www.prakse.lv/>
<http://www.workingday.lv/ka/>
<http://www.ss.lv/>
<http://www.cvmarket.lv/>
<http://www.cv.lv/>

• Liechtenstein

www.aha.li/

• Lituania

www.ewc.lt/

www.itc.lt/
www.lwc.lt/render/lt/programos/darbo/ukfarm.htm
www.jaunimas.lt
www.cv.lt
<http://www.cvonline.lt/>
<http://www.5ci.lt/jobforum/Eng/default.htm>

- Luxemburgo

www.cij.lu
<http://jobs.youth.lu>
<http://www.luxweb.lu/>
<http://www.rtpb.lu/rtpb/RTPH.html>
<http://en.jobs.lu/>
<http://www.stepstone.lu/>

- Malta

<http://www.etc.gov.mt>
www.vacancycentre.com/
<http://www.people.com.mt/>

- Norvegia

www.norvege.no
<https://www.nav.no/en/Home>
<http://www.finn.no/jobb/>
<https://www.oslo.kommune.no/politikk-og-administrasjon/jobb-i-oslo-kommune/>
<http://www.karrierestart.no/>
<http://www.careerjet.no/>
<http://www.teknojobb.no/>
<http://www.jobbdirekte.no/>
<http://www.jobbsafari.no/>
<http://www.jobbttotal.no/>
<http://www.tu.no/>
<http://www.jobbnorge.no/>
<http://www.jobb24.no/>
<http://www.karrierelink.no/>
<http://www.legejobber.no/>

<http://www.medrec.no/>
<http://www.researchgate.net/jobs/>

- Herbehereak

<http://vakantiewerk.startpagina.nl/>
<http://www.seizoenwerk.nl/nl/>
<http://www.zomerjobs.nl/>
www.vacansoleil.nl/werk
www.seasonalwork.nl
<http://www.careerbuilder.nl/>
<http://www.intermediair.nl/?ref=jobnews.nl>
<http://www.nationalevacaturebank.nl/>
<http://www.emc.nl/>

- Polonia

<https://sklep.premium.pl/2p.pl>
<http://www.pracuj.pl/>
<http://www.grafton.pl/>
<http://www.wheeleyscott.com/>
<http://www.jobs.pl/>
<http://www.mpips.gov.pl/>

- Portugal

<http://expressoemprego.pt/carreiras/trabalhos-de-verao/4651>
<http://www.bonsempregos.com/>
<http://www.portaldemprego.eu/>
<http://www.empregosonline.pt/>
<http://www.net-empregos.com/>
<http://www.netemprego.gov.pt/IEFP/index.jsp>
<http://emprego.sapo.pt/>

- Erresuma Batua

Sektore guztiak
www.totaljobs.com
www.prospects.ac.uk
www.jobs.ac.uk
www.jobserve.com

www.tiptopjob.com
<http://www.fish4.co.uk/>
www.jobsite.co.uk
www.seasonworkers.com/summerjobs
www.holidaybreakjobs.com
<http://www.gumtree.com/jobs/london>
<http://blog.jobandtalent.com/buscar-trabajo-reino-unido-inglaterra/>
<http://www.empleo.gob.es/es/mundo/consejerias/reinoUnido/portalempleo/index.htm>
www.trabajoeninglaterra.org

- Txekiar Errepublika

www.ajob.cz
www.alfa-agency.cz
www.ccusa.cz
www.gaa.cz
www.studentagency.cz
www.adecco.cz
www.axial.cz
<http://www.monster.cz/>
www.jobs.cz
www.student.cz
<http://www.prace.cz/>
<http://www.jobmaster.cz/index.php>
<http://www.hotjobs.cz/>

- Errumania

www.sci.ro
<http://www.1job.ro/english/>
<http://www.jobsearch.ro/index.html>
<http://www.imra-group.com/>
<http://www.mmuncii.ro/j33/index.php/ro/>

- Suedia

www.sommarjobb.se
<http://www.nordjobb.org/sv/>

<http://www.academicwork.se/>

<http://www.lernia.se/>

<https://www.poolia.se/>

<http://www.kontorsfixarna.se/>

<http://www.sjr.se/>

<https://www.experis.se/>

<http://www.uniflex.se/>

<http://www.dreamwork.se/>

- Turkia

www.genctur.com.tr

<http://www.relocation-turkey.com/>

- **Lana bilatzeko beste baliabide batzuk**

- Hotelak eta catering-a

www.hoteljobswop.com

www.hotel-jobs.co.uk

www.hcareers.co.uk

www.caterer.com

- Enplegu elebidunak

www.french-selection.co.uk

- Enplegu-agentziak

www.agencycentral.co.uk

www.reed.co.uk

www.tate.co.uk

www.thelawyer.com

www.maine-tucker.co.uk

www.diamond-rec.co.uk

www.adecco.co.uk

www.manpower.co.uk

www.select.co.uk

www.workcircle.co.uk

- Londres

www.forolondres.com

www.londonstayuk.com

www.londonworkexperience.com

www.time2london.com

www.trabajar-en-londres.es

www.trabajoenlondres.eu/

- Bestelakoak

www.bapaa.org.uk

www.nursingtimes.net

LABURPENA

Udako oporretan atzerrian lan egitea beste hizkuntza bat hobetzeko, beste herrialde batzuk ezagutzeko, edo beste gazte batzuekin harremanak sortzeko, egitasmo aberasgarria da, ondo planifikatu behar dena. Aukera asko eta asko daude. Hona horietako batzuk.

- Argi duzu? Horrela bada joan zuzenean herrialde bati edo lan mota jakin bati dagozkion orrialdeetara.
- Ez baduzu oso argi, aztertu baliabide orokorrak. Lan-motak zeintzuk diren eta zer aukera eskaintzen duten jabetuko zara.
- Planifikazioa egin behar beste denbora hartuta. Horrek aukera gehiago emango dizu zure helmuga ondo hautatzeko.
- Aldi baterako edo urte-sasoiko lanean jarduteak ez du esan nahi zure lan-eskubideak galtzen dituzunik. **Ibili adi iruzurrezko lan-eskaintzekin!**



URTE-SASOIKO LANA

3.1. SARRERA

Oporretako lana edo urte-sasoiko lana da **urteko garai jakin batzuetan** bakarrik egiten dena, dagokion industrian edo eskualdean lan-eskaintza askoz ere handiagoa delako urte-saso batzuetan beste batzuetan baino. Ikasleentzat, oporraldietan egindako lana da urte-sasoiko lana.

Uda ongi pasatzeko garaia izan daiteke, eta gainera diru pixka bat irabazteko aukera ere eman dezake, beste herrialde batean bizitzeko aukera emango dizun enplegu batean jardunez. Abentura eta bizi-esperientzia uztartu nahi dituzten bidaiariek ordaindutako lanen eskaintza zabala dute eskura, dibertsioa bermatzen dutenak.

Normalean **lanbide-prestakuntza txikia eskatzen dute** enplegu horiek, baina

zenbaitetan alde aurreko jakintza eskatzen dizute kirol baten edo beste prestakuntza baten inguruan, edo parte hartu nahi dutenek ikastaro bat egin behar dute enpresa kontratugilearen kontura. Lanpostu ohikoena honako hauek dira: **kanpamentuko monitorea, kanpoko eta kiroleko jardueretarako monitorea, turismo-animatzailea, nekazaritzako eta abeletxeko lanak, itsas bidaia eta itsasontzietako lanak, urte-sasoiko enpleguak eski-estazioetan, eta abar.**

Arrisku-kirolen bat egiten baduzu edo ohiz kanpoko beste trebetasunen bat baduzu, horrelako lan batean aritzea izan daiteke zuretzat aproposena, oporraldi batez gozatzeko eta aldi berean zaletasun pertsonal batean aritzeko aukera eskaintzen dizun neurrian.

3.2. BALIABIDEAK ORO HAR

- **ANYWORK ANYWHERE**

Kontratazioko nazioarteko gunea, ikasleentzat, ibiltarientzat eta mundu osoan bidaiatzen duten pertsonentzat. Noizbehinkako, urte-sasoiko eta aldi baterako enplegu-aukeren iragarkiak biltzen ditu, baita Erresuma Batuko eta munduko gainerako eskualdeetako enpleguari buruzko informazioa ere. Baliabide interesgarriak dira.

www.anyworkanywhere.com/ [EN]

- **Enplegua opor-zentroetan**

Online direktorioa, opor-zentro batean udako edo neguko urte-sasoiko lan baten bila dabilzan pertsonentzat. Urte-sasoiko lanpostuak biltzen ditu direktorioak, sektore guztietakoak, hala nola haur-zaintzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak, gidariak eta jatetxeetako eta bezeroaren arretarako zerbitzuko enpleguak.

<http://www.resortwork.co.uk/> [EN]

- **Udako enpleguak**

Uda honetarako lan bila segitzen al duzu? Webgune honek hainbat enplegu-aukera eskaintzen dizkizu, Europan eta mundu osoan. Enpleguak kanpamentuetan, parkeetan, turismo-zentroetan, hoteletan eta urte-sasoiko beste jarduera batzuetan. Informazio baliagarria hasteko moduaren, baliabideen eta aholkuen inguruan.

www.summerjobs.com/ [EN]

- **GAPWORK**

Ikaslea bazara edo bidaiatzeko urte sabatikoa hartu baduzu, webgune honetan beharrezko informazio guztia aurkituko duzu Europako eta atzerriko noizbehinkako lanaren inguruan: oporretan lan egiteko bisatuak, urte sabatikokoak, bidaiia-aseguruak, hegaldiak, hirietako mapak, osasuna eta abar.

<http://www.gapwork.com/gap-year-destinations/europe/index.html> [EN]

- **Simplyhired**

Urte-sasoiko etaaldi baterako lana bilatzeko Espainia eta Europan.

<http://www.simplyhired.es/a/jobs/list/q-temporada>

- **Kings recruit**

Hautzaintzaren edo kirolen arloetako ikaslea zara? Edo irakasle-ikasketak dituzu eta atzerrian esperientzia sinestezina izan nahi duzu eta, aldi berean, dirua irabazi? Kings Recruittek kirol-begirale eta haurtzain lanpostuak eskaintzen dizkizu itsas bidaietan edo Europako, Ameriketako eta Afrikako kanpamentuetan.

<http://www.kingsrecruit.com/espanol/>

- **STA travel**

Irabaz ezazu soldata Estatu Batuetako kanpamentu bateko animatzaile gisa jolasten eta lan egiten, edo bestela Korean irakasten edo Irlandan garagardo-pintak ateratzen. Mundu osoan barrena zeregin harrigarrietan ere ogibidea nola atera dezakezun esaten dizute hemen.

www.statravel.com.au/work-overseas.htm [EN]

- **The frontier club**

Atzerrian lana aurkitzeko laguntza: itsas bidaiak, kontserbazioa, auzolandegiak, irakaskuntza, eski-estazioak, aldi baterako eta udako enpleguak.

www.frontierclub.com/ [EN]

- **Season workers**

Erresuma Batuko atari honek udako hainbat ikastaro eta lan-eskaintza eskaintzen ditu, hala nola kanpoko jardueretarako eta eski-estazioetarako monitoreak eta beste hainbat aukera, urte sabatikoa hartu nahi duten, edo, besterik gabe, bizitzako esperientziarik zirrargarriena bizi nahi duten guztientzat.

www.seasonworkers.com/ [EN]

- **Summer jobs 4 U**

Udako lanak Europan eta munduko gainerako herrialdeetan.

www.summerjobs4u.co.uk/ [EN]

- **Transitions abroad**

Orri bikain honetan, mota guztietako informazioak aurki ditzakegu atzerriko lanen inguruan, eta besteak beste nabarmentzekoak dira, batetik, enpresen direktorioak, eta, bestetik, atzerrian, munduko edozein tokitan lan egin duten pertsonen esperientzien berri ematen duten artikulua.

www.transitionsabroad.com/ [EN]

- **ACHUS!**

Planeta osoko parke tematikoen eta aisia-parkeen gida ofiziala (ur-parkeak, jolasparkeak, zooak, lorategi botanikoak eta abar). Kontinentez kontinente katalogatuta eta herrialdez herrialde banatuta ageri dira. Gainera, profesionalentzako baliabide-direktorio batean sartzeko aukera ere eskaintzen du.

www.achus.net/ [EN]

- **SUMMER JOBS**

Lan-eskaintzak turismoko guneeetan, estadioetan, jaialdietan, itsas bidaietan, eta abar.

www.summer-jobs.co.uk

- **IYHF**

Hostelling International webguneak, 90 herrialde baino gehiagoko gazte-aterpetxeen 90 elkarte baino gehiago biltzen ditu. Webgunearen bitartez, 4 000 aterpetxeren orrietan sartzeko aukera dago, eta bertan hainbat lan-eskaintza agertzen dira normalean.

<https://www.hihostels.com/> [EN]

- **JOBMONKEY**

Urte-sasoiko lanean espezializatutako atari honek aparteko aukerak eskaintzen dizkizu mundu osoan barrena modu dibertigarrian bidaiatzeko, eta, aldi berean, gogoko duzun zerbait egitearen truke diru pixka bat irabazteko.

www.jobmonkey.com/ [EN]

- **FISH4JOBS-STUDENTS**

Erresuma Batuko ataria, ikasleentzako enplegu-eskaintza ugari biltzen dituen a. <http://www.fish4.co.uk/jobs/uk/student?referer=justjobs4students.co.uk> [EN]

- **LIVE WORK & PLAY**

Atzerrian lan egiteko, urte-sasoian lan egiteko bereziki, gida espezializatuak gargaratzen dituen enpresa. Web-orrian eskuragarri dauden aleak kontsultatzeko aukera dago, baita balio handiko beste web-orrietarako loturen bilduma kontsultatzeko aukera ere. Bidaia-erakundeek gidetan kolabora dezakete, beren esperientzien berri emanez.

www.liveworkplay.com.au/ [EN]

- **PAY AWAY**

Atzerrian lan egiteko hainbat artikulu eta baliabide aurki ditzakezu gune honetan. Arreta berezia eskaintzen die oso ohikoak ez diren sektoreetako aldi baterako enpleguei: kanpamentuetarako eta bestelako kirol-jardueretarako monitoreak, abeletxeetako lanak, uzta-bilketa eta abar.

www.payaway.co.uk/ [EN]

- **VOOVS.COM**

Sasoiko lanak, kirolaren, turismoaren edo aisialdiaren arlokoak, hondartzetan, baretan eta abarretan.

www.seasonal-jobs.com/ [EN]

- **SCOTT DUNN**

Enplegu-agentzia honek askotariko enpleguak eskaintzen ditu Alpeetako goi-sasoian eta Europako kostalde osoan, udan: chef lanpostuetatik haur-zaintzaile lanpostuetara, gidarietatik ekitaldien koordinatzaileetara.

<http://jobs.scottdunn.com/>

- **Bilatzaile eta enpresen zerrendak**

www.campcampus.com

www.job-junior.com:

<https://jobetudiant.net/etudiant/jobs-d-ete.php>

www.planetanim.com

3.3. ITSAS BIDAIETAN, ITSASONTZIETAN ETA ONTZI-ENPRESETAN LAN EGITEKO

Ontzien arloan langileak bilatzen ari dira etengabe, itsasontzietan, itsas bidaietan, petrolio- eta gas-plataformetan, kontserba-enpresetan eta arrain-ustiapenetan eta abarretan lan egiteko. Okupazio duina (eta ongi ordaindutakoa) lortzeko aukera ona da; gainera, eguneroko lana abentura zirrargarri bihurtzen da. Lanpostu ugari bete behar izaten dira, bai kopuru aldetik, bai motaren aldetik.

Itsas bidaietako konpainia askok enplegu-eskaintzak jartzen dituzte euren webguneetan, adibidez: Pullmantur (<http://www.pullmantur.es/general/empleo.html>), EDO CostaCruceiros (<http://www.career.costacrocieri.it/> [EN]). Beste batzuek, MSC Cruceirosek (http://www.msccruceiros.es/es_es/inicio.aspx) adibidez, ez dute enplegu-atalik webgunean, baina lan-eskaintzak argitaratu ohi dituzte Infojobsen. Era berean, itsasontzietan lan egiteko langileak hautatzen espezializatuta dauden enplegu-agentziak ere badaude, adibidez <http://www.mobicacrew.com>

- **ALASKA JOBS**

Alaskan, arrain-industrian lan egiteko, kontserba-fabrika batean, arrain-haztegi batean, arrantza-ontzi batean eta abar.

www.jobmonkey.com/alaska/ [EN]

- **INTERNATIONAL CRUISE SHIPS**

Nazioarteko itsas bidaietan lan egiteko. Lan-motak, soldatak eta lana lortzeko benetako aukerak deskribatzen ditu.

www.cruiselinejobs.com/

- **ROYAL CARIBBEAN**

Itsas bidaien arloko konpainiarik handienetakoa da munduan. Enplegu-eskaintzak bulegoetarako eta luxuzko itsas bidaietan.

www.royalcaribbean.es/ourCompany/career.do

- **WIND ROSE NETWORK**

Itsas industriari buruzko informazioa ematen du, alor horretan lanpostu bat bilatzea errazagoa izan dadin. Enpresa honek ontzi-konpainia eta itsas operadore ugaritako

lanpostuak kudeatzen ditu eta itsas bidaietan, merkataritzako ontzietan eta itsas zabaleko plataformetan lanpostuak eskaintzen ditu.

<http://www.windrosenetwork.com>

- **MUNDU ZABALEKO KONPAINIEN ZERRENDA**

- [Airborne Recruiting](#) Itsas bidaietan Indian lana eskaintzen duen agentzia
- [Consultia Pro Jobs](#) (Itsas bidaietan, Errumania)
- [Crewconnected.com](#) (Pilotu, kapitain eta kabinako tripulatazaileentzat)
- [Cruise Lines Employment](#)
- [CruiseShipEntertainment.Com](#) (Cruise industry onboard entertainment positions)
- [Executive Search International](#) (Worldwide search and recruitment company)
- [Emploeocruceros](#) (Itsas bidaietan Mexikon lana eskaintzen duen agentzia)
- [Global Marine Travel – GMT](#) (Itsasontzietako langileak)
- [Istone International](#) (Itsa bidaietan zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa)
- [International Cruise Management Agency A/S](#) (Crystal Cruises – lan-saila)
- [Ocean Dolphin Ships Management](#) (Overseas crew manning agency)
- [PrincessJobs.com](#) (Employment with Princess Tours)
- [Romanov Crewing Agency](#)
- [The Cruise Employment Databank](#) (Online searchable database)
- [UkrCrewing Maritime Agency](#) (The State Ukrainian Company)
- [V.Ships](#)
- [Vip International](#)
- [Wilhelmsen Ship Management](#)
- [Work On Cruise Ships](#)

3.4. ABENTURA ETA ARRISKU-KIROLEN ARLOAN LAN EGITEKO

Zure bizimoduan arriskua eta abentura atsegin baldin badituzu, zure kirol-jarduera gogokoena egitearekin bateragarria den lan bat aurkitzen saia zaitezke; hartara, zure gustuko jarduera egiteaz gain, diru-sarreraren bat ere izango duzu. Sektorre hori oso zabala da eta askotariko lanpostuak izaten dira: kirol-monitoreak, sorosleak, zerbitzariak, harreragileak eta abar.

- **INTREPID TRAVEL**

Enpresa honek naturan egiten diren jarduerak antolatzen ditu. Lanposturen bat hutsik baldin badute, lan-eskaintzak kontsulta daitezke.

<http://www.intrepidtravel.com/uk/> [EN]

- **FISH4 ADVENTURE**

Erresuma Batuko ataria, lan-eskaintza ugari dituen honako arlo hauetan: abentura-kirolak, astialdiko begiraleak eta animazio turistikoa.

<http://www.fish4.co.uk/jobs/uk/adventure?referer=adventurejobs.co.uk>

- **CLUB SWIM**

Enpresa aitzindari honek teknologia berriak aplikatzen ditu igeriketaren arloan. Urpekariak, entrenatzaileak, irakasleak, sorosleak eta igeriketa-arloko profesionalak hartzen ditu lanerako.

<http://swim.isport.com/> [EN]

- **COOL WORKS**

Webgune hau urte-sasoiko lanetan espezializatuta dago, munduko lekurik onenetan. Udako lanak Yellowstone edo Yosemite parkeetan edo AEBetako beste parke nazional batzuetan; udako enpleguak kanpamenduko begirale moduan; eski-estazioak, arrantxoak, parke tematikoak, tour operadoreak eta beste hamaika aukera internautaren eskura.

www.coolworks.com/ [EN]

- **ENDEAVOUR TRAINING**

Instrukture kalifikatuak behar dituzte hainbat jardueratarako: raftinga, mendizaletasuna, eskalada, espeleologia, txirrindularitza, amildegi-jaitziera eta abar. "Job Vacancies" atalean informazioa aurki daiteke.

www.endeavour.org.uk/ [EN]

- **ALPJOB**

Alpeetako lan-eskaintzen bilatzailea, neguko sasoirako. Ski-begirale lanpostuak eta bestelako eskaintzak goi-sasoian lanpostuak betetzeko.

<http://www.alpjob.com/>

- **ACORN ADVENTURE**

Taldeentzako eta ikastetxeetarako abentura-bidaietan espezialista da agentzia hau. 250 pertsona hartu ohi ditu urtero, Europa osoko abentura-kanpamentuetan lan egin dezaten.

<http://acornadventure.co.uk/acorn-adventure-recruitment/>

- **ADVENTURE WORK**

Abenturaren esparruko lanpostuetarako langileak hautatzen dituen enpresa. Eskaladako, piraguismoko edo windsurfeko irakasleak bilatu ohi ditu, bai eta kanpinetarako gerenteak, astialdiko begiraleak, sorosleak eta abar.

<http://www.adventurework.co.uk/>

3.5. ANIMAZIO TURISTIKOAREKIN LOTURIKO POSTUETAN LAN EGITEKO

Sektore honetako enplegu-eskaintza askotarikoa da: kirol-jardueretarako monitorea, haurren eta gazteen jardueretarako begiraleak, hoteletako animazioa, performancea, emanaldiak...

Sektore honetako enpresetan **jende dinamikoa nahi izaten dute, jendetasun handikoa, egokitze zailtasunik ez duena, jendearekin kontaktuan egotea gustuko duena eta hainbat hizkuntza dakiena.**

- **ANIMAJOBS**

Enpresa espainiar hau animazio turistikorekin sektorean espezializatua dago. Lan-poltsa propioa du eta honako postu hauetarako eskaintzak izaten ditu: animatzaileak (junior eta senior), animatzaile-buruak, kirol-monitorea, haurren eta nerabeen begiraleak, gauekoak, balio anitzekoak... Baldintza bat bete behar da, nahitaez: gutxienez 2 hizkuntza jakitea. Gainera, posta elektronikoko zeure kontua ere sor dezakezu doan.

www.animajobs.com/

- **RESORTJOBS.COM**

Webgune honetan bidaiekin eta aisialdiarekin loturiko enplegua eskaintzen dute: konplexu turistikoen, eski-estazioetan, kanpamenduetan, parke nazionaletan, itsas bidaietan, jatetxeetan, hoteletan eta bestelako enpresetan.

www.resortjobs.com/ [EN]

- **WINTOUR NL**

Europa osoko kanpin, bainuetxe eta hoteletan lan egingo duten pertsonak hautatzen ditu konpainia honek: harreragileak, zerbitzariak, sorosleak, animatzaileak, koreografoak, dantzariak, fitness-irakasleak, minidubeko laguntzaileak, DJak, argi-edo soinu-teknikariak, dekoratuetako teknikariak...

<http://www.wintour.it/Wintour/Home> [EN] [DE] [FR] [IT]

- **BILATZAILE ETA KONPAINIEN ZERRENDA**

www.hotel-jobs.co.uk/job_search.aspx (Reino Unido)

www.livein-jobs.co.uk/index.html (Reino Unido)

www.leisurejobs.com (Reino Unido)

3.6. KANPAMENDUETAN LAN EGITEKO

Oporraldian haur eta gazteentzat jarduerak antolatzen dituzten enpresek langileak behar izaten dituzte **hainbat lanpostu betetzeko**: aisialdiko begiraleak, kirol-monitoreak, eskulanetarako, mantentze-lanetarako, bulego-lanetarako, ibilgailuak gidatzeko, zaintzarako, sukalderako eta abarrerako.

Nolanahi ere, oso garrantzitsua da hautagaiak gustura aritzea haur eta gazteekin eta hainbat hizkuntza menderatzen badituzte, are eta hobeto.

- **CLUBCAMPAMENTOS.INFO**

100 kanpamentu antolatu, kudeatu eta merkaturatzen ditu Espainian eta beste herrialde batzuetan. Astialdiko begirale-titulua, kirol-entrenatzaile titulua edo antzekoa baduzu, hizkuntzak badakizkizu edo kanpamentuetako arloetakoren batean esperientzia baduzu eta lan bila bazabiltza, zure CVa bidali diezaiekezu.

<http://www.campamentos.info/Educacion-empresa/Bolsa-de-empleo/>

- **CAMP CHANNEL**

Kanpamenduen direktorioa da eta lan-eskaintzen atala ere badu.

www.campchannel.com/ [EN]

- **HOLIDAY BREAK**

Europako hainbat herrialdetan kanpamenduetan lan egiteko eskaintzak.

www.holidaybreakjobs.com/ [EN]

- **WELLSPRING CAMPS**

WELLSPRING CAMPS

Aurki ezazu lana Wellsprings kanpamentuetan. Munduko liderrak dira adin guztietako pertsonak pisua galtzeko kanpamentuetan. Nahiko enplegu-eskaintza zabaldua dute.

<http://www.wellspringcamps.com/jobs.html>

- **LES ELFES INTERNACIONAL**

Kanpamentuen enpresa suitzarra, lan-eskaintza ugari dituen. Nazioarteko kanpamentuak antolatzen ditu urte osoan, hiru adin-talderi zuzendua, eta hiru programa dituen

<http://leselfes.com/>

3.7. NEKAZARITZAN ETA BASERRIETAN LAN EGITEKO

Honelako enpleguei esker landa-ingurunearekin kontaktuan egoteko eta aire zabalean jarduteko aukera izaten da. Lan gogorak izaten dira, askotan, baina norberarentzat oso aberasgarriak. Normalean **fruta eta barazkiak biltzen lan egiten da, edo baserrietan animaliak zaintzen edo bestelako nekazaritza-lanetan**. Lan fisikoa aire zabalean; aukera interesgarria eta lanbide-esperientzia paregabea.

- **CASUAL FRUIT PICKING JOBS**

Chandler and Dunn enpresa Erresuma Batuan dago eta fruta-bilketan eta nekazaritza-lanetan jarduten du. Bi baserri ditu eta frutak eta barazkiak biltzeaz gain, abereak zaindu, ardiei ilea moztu eta abelburuen okela manipulatzeko dute.

www.chandleranddunn.co.uk/ [EN]

- **PICKING JOBS**

Nekazaritza-sektoreko lanpostu ugari, urte-sasoikoak, baserri batean aritzeko edo uzta-bilketan jarduteko. Interesatzen bazaizu, zure gustuko lanpostuaren fitxa sartu eta enpresarekin zuzenean harremanetan jarri behar duzu; zure bizitzari buruzko hainbat xehetasun eman beharko dituzu eta zein datatan lan egin dezakezun zehaztu.

www.pickingjobs.com/ [EN]

- **SEASONAL WORK IN DENMARK AND NETHERLAND**

Urte-sasoiko lanpostuak eskaintzen dira webgune honetan, nekazaritzaren sektorean, Danimarkan eta Herbehereetan. EURES enplegu-sareak koordinatzen ditu webgune hauek.

<http://www.seasonalwork.nl/> [EN]

- **Experience internationale**

Nekazaritzaren arloko askotariko lanpostuak eskura ditzakezu atari honetan, nagusiki fruta-bilketan eta bestelako landa-lanetan. Sasoi bat Frantzia pasatu nahi duten atzerritarrei zuzenduta dago.

www.experience-internationale.fr/ [FR]

- **Apecita**

Nekazaritzan eta elikaduran espezializatutako frantses agentzia.

www.apecita.com/ [FR]

- **Anefa**

Nekazaritzaren arloko enpleguaren eta prestakuntzaren frantses elkarte nazionalaren webgunea.

http://www.anefa-emploi.org/ANEFA_FRONT/

- **Sasoiko lanaren behatoki nazionala**

Sasoiko Lanaren Frantziako Behatoki Nazionalak kanpainen egutegiei, kontaktuei eta Frantzia nekazaritzan enplegua eskatzen duten enpresariei eta sektoreei buruzko informazio osoa eskaintzen du.

<http://www.saisonnalite.org/calendar> [FR]

- **Sasoiko enplegua aurkitzeko webguneen zerrenda:**

[Agriris](#) [EN]

[Pro-Force](#)

[Vitijob](#)

[Farm Africa](#) [EN]

[Need a Farmer](#) [EN]

[Agroemprego](#) (Portugal) [PT]

[AgriHolland](#) (Holanda) [EN]

[Saisonnier](#) (Francia) [FR]

[Agrojob](#) (Francia) [FR]
[Greenjobs](#) (Alemania) [DE]
[Agrijob](#) (Alemania) [DE]
[Agrarjobbörse](#) (Alemania) [DE]
[Agrarzeitung](#) (Alemania) [DE]
[eeJobs](#) (Alemania) [DE]
[Lebensmitteljob](#) (Alemania) [DE]
[Lebensmittel Zeitung](#) (Alemania) [DE]
[Edwardvinson](#) (Reino Unido) [EN]
[Fruitfuljobs](#) (Reino Unido) [EN]
[DeLacy executive](#) (Reino Unido) [EN]
[Farming UK](#) (Reino Unido) [EN]
[Fruit Pickers](#) (Reino Unido) [EN]
[GS Recruitment](#) (Reino Unido) [EN]
[Haygrove](#) (Reino Unido) [EN]
[HOPS Labour Solutions](#) (Reino Unido) [EN]
[JEPCO](#) (Reino Unido) [EN]
[Kelsey Farms](#) (Reino Unido) [EN]
[4xtrahands](#) (Reino Unido) [EN]
[Farming jobs](#) (Reino Unido) [EN]
[Sommerfrisk.dk](#) (Países bajos) [EN]



4 EBN IKASTEA, OPOSIZIOAK

4.1. Prestakuntza EBN	71
4.2. EBN ikasteko 10 arrazoi	72
4.3. Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua	73
4.4. Lanbide Heziketa Europar LH duala	74
4.4.A. LH duala Alemanian. <i>The job of my life</i>	75
4.5. Kualifikazioen eta tituluen aintzatespena	76
4.5.A. Herririk herri	78
4.5.B. Naric sarea	80
4.6. ERASMUS+ Hezkuntza	82
4.7. Ploteus	84
4.8. Ikasturtea atzerrian igarotzea	85
4.9. Ikasteko eta ikertzeko baliabideak herririk herri	86
4.10. Zentrozen arteko trukeak eta lankidetzak	100
4.10.A. Prestakuntza eskolan	100
4.10.B. Lanbide heziketa	101
4.10.C. Unibertsitatean ikatea	101
4.11. Europar Batasunerako oposizioak	104
4.11.A. EBN lan egitea	104
4.11.B. Enplegu-motak	104
4.11.C. Enplegu-profilak	105
4.11.D. EBko instituzioak eta agentziak	106
4.11.E. Hautaketa-prozesua	106
4.11.F. Oposizioak egiteko baliabideak	106

Asko dira EBN ikasteko aukerak eta eskaintzak: ikasturte batean aritzea, truke-programetan parte hartzea, EBren ERASMUS + tankerako programetan jardutea, lanbide-heziketa dualean trebatzea, ikertzea, eta abar. Atal honetan horiei guztiei buruzko informazioa eman nahi dugu.

- Zure curriculumari begira oso garrantzitsua izan ahal da zure ikasketen zati bat atzerrian egitea.
- EBN lan egin nahi baduzu, edo ikasten jarraitu beste barik, zure kualifikazioak eta tituluak aintzatestea oso garrantzitsua izango da. Gai konplexua da eta, zalantzarik izanez gero, jo Naric sarera edo Hezkuntza Ministeriora.
- LH dualaren garrantzia goranzkoa da. Alemaniako gobernuak berak LHko adar hori diruz laguntzen du.
- I+G direlakoak eta edozein herrialdetan ikertzea interesgarria bazaizu, herririk herri antolatutako informazio-atala gaineratu diogu gida honi. Herrialde asko atzerriko ikasleei laguntzak ematen dizkiete.
- Europar Batasunerako lan egin nahi baduzu, amaieran informazio-atal laburra izango duzu. Nire gomendioa, dena den, Europako erakundeetan beka edo praktikak eskatzea da. Bertan lanean hasteko modua izan ahal da (Gidaren 5. atala).

4

EBN IKASTEA, OPOSIZIOAK

4.1. PRESTAKUNTZA EBN

Atzerrian udako ikastaro bat egitea da aukera hedatuenetako bat udako oporrak beste kultura bat ezagutzeko eta, aldi berean, hizkuntza bat ikasteko aprobetxatu nahi dituzten gazte edo/eta ikasleen artean.

Ildo horretan, gero eta herrialde gehiagoren erakunde publikoek programa edo beka jakin batzuk eskaintzen dituzte, nazionaleri atzerrian udako ikastaro bat egiteko edo udan prestakuntza hobetzeko aukera emateko.

Hala eta guztiz ere, litekeena da udako ikastaroarekin nahikoa ez izatea, eta egonaldi akademikoak luzatu nahi izatea, nola mugikortasun-ekimen baten baitan, hala programa batean sartzeko baimen arrunta eskatuz. Kasu horretan, guretzat aproposa den programa aurkitu beharko dugu, izapide korapilatsuago batzuei aurre egin beharko diegu, eta beste faktore batzuk kontuan hartu beharko ditugu.

Atal honetan, atzerrian ikasteko arrazoi garrantzitsuenak aztertuko ditugu, eta, horren haritik, Europar Batasunak eta estatu kideek eta autonomia-erkidegoek Europako Hezkuntza Esparrua sortzeko egindako ahaleginen laburpena ikusiko dugu. Gainera, atzerrian titulu bat nola homologa daitekeen ikusiko dugu, Europar Batasunak trukeak egiteko finantzatzen duen Erasmus+ egitasmoa aztertuko dugu, eta Ploteus atariaren eta EBN prestakuntza-aukera onenak bilatzeko beste baliabide batzuen berri emango dugu.



OHARRA: Jaso nahi duzun prestakuntzak, funtsean, hizkuntzak ikastearekin zerikusirik badu, irakurri arretaz gidaren 7. atala, hizkuntzei buruzkoa.

4.2. EBN IKASTEKO 10 ARRAZOI

- 1. Zure espezialitatea ikasten aurrera egiteko** eta zenbait irakaskuntza-metodo egiaztatzeko aukera izan dezakezulako.
- 2. Zure curriculum** hobetuz, **zure lan-aukerak zabal ditzakezulako**. Atzerrian bizitzearen esperientzia oso erakargarria izan daiteke enpresentzat.
- 3. Atzerriko ikasketak zure herrialdean edo lan egin nahi duzun herrialdean onartuko dizkizutelako**. EBren programek erraztasunak ematen dizkizute beste toki batzuetan ikasteko eta kredituak transferitzeko, denborarik eta lanik galdu gabe.
- 4. Hainbat helmugaren artean hautatzeko aukera duzulako**.
- 5. Hizkuntzak ikasteko edo hizkuntza-mailak hobetzeko aukera** duzulako. Atzerrian ikasteak edo prestatzeak zure hizkuntza-trebetasunean eragin esanguratsua izan dezakeelako, eta, hizkuntza horretan tutik ere ez badakizu ere, hizkuntza horren oinarriez jabetzeko aukera ezin hobea delako.
- 6. Beste kultura batzuk ezagutu ditzakezulako** eta beste herrialde batzuetako jendearekin harremanetan jarri eta lagun berriak egin ditzakezulako. Atzerriko kultura batean murgiltzeak bizitzaren ikuspegi berria eman diezazuke, zure moldagarritasunaren mesedetan.

7. Heltzen lagunduko dizun **aparteko esperientzia pertsonal** batez gozatzeko aukera duzulako.
8. **Zure prestakuntza pertsonalean eta zure gizarte-gaitasunetan aurrera egingo duzulako.** Atzerriko herrialde batean jardutea zure independentzia eta heldutasuna indartzeko lagungarri izan daiteke.
9. Horrela **malgutasuna eta ekimena** dituzula erakusten duzulako.
10. Atzerrian ikasiz **zure bizitzak hobera egingo duelako.**

4.3. GOI-MAILAKO HEZKUNTZARAKO EUROPAR ESPARRUA

Europako hezkuntza-sistemetako egiturek oso bestelako ikuspegiak dituzte lanbide-heziketari, goi-mailako irakaskuntzari eta etengabeko prestakuntzari, azterketei eta kualifikazioei dagokienez. Horregatik, **Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruak Europako goi-mailako elkargunea izan nahi du.** Horrek ez du esan nahi ikuspegi guztiak bateratu behar direnik, estatu kideek beren hezkuntza-sistema ezartzeko autonomiari eutsiko diotelako.

Boloniako prozesua 1999an hasi zen, Europako 29 herrialdetako (Espainia tartean) ministroek Boloniako Adierazpena sinatu zutenean 2010erako Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua ezartzeko xedearekin, Europako unibertsitate-sistemak elkarganatzeko eta alderatzeko, Europa osoan enplegarritasuna, mugikortasuna eta unibertsitate-tituluen aintzatespena erraztuz. Orain arte **Europako 46 herrialde ari gara ekimen horretan parte hartzen.**

Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruak honako helburu hauek ditu:

- Graduak, masterreko eta doktoregoko ikasketak alderatzeko moduko sistema bat.
- Ikasleen lanaren eta ikasketen neurri bat, neurtzeko eta transferitzeko erraza, europar kreditua deiturikoa, ECTS: European Credit Transfer System.
- Europako eta nazioarteko mugikortasuna.
- Unibertsitateko erakunde eta titulazioen kalitatearen bermea.
- Edozeinek, bere aukera ekonomikoak edozein izanik ere, unibertsitatean sartzeko aukera izatea.

Hezkuntza-sistemen elkarganatzeko testuinguru horren barnean, halaber, lortutako kualifikazioak berdindu nahi dira. Horregatik, Europar Batasunak **ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO PRESTAKUNTZEN EUROPAR ESPARRUA (EQF)** ezarri du. Erreferentziatzeko europar sistema komuna da, eta prestakuntzen esparru eta sistema

nazional desberdinak lotuko ditu elkarren artean. Praktikan itzulpen-mekanismo baten antzera jardungo du, prestakuntzak errazago interpretatzeko aukera emango duena. Hori laguntza handikoa izango da ikasteko prozesuan murgilduta dauden pertsonentzat eta beste herrialde batera lanera joan nahi duten langileentzat. Sistema horri esker, pertsonak, enpresek eta hezkuntza- eta prestakuntza-zentroek hainbat herrialdetako kualifikazio indibidualak eta hainbat prestakuntza-eta hezkuntza-sistema alderatzeko aukera izango dute. Etengabeko ikaskuntza sustatzeko tresna den heinean, EQF sistemak irakaskuntza orokorra eta helduen irakaskuntza hartzen ditu eraginpean, baita lanbide-heziketa, lanerako prestakuntza eta goi-mailako hezkuntza ere.

Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua

www.eees.es/

Espainiatik kanpo ikastea

Atzerriko unibertsitate batean ikasteari buruzko informazio guztia (nazioarteko agentzien nahiz Erasmus+ egitasmoaren bidez) eskaintzen du Hezkuntza Ministerioak, universidad.es atarian. Beste egitasmo batzuei instituzioetan praktikak egiteari buruzko informazioa ere eskaintzen du.

http://universidad.es/?tab=fuera_espa

4.4. LANBIDE HEZIKETA EUROPAN. LH DUALA

Lanbide Heziketako ikasketak dira lanbideekin eta lan-merkatuarekin lotuen daudenak. Gaur egun, oso aukera erakargarria gertatzen da, eskaintza zabala duelako, moduluka antolatuta dagoelako eta ikasketok egiteko erraztasun handiak eman ohi direlako (ikasketa batzuk Internet bidez ere egin daitezke) eta laneratze-maila altua duelako.

Lanbide Heziketak 150 heziketa-ziklo eskaintzen ditu Espainiako Estatuan. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartzen ditu, askotariko lanbide-arloei egokituak.

• Lanbide Heziketa EBn

2002tik aurrera, Kopenhageko prozesua abiarazi da, Boloniako prozesuaren antzekoa, Europar Batasunean Lanbide Heziketaren errendimendua, kalitatea eta erakargarritasuna hobetzera bideratutako europar estrategia.

Testuinguru honetan, bi estrategia ezarri dira: lehenengoa, hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren kalitate-bermerako europar erreferentzia-esparrua —**EQARF-EQAVET**—, eta bigarrena, kreditu-transferentziarako europar sistema ezartzea (European Credit System for Vocational Education and Training).

Zehazki, urteotan ezarriko den kreditu-sistemari esker, kredituak beste titulazio batzuetara transferitu ahal izango dira, bai eta Europar Batasun osoan aintzatetsi ere. Horrela, beste herrialde batzuetan lanbideak aintzatestea errazagoa izango da, eta prestakuntza beste herrialde batean jarraitu ahal izango da.

• Lanbide Heziketa duala

Lanbide Heziketa duala Lanbide Heziketaren eskaintzen modalitate berria da. **Ikas-ekinezko araubideak egiten da, ikastetxearen eta enpresaren artean:** enpresan eta ikastetxean ordu- edo egun-kopuru bat ematen da. Iraupena aldakorra da.

• Nola egin dezaket Prestakuntza Lantokietan Europan?

Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleek Prestakuntza Lantokietan modulua egin behar dute. Derrigorrezko lanbide-prestakuntzako modulua da, ziklo guztietan egiten dena, eta Europar Batasuneko edozein herrialdetan gara daitekeena, Erasmus+ europar egitasmoaren bidez.

Europan Prestakuntza Lantokietan modulua Europan egin ahal izateko, zure ikastetxea europar proiektu baten sustatzailea izan behar da. Hala bada, eskatu informazio gehiago bertan.

<http://www.todofp.es/todofp>

4.4.A. LH DUALA ALEMANIAN. THE JOB OF MY LIFE

The Job of my Life Lan Ministerioaren programa bat da. Helburu nagusia da **lanbide heziketa eta langabe dauden europar gazteen mugikortasuna sustatzea**, izan ere Alemanian gaur egun lanbide heziketan dihardutenak ez dira asko eta bada langile-premia ere. Bide horretan pizgarriak emango zaizkie alemaniar enpresariei eta EBko beste herrialde batzuetako langile eta ikastunei. **Babesa finantzen eta egituren alorrekoa** izango da.

“**The job of my life**” programan sartzeko bi dira moduak: **lanbide heziketa** ikastea edo **langile gaitu** gisa jardutea. Bi kasuotan hainbat baldintza bete behar dira eta hautaketa-prozesua gaintitzea.

Alemaniak beharginak ditu honako lanbide-familiatan:

- Ostalaritza eta Jatetxe-arloa.
- Medikuntza
- Osasun-arloa eta Geriatrian langile kualifikatuak
- Erizaintza
- Ingeniaritza
- Langile tekniko gaituak

Zertan laguntzen dizu programa honek?

- Alemaniako enpresa askok hartzen du parte programa honetan.
- Alemaniako gobernuarekin eta enpresekin egin beharreko kudeaketa egiten dute.
- Alemana ikasteko doako aukera izango duzu Espainian, hara joan baino lehen, gerora bertan ikasten jarraitzeko..

<http://www.thejobofmylife.de/> [DE][EN]

<http://alemaniatenecesita.es/alemania-te-necesita/>

4.5. KUALIFIKAZIOEN ETA TITULUEN AINTZATESPENA

Besteak beste, harrerako herrialdean zure prestakuntzak aintzatesteko zer egin behar duzun jakin behar duzu. Oso premisa erraz batetik abiatzen da: **zure jatorriko herrialdean lanbide jakin batean jarduteko prestatuta bazaude, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan jarduteko ere prestatuta zaude.**

Lanbide-kualifikazioak dituztenentzat, lanbidea arautua dagoen edo ez jakitea da funtsezkoena. Hortaz, honako **bi egoera** hauek gerta daitezke:

1. Zure lanbidea arautu gabe dago lan egin nahi duzun herrialdean.

Kasu horretan, **ez dizute zertan titulua onartu**, ezin izango delako eragozpen juridikorik alegatu zure prestakuntzari loturik bertan lan egitea galaraziko dizunik. Baina helmugako herrialdean lanbide horri dagozkion beharrezko prozedura guztiak errespetatu beharko dituzu, zuzentzat ohikoak direnen desberdinak izan daitezkeela aintzat hartuta.

2. Zure lanbidea arautua dago.

Kualifikazio jakin batzuk dauzkatenek bakarrik dagozkienak dira araututako lanbideak

(abokatuak, kontulariak, irakasleak, ingeniariak, osasun-laguntzaileak, medikuak, haginlariak, albaitariak, kirurgialariak, farmazialariak eta arkitektoak, esaterako). Kasu horretan **titulazioa automatikoki onartuko dizute normalean, eta, ondorioz, edozein estatu kideetan lan egiteko aukera izango duzu.**

Harrerako herrialdean araututako lanbide batean jardun nahi baduzu (irakaslea, ingeniaria, psikologoa, abokatuak eta abar), zure titulua baliozkotzeko eskaera egin behar diezu lan egin nahi duzun herrialdean eskumena duten agintariei. Agintari horiek lau hilabeteko epea izango dute erantzuteko, eta, iraupenari edo epeari dagokienez garrantzizko aldeak aurkitzen badituzte zure prestakuntzaren eta harrerako herrialdean eskatzen dutenaren artean, agian **lanbide-esperientzia eskatuko dizute zure prestakuntzaren osagarri, edo bestela egokitze-ikastaro bat edo gaitasun-proba bat egiteko eskatuko dizute.** Gogoan hartu betekizun osagarri horietako bat bakarrik eskatzeko aukera dutela. Normala denez, zure benetako kualifikazioen eta esperientzia profesional osoaren aintzatespena lagungarri izan daiteke beste estatu kide batean lortutako tituluak baliozkotzeko.

Tituluen kudeaketa (homologatzea, baliozkotzea, aintzatestea eta eskuratzea)

Gaur egun, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak du tituluak homologatzeko eskumena, eta, hortaz, horra jo beharko duzu horri buruzko zalantzak argitzeko.

<http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo-servicios/gestion-titulos.html>

Lanbide-kualifikazioen zuzentaraua: erabiltzailearen gida

Gidaren helburua honako hau da: lan-jarduera batean aritzeko, lanbide-kualifikazioak beste estatu kide batean aintzatesi nahi duten herritarrak babesteko eskubideak azaltzea, modu errazean eta galdera-erantzunen bitartez. Informazio osoa eskaintzen du lanbide-kualifikazioen aintzatespenari buruz.

http://ec.europa.eu/internal_market/qualifications/docs/directive-in-practice/useful-documents/users_guide_es.pdf

Atzerrian egiaztatu behar diren eta unibertsitatekoak ez diren Euskadiko agiri akademiko ofizialen legalizazioa

Unibertsitatekoak ez diren titulu eta agiri akademiko ofizialak atzerriko legalizatzeke izapideei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzako webgunean aurki dezakezu. Ohiko galderei eta araudiari buruzko atalak daude, bai eta sinadurak aintzatesteko eta

agiriak legalizatzeko jarraibideak ere.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dif9/eu_5494/acreditacion_extranjero_e.html

4.5.A. Aintzatespena herrialdez herrialde

Atzerriko tituluak aintzatesteko hainbat herrialdetako politika eta prozedurei buruzko informazioa:

- **ALEMANIA**

Atzerriko Tituluak Aintzatesteko Informazio Sistema.

<http://anabin.kmk.org/>

Atzerriko Hezkuntzaren Bulego Zentrala.

<http://www.kmk.org/zab>

- **AUSTRIA**

<http://wissenschaft.bmwf.gv.at/home/studies/enic-naric-austria/general-recommendations-concerning-recognition/>

- **BELGIKA**

Flandiar komunitatea:

<http://www.ond.vlaanderen.be/naric/nl/procedures/index.htm>

Frantziar komunitatea:

<http://www.equivalences.cfwb.be/>

Germaniar komunitatea:

http://www.bildungserver.be/desktopdefault.aspx/tabid-2289//4467_read-32048/

- **BULGARIA**

<http://mail.nacid.bg/newdesign/kap/index.php?id=2>

- **ZIPRE**

<http://www.kysats.ac.cy/index.php/el/?page=faq&lang=en>

- **KROAZIA**

<https://www.azvo.hr/hr/>

- **ESLOVAKIA**

<http://www.minedu.sk/recognition-of-foreign-diplomas/>

- ESTONIA

<http://www2.archimedes.ee/enic/index.php>

- FINLANDIA

<http://www.oph.fi/english/services/recognition>

- FRANTZIA

<http://www.ciep.fr/es/enic-naric-france>

<http://www.ciep.fr/enic-naric-france/grille-danalyse>

- GREZIA

<http://www.doatap.gr/en/index.php>

- HUNGARIA

http://www.oktatas.hu/kepesitesek_elismertetese/english/recognition_of_foreign_qualifications

- IRLANDA

<http://www.qqi.ie/Pages/Recognition-of-Foreign-Qualifications-.aspx>

- ITALIA

Atzerriko titulu, prozedura eta agintaritza eskudunak.

http://www.miur.it/0002Univer/0052Cooper/0069Titoli/0359II_ric/index_cf2.htm

Kualifikazioak Italian aintzatesteari buruzko informazioa.

<http://www.cimea.it/default.aspx?IDC=31>

- LETONIA

<http://www.aic.lv/portal/en/arvalstu-diplomu-atzisana>

- LITUANIA

<http://www.skvc.lt/default/en/>

- LUXEMBURGO

Lanbide Heziketako atzerriko tituluaren aintzatespena eta baliokidetzak.

<http://www.men.public.lu/fr/professionnel/validation-acquis-experience/index.html>

Goi-mailako atzerriko tituluak homologatzeko zerbitzua.

http://www.mesr.public.lu/enssup/dossiers/homologation_diplomes/index.html

- MALTA

Maltan kualifikazioak onartzeko prozedura.

<http://www.ncfhe.org.mt/content/home-malta-qualifications-recognition-information-centre/52002817/>

- HERBEHEREAK

<https://www.nuffic.nl/en/diploma-recognition/evaluation-of-foreign-diplomas/evaluation-of-foreign-diplomas>

- POLONIA

Polonian araututako titulu akademikoak eta profesionalak aintzatesteko informazioa.

<http://www.nauka.gov.pl/en/recognition-of-foreign-qualifications/>

<http://www.nauka.gov.pl/en/recognition-of-professional-qualifications-directive-2005-36-ec/>

- PORTUGAL

<http://www.dge.mec.pt/concessao-de-equivalencias>

- ERRESUMA BATUA

<http://www.ecctis.co.uk/naric/Individuals/Code%20of%20Practice/default.aspx>

4.5.B. Naric sarea

Naric, EBko beste herrialde batean lan egiteko edo ikasteko tituluaren homologazioa eta aintzatespena.

Naric sarea informazioa eskaintzen dizu Europar Batasuneko edozein herrialdean ikasteko unibertsitate-titulua homologatu nahi baduzu. Oinarriko informazioa jasotzeko gunea ere bada, Europar Batasuneko beste estatu kide batean lan egiteko lanbide-onarpen bat lortu nahi duten pertsonentzat. Naricen abantaila da sarea lan egiten duela, eta, horrela, **erabiltzaileari eskainitako informazioa, zuzenean, interesatzen zaion herrialdeetik datorrela.**

Naric: Unibertsitateko tituluaren homologazioa

Naric sarea balio handikoa izan daiteke zuretzat, zure unibertsitate-titulua nola homologa daitekeen jakin dezazun, Europar Batasuneko beste herrialde batean aintzatsia izan dadin. Europar Batasuneko herrialde kide bakoitzak bere

homologazio-sistema dauka, eta horregatik, prozesua ezagutzeko eta zer dokumentu eskatzen dizkizuten jakiteko, **hobe duzu Naric korrespontsalarekin harremanetan jartzea titulua homologatu nahi zenukeen herrialdean, korrespontsal horiek orientatu behar zaituztelako homologazio- eta izapidetze-prozesu osoaren inguruan.** Korrespontsal horrekin harremanetan jartzeko zalantzak edo zailtasunak badituzu, jo ezazu Naric sareak Espainian duen korrespontsalarengana, bitartekari jardun dezan.

Naric: lanbide-aintzatespena

Europar Batasuneko beste herrialde batera lanera joan nahi baduzu eta zure titulua lanbide-xedeetarako bakarrik onartzea nahi baduzu (eta ez xede akademikoetarako), onena duzu zure tituluaren lanbide-aintzatespena eskatzea. Estatu kide bakoitzak bere lanbide-aintzatespenen sistema dauka, eta horregatik, berriz, ere, onena duzu **Naric korrespontsalarekin harremanetan jartzea titulua onartzea gustatuko litzazukeen herrialdean.** Zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan Naric sareak Espainian duen korrespontsalarekin (behean dauzkazu haren datuak), bitartekotzalanaren ardura har dezan. Gainera, horrelako aintzatespenengatik ez da inolako tasarik ordaindu behar.

Naric sarea:

www.enic-naric.net/index.aspx

Naric Espainia:

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Tituluen, Aintzatespenen eta Kualifikazioen Zuzendariordetza Nagusia

Paseo del Prado, 28 - 28014 Madril.

Tel.: 00 34 91 506 55 93 Faxa: 00 34 91 506 57 06

mailto:naric@mecd.es

Web: <http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo-servicios/gestion-titulos/gestion-titulos-comun/naric.html>

Kontakturako pertsonak: Isabel Tolosana / Rosa Molina

4.6. ERASMUS+ HEZKUNTZA

2014an Erasmus+ egitasmoaren indarraldia hasi zen. Europar egitasmo honek ikasketen, prestakuntzaren, lan-esperientziaren eta boluntario-lanaren arloetako aukera berriak eskainiko dizkie 4 milioi pertsonari baino gehiagori, 2014 eta 2020 urteen artean.

Egitasmo integrala da “Erasmus+”, ez unibertsitateari buruzko bakarrik. Hezkuntza-aro guztiak hartzen ditu barne, eskola-hezkuntzatik hasi eta helduen etengabeko prestakuntzaraino.

Unibertsitatez kanpoko eskola-hezkuntzari dagokionez, mugikortasuna hezkuntza-komunitate osoari zuzenduko zaio: bai irakasleei, bai zuzendari-taldeei, bai ikasleei. Ikastetxearen proiektuak eta autonomia indartuko dira.

Lanbide Heziketari dagokionez, **elkarlan transnazionalak ikasleen enplegu-aukerak hobetzen lagunduko du, bai eta enpresa-gaitasunak garatzen ere**. Funtsezkoa da hezkuntza- eta prestakuntza-emaileen eta lan-munduaren arteko aliantzak sustatzea eta lan-merkatuaren premiei egokitutako ikasketa-plan berriak sortzen laguntzea.

14700 milioi euroko aurrekontu oso adu “Erasmus +” egitasmoak, 7 urterako (2014-2020). **Europar Batasunaren egungo prestakuntza-programa guztiak hartzen ditu barne: Etengabeko Ikaskuntza Programa eta bere programa sektorialak (Erasmus, Leonardo da Vinci, Comenius, Grundtvig); Gazteak Ekinean egitasmoa eta nazioarteko lankidetzarako bost programak (Erasmus Mundus, Tempus, Alfa, Edulink eta herrialde industrializatuekiko lankidetz-programa). Berritasun gisa, Kirolaren arloko jarduketak ere baditu.**

Era berean, beste herrialde batzuetako profesionalekin sareak sustatze eta garatze aldera, milaka instituziori eta erakunderi laguntza emango die “Erasmus +” egitasmoak. Hartara, irakaskuntzaren eta gazteen dinamizazioaren berrikuntza eta modernizazioa hobetuko da, ekintzailatza sustatu eta, horrela, enplegu-aukerak hobetzeko.

Goi-mailako hezkuntzarako mugikortasun-beken banaketa-irizpideak.

Espainiak bekaren batez besteko zenbatekoa ezartzeko egin duen kalkulua 250 euroen inguruan dago. Batez bestekoa da hori, beraz, harrerako herrialdearen arabera, laguntza 200 eurokoa izango da hilean, 250ekoa edo 300ekoa. Zenbatekoaren kalkulua egiteko jatorriko eta harrerako herrialdearen bizitza-mailak hartzen dira kontuan.

Egitasmo berriaren kudeaketan egon den berrikuntzetako bat Europako funtsetatik emandako laguntzei gutxieneko zenbatekoa ezartzea izan da. Horrela, funts horien bidez izapidetutako laguntzen kopurua jaitsi egiten da. Orain arte, kantitate bera eman izan da (aurrekontu eskuragarri osoa eskatzaile guztien artean banatzen zen). Orain, kalitateari ematen zaio lehentasuna (zenbatekoa handiagoa izateko ahalegina egiten da, laguntzak hobekiago izan daitezen eta erabakigarriagoak ikasleen mantenturako, mugikortasun-aldiak dirauen artean).

Horri guztiok **100 euro erantsi behar zaizkio, premia bereziak edo familia-errenta apalak dituzten ikasleen kasuan.**

Mugikortasun-aldien iraupena

Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua erabat ezarrita dago dagoeneko Europar Batasuneko herrialde guztietan. Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparruko ikasketa-planen egitura seihileko akademikoetan oinarrituta dago. Hori dela-eta, Europar Batasuneko herrialde guztiak euren mugikortasun-proiektuak seihileko bat irautera bideratzen ari dira. Horren ondorioz, **Europako herrialde gehienetan egiten ari direnari jarraiki, ohiko mugikortasun-ekimenak egokitu joango dira, sei hileko iraupena izan dezaten. Praktikaldietarako mugikortasun-ekimenak ere Europako batez bestekora moldatuko dira, 3 hil iraun arte.**

Bai ministerioaren bai autonomia-erkidegoen, unibertsitateen eta beste instituzio batzuen kofinantziazioa bi modutara uler daitezke: Europako funtsetako laguntzen osagarri gisa edo laguntza berri gisa.

Egitasmoari buruzko informazio guztia:

http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/index_es.htm

Erasmus

Erasmus esperientziei buruz gehiago jakin nahi baduzu, kontsultatu Erasmus ikasleen nazioarteko elkartearen web-orria.

www.esn.org/ [EN]



OHARRA: Eusko Jaurlaritzak ere Erasmus ikasleentzako beka eskaintzen ditu, baita nazioarteko unibertsitate-mugikortasuneko eta goi-mailako arte-irakaskuntzetako beste programa batzuetarako beka ere. Informazio gehiago gidaren 5. atalean, bekei eta praktikei buruzkoan.

4.7. PLOTEUS

PLOTEUS (Portal on Learning Opportunities throughout the European Space)

Europako esparru osoko ikaskuntza-aukerari buruzko web-ataria da.

PLOTEUS atariaren **helburu nagusia** honako hau da: ikasleei, enplegu bila dabiltzanei, langileei, gurasoei, orientazioaren alorreko profesionalei eta irakasleei Europan **ikasteko moduari buruzko informazioa aurkitzen laguntzea**. Eskuragarri dauden hezkuntza-baliabideei buruzko informazioa eskaintzen du atariak, honako eremu hauei dagozkien datu-baseen bitartez:

Ikasteko aukerak:

Europar Batasunean ikasteko eta prestatzeko eskuragarri dauden aukerak. Goi-mailako irakaskuntzako erakunde eta unibertsitateetako web-orriekiko lotura ugari bildu dira atal honetan, baita ikastetxe eta lanbide-heziketako zentroi edota helduentzako hezkuntza-ikastaroei buruzko datu-baseak ere.

PLOTEUS

<http://ec.europa.eu/ploteus/es>

Europako prestakuntza-eskaintzen beste bilatzaile batzuk

Europar ikerketaren alorrean lan egiteko eskaintzak, eta ikertzaile bati eta bere familiari handik hona ibiltzeak eragiten dieten administrazio-izapidetzeen inguruko informazioa:

<http://www.euraxess.es/>

Europako prestakuntza-eskaintzaren bilatzaileak, graduei, masterrei, doktoretza-ikasketari edo ikastaro laburrei buruzko informazioa eskaintzen dutenak:

BachelorsPortal: <http://www.bachelorsportal.eu/> [EN]

MastersPortal: <http://www.mastersportal.eu/> [EN]

PhDPortal: <http://www.phdportal.eu/> [EN]

ShortCoursesPortal: <http://www.shortcoursesportal.eu/> [EN]

PromoDoc: <http://www.promodoc.eu/> [EN]

Estudios de Doctorado. xStudy.eu: <http://xstudy.eu/> [EN]

Eurobrussels.com <http://www.eurobrussels.com/education.php> [EN]

4.8. IKASTURTEA ATZERRIAN IGAROTZEA

Hizkuntza bat ikasteko modurik eraginkorrena hiruhileko bat edo ikasturte bat beste herrialde batean ematea da. 13 eta 19 urte bitarteko ikasleentzat gehien gomendatzen den programa da, hizkuntza-mailan egiten duten jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa ez ezik, atzerrian ikastea **esperientzia pertsonal** garrantzitsua delako garapen pertsonala, independentzia eta heldutasuna areagotzeko.

Ahantzi ezineko esperientzia da, hezkuntzaren eta kulturaren arloetan ikasten dutenagatik: **bizimodu berriak ikasten dituzte, beste herrialde batzuetako kulturak barneratzen dituzte eta heldutasunez eta independentziaz moldatzen ikasten dute.** Eta hori guztiori egunerokotasunaz gozatzeak aukera ematen duen eta bititza osorako oroitzapenak ematen dituen familia-giroan.

Programaren onurak ikasturte akademikotik harago doaz: beste hizkuntza batean % 100ean murgiltzeak inongo akademiatan eskuratu ezineko mintzaerraztasuna emango dio parte-hartzaileari. Eta hizkuntza-maila hori erabakigarria izango da geroko ikasketetan, karreran eta lan-munduan.

Atzerrian ikasturteak edo hiruhilekoak emateko programak eskaintzen dituzten agentziak

<http://www.holausa.es/>

<http://juvycult.com/>

<http://www.cls-idiomas.com/>

<http://www.ihs-idiomas.com/>

<http://www.tecs.es/tecs/>

<http://www.interlink-idiomas.com/>

<http://www.itea-idiomas.com/>

<http://www.sfc-idiomayvacaciones.com/>

<http://www.cie.es/>

<http://www.cciomas.es/>

<http://she.es/cursos/>

<http://www.cciomas.es/>

<http://www.getready.es/>

<https://www.kingsinternational.es/>

<http://www.astex.es/>

4.9. IKASTEKO ETA IKERTZEKO BALIABIDEAK HERRIALDEZ HERRIALDE

ALEMANIA

- Estatuko erakundeek eskainitako ikastaroak, unibertsitatera sartzeko behar den diploma ez daukaten atzerriko ikasleentzat propio egokituta: alemanezko prestatze-ikastaroak eta ikastaro tematikoak.

<http://www.studienkollegs.de/>

- DAADren web-ataria, ikasle eta ikertzaileen nazioarteko trukeetan laguntzeko zerbitzu alemaniarra. Unibertsitateak, espezialitateak eta gradu-ondokoak aukeratzeko balio du. Eskainitako informazioa: unibertsitate-ikasketak, onarpenak, beka eta finantziak.

<https://www.study-in.de/en/index.php>

- Atzerriko ikasle eta ikertzaileentzako informazioa.

<https://www.daad.de/deutschland>

- Alemanian ikastea. Nazioarteko ikasleentzako denetariko informazioa.

<http://www.dw.de/actualidad/estudiar-en-alemania/s-8011>

- Doktoretza-ikastaroen gaineko informazioa: motak eta prestatzeko iradokizunak.

<https://www.daad.de/deutschland/promotion/doktoranden/de/>

- Nazioarteko ikasleentzako Alemanian eskainitako doktoretzen datu-basea. Eskatzeko argibideak.

<https://www.daad.de/deutschland/promotion/phd/en/>

- Ikerketan diharduten Alemaniako erakundeen direktorio geolokalizatua, gaika eta beste zenbait irizpideren arabera antolatuta.

http://www.research-explorer.de/research_explorer.en.html

- Atzerriko ikertzaileentzako informazioa, alemaniar erakundeei buruzkoa.

<https://www.daad.de/deutschland/promotion/forschen/en/>

- Ikerketa eta berrikuntza Alemanian.

<http://www.germaninnovation.org/>

- Erasmus Ikasle Sarearen Alemaniako sekzioak.

<http://esn.org/sections?country=DE>

- Madrilgo Goethe Institutuaren web-orria. Alemaniar hizkuntzaren ziurtagiriak.
<http://www.goethe.de/ins/es/es/mad/lrn/prf.html>

AUSTRIA

- Austriako hezkuntza-sistemaren informazio luze-zabala.

<https://webgate.ec.europa.eu/fpfis/mwikis/eurydice/index.php/Austria:Overview>

- Atzerriko ikasleentzako laguntza-zerbitzua. Informazio erabilgarria.

<https://www.oead.at/index.php?id=3017&L=1>

- Austrian ikasteko behar den informazio guztia: unibertsitateak, eskolak, maila akademikoak, eta abar.

<http://www.oeh.ac.at/#/studieren-leben/studieren/studieren-in-oesterreich/>

- Austrian onartutako hezkuntza-erakundeen zerrenda.

<http://wissenschaft.bmwf.gv.at/home/studies/studying-in-austria/austrian-universities-universities-of-applied-sciences-private-universities-overview/>

- I + G Austrian. Informazioa.

<http://www.rat-fte.at/>

- Erasmus Ikasle Sarearen Austriako sekzioak.

<http://esn.org/sections?country=AT>

- Austriako Truke Akademikorako Zerbitzua (ÖAD). Beka- eta laguntza-bilatzailea, titulazioa duten ikasle, ikertzaile eta irakasleentzako.

<http://www.grants.at/>

- Online aplikazioa Austrian ikasteko eta ikertzeko beka eskatzeko. Jatorrizko herrialdearen, beka-motaren eta helburuaren arabera bilatzailea.

<https://www.scholarships.at/default.aspx>

BELGIKA

- Gobernu federalaren informazioa Belgikako hezkuntzaren gainean.

http://www.belgium.be/en/education/coming_to_study_in_belgium/

- Hezkuntzaren alorreko informazio osotua, Belgikako hiru komunitateei lotua.

<http://www.diplomatie.be/madrid/media/madrid/PublicAffairsEducation2.pdf>

- Frantses komunitatea. Unibertsitateen zerrenda eta eskainitako ikasketak. Sartzeko informazioa.

http://www.ciu.be/cms/images/stories/ciu/Universites/univ2010_mult.pdf

- Belgikako frantses eskualdean ikasi nahi duten nazioarteko ikasleentzako informazio garrantzitsua.

<http://www.studyinbelgium.be/en>

- Flandiar komunitatea. Unibertsitateen zerrenda, goi mailako eskolak eta eskainitako ikastaroak. Sartzeko informazioa.

<http://www.ond.vlaanderen.be/>

- Ikertzaileentzat eta akademikoentzako informazio eta laguntza

<http://sectie.ewi-vlaanderen.be/en/euraxess/home>

<http://www.euraxess-cfw.be/>

- Ikerketaren gaineko informazioa Belgikan

http://www.belspo.be/belspo/research/index_en.stm

BULGARIA

- Hezkuntza-sistemaren, programen eta gobernuaren proiektuen gaineko informazioa.

<http://www.minedu.government.bg/>

- Bulgariako hezkuntza-erakundeei buruzko direktorioa.

<http://www.mfa.bg/en/pages/110/index.html>

- Unibertsitate eta unibertsitate-zentro garrantzitsuen zerrenda.

<http://www.neaa.government.bg/index.php/en/accredited-higher-education-institutions/higher-institutions>

- Hizkuntza-ikastaro eta -ziurtagiriei buruzko informazioa. Bulgariarari zein Sofiako Unibertsitatean irakasten diren atzerriko hizkuntzei buruzkoa.

<http://www.deo.uni-sofia.bg/en/news>

- Zientzia-ikerketak Bulgarian.

<http://www.bas.bg/>

- Zientzia eta teknologia Bulgarian.

http://www.icsti.su/portal/?lang=_e

ZIPRE

- Goi-mailako hezkuntzaren gaineko informazio ofiziala Zipren. Gainera, Zipreko unibertsitateen zerrenda, eta haietara jotzeko loturak.

<http://www.highereducation.ac.cy/en/>

- Zipreko hainbat erakundetan jarduteko ikerketa-bekak eta -laguntzak eskatzeko lotura interesgarriak.

<http://ec.europa.eu/euraxess/index.cfm/jobs/fgNationalLevel/careerStage/0/country/1411/researchField/0/page/1>

KROAZIA

- Kroaziako gobernuaren informazioa goi-mailako hezkuntzaren gainekoa.

<http://public.mzos.hr/Default.aspx?sec=2510>

- Bekak, programak, mugikortasuna, ikasketak, eta abar: hainbat informazio.

http://www.mobilnost.hr/index_en.php

- Atzerriko ikasleentzako informazioa: unibertsitate-programak, ikastaroak, bekak, kultura, eta abar.

<http://www.studyincroatia.hr/>

- Kroaziako unibertsitate eta goi-mailako erakundeei buruzko informazioa.

<http://www.studyincroatia.hr/studying-in-croatia/institutions-and-programmes/institution>

- Kroaziako goi-mailako erakunde garrantzitsuen prestakuntza-eskaintza. Hainbat irizpideren arabera bilaketa egin ahal duzu.

<http://mozvag.srce.hr/preglednik/pregled/en/pocetna/index.html>

- Kroaziako Hezkuntza Ministerioaren bekak, atzerriko ikasle, irakasle eta ikertzaileei zuzendutakoak.

<http://public.mzos.hr/Default.aspx?art=10791&sec=2428>

http://www.mobilnost.hr/index_en.php?id=26

DINAMARKA

- Danimarkako hezkuntza eta ikerkuntzaren gaineko informaziora eta web-orrietara jotzeko ataria.

<http://ufm.dk/en/>

- Goi-mailako ikasketak Danimarkan. Informazio ondo osotua: unibertsitate-programak, erakundeak, beka eta laguntzak, onartua izateko prozedurak, bizitzeko modua.

<http://studyindenmark.dk/>

- Danimarkako goi-mailako hezkuntza-erakunde garrantzitsuenak. Haien eskaintzara sartzeko modua.

<http://studyindenmark.dk/study-options/danish-higher-education-institutions>

- Study Danimarkan

<http://studyindenmark.dk/study-options/find-your-international-study-programme> .

- Maila guztietarako beka- eta laguntza-bilatzailea.

<http://www.scholarships-links.com/country/Scholarships-in-Denmark.html>

- Atzerriko ikertzaileentzako beka eta laguntzak Danimarkan.

<http://euraxess.dk/>

ESLOVAKIA

- Gobernuaren informazioa hezkuntza-sistemaren gainean, edozein mailatan eta ikerketa-alorretan.

<http://www.minedu.sk/about-the-ministry/>

- I + G Eslovakian

<http://www.apvv.sk/agentura?lang=en>

ESLOVENIA

- Eslovenian Ljubljanako Unibertsitatean ikasten ari direnentzako informazio-gida. Ikaslearen bizitzari loturiko informazio interesgarriak.

http://www.uni-lj.si/students_life/student_accomodation/

- Esloveniako hezkuntzaren eta hezkuntza-erakundeen gaineko oinarrizko informazioetara jotzeko lotura-direktorioa.

<http://enic-naric.net/index.aspx?c=Slovenia>

- Europako unibertsitateetara jotzen duten ikasleentzako laguntza-gida (hezkuntza-sistemen deskribapena, unibertsitateak, ostatua ...).

<http://internacional.universia.net/europa/indice.htm>

- I + G Eslovenian.

<http://www.rtd.si/eng/Default.asp>

- Esloveniako ikerketa-agentsia. Gazte ikertzaileentzako sekzioa dakar..

<http://www.arrs.gov.si/en/novo.asp>

- Esloveniako hainbat erakundek sustatutako beka eta laguntzei buruzko informazioa ematen duten lotura interesgarriak.

<http://ec.europa.eu/euraxess/index.cfm/jobs/fgNationalLevel/careerStage/0/country/1375/researchField/0/page/1>

ESTONIA

- Unibertsitate-ikasketak Estonian.

<https://www.hm.ee/et?149587>

- Atzerriko ikasleak onartzen dituzten Estoniako unibertsitateak.

http://www.estemb.es/estudiar_en_estonia

- Bekak, tituluak aintzatestea, hezkuntza-sistema, goi-mailako erakundeen zerrenda.

<http://archimedes.ee/en/foundation/>

- Hizkuntza-azterketa ofizialei buruzko informazioa eta beste ziurtagiri ofizial batzuei buruzkoa.

<http://www.ekk.edu.ee/124538>

- Karrera akademikoa eta ikerketa.

<https://www.hm.ee/et?148558>

- I + G Estonian.

<http://www.etis.ee/index.aspx?lang=en>

- Estophilus beka: doktoretza-titulazioei begira eta doktoretza- edo master-ikasleentzat. Estoniari buruzko lanak diruz laguntzeko.

<http://ekkm.estinst.ee/sisu/estophilus/>

FINLANDIA

- Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioa.

<http://www.minedu.fi/OPM/>

- Atzerriko ikasleentzako goi-mailako hezkuntza Finlandian.

<http://www.studyinfinland.fi/>

- Unibertsitate eta goi-mailako eskola politeknikoen zerrenda, Finlandian onartutakoak. Haien web-orriekiko lotura.

<http://www.minedu.fi/OPM/Koulutus/yliopistokoulutus/yliopistot/?lang=en>
<http://www.minedu.fi/OPM/Koulutus/ammattikorkeakoulutus/ammattikorkeakoulut/?lang=en>

- Ikertzaileentzako informazioa

<http://www.minedu.fi/OPM/Tiede/?lang=en>

- Finlandiako gobernuaren beka atzerritarrentzat, bertako unibertsitate publikoetan doktoretza-ikasketak egiteko.

http://www.studyinfinland.fi/tuition_and_scholarships/cimo_scholarships/finnish_government_scholarship_pool

- Atzerriko ikasleentzako beka-bilatzailea Finlandian ikasteko.

http://www.studyinfinland.fi/tuition_and_scholarships

FRANTZIA

- Ikasleentzako informazioa: eskola-sistema, onarpen-prozesurak, beka, ikasleen bizimodua, eta abar. Goi-mailako hezkuntzari buruzko informazio zabala

<http://www.france.fr/es/tags-es/estudiar-en-francia.html>

- Unibertsitateak eta goi-mailako hezkuntza-erakundeak, onarpenak, beka, ikasleen bizimodua.

<http://www.enseignementsup-recherche.gouv.fr/pid24573/enseignement-superieur.html>

- Unibertsitate-ikasketak, izena emateko izapidetzea, beka, ostatua, tituluen homologazioa, Espainiako eta Frantziako unibertsitateen tituluen erkaketa.

<http://www.espagne.campusfrance.org/es>

- Ikerkeka Frantzian: informazio luze-zabala.

<http://www.enseignementsup-recherche.gouv.fr/pid24888/recherche.html>

- CampusBourse. Frantzian ikasketak diruz laguntzeko beken programei buruzko urtekaria.

<http://www.campusfrance.org/es/node/6233>

- Atzerriko ikasleentzako beka eta diru-laguntzak.

<http://www.cnous.fr/bourses/#>

- Eiffel bikaintasun-beka. Atzerriko ikasleentzako masterrak, ingeniaritza edo doktoretza.

<http://www.campusfrance.org/es/eiffel>

- Frantziar hizkuntza egiaztatzekeo probei buruzko informazioa.

<http://www.institutfrancais.es/madrid/convocatorias-delf-dalf-2012/convocatorias>

- DELF diplomak.

<http://www.ciep.fr/es/delf-dalf#0>

GREZIA

- Atzerriko ikasleentzako informazioa: ikasketak Grezian, goi-mailako hezkuntzako ikastetxeak, beka, eta abar.

<http://www.studyingreece.gr/Bachelors/Default.aspx>

- Ikasketak, hezkuntza-sistema, beka eta abar.

<http://www.minedu.gov.gr/english-main.html>

- Grezian onartutako goi-mailako hezkuntza-erakundeak.

<http://www.doatap.gr/en/rechei.php>

- Ikertzaile eta akademikoentzako informazio eta laguntza.

<http://mobility.certh.gr/pls/rmp/mobility.main>

- Grezian jarduteko atzerriko ikertzaileentzako beka eta laguntzak.

http://library.certh.gr/pls/rmp/mobility.fellowships_grants

- Onassis beka, atzerriko ikasle eta ikertzaileentzat.

<http://www.onassis.gr/en/scholarships-foreigners.php>

HUNGARIA

- Goi-mailako hezkuntza Hungarian.

<http://www.nefmi.gov.hu/english/higher-education>

- Hezkuntza Hungarian.

<http://www.oktatas.hu/>

- Estatuak onartutako goi-mailako hezkuntza-erakunde guztietara jotzeko lotura-zerrenda.

http://www.oktatas.hu/felsooktatas/felsooktatasi_intezmenyek/allamilag_elismert_felsookt_int

- I + G Hungarianian.

<http://nkfih.gov.hu/english>

- Ikasle atzerritarrentzako Hungariako gobernuaren beka.

<http://www.scholarship.hu/Englishsite/Generalinformation/tabid/185/language/en-US/Default.aspx>

- Ikertzaileentzako Alain Bensoussan beka-programa.

<https://fellowship.ercim.eu/>

IRLANDA

- Irlandako hezkuntzari buruzko informazio ofiziala.

<http://www.education.ie/en/>

- Ingeles ikastaro eta azterketa ofizialei buruzko informazio-zentro ofiziala.

<http://mei.ie/>

- Unibertsitatera sartzeko eskaerak egiteko bulego zentrala.

<http://www.cao.ie/index.php>

- Irlandako Ikerketa Kontseilu Nazionaleko web-ataria.

<http://www.research.ie/>

ITALIA

- Italiara bertaratzen diren ikasleei eragiten dieten gaien buruzko informazio zabala. Ikasketak-mailak, hezkuntza-eskaintzaren bilatzailea, beka, bisak, bizitzeko modua, kultura, eta abar.

<http://www.estudiar-en-italia.it/>

- Italiako goi-mailako hezkuntza-sistema.

<http://www.cimea.it/default.aspx?IDC=135>

- Italiako goi-mailako hezkuntza-erakundeak. Tipologia eta zerrendak.

<http://www.estudiar-en-italia.it/php5/study-italy.php?idorizz=2>

- Italiako ikerketa erakunde nabarmenena.

<http://www.cnr.it/sitocnr/home.html>

- Italiako ikerketaren web-ataria.

<https://www.researchitaly.it/en/understanding/>

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Ministerioaren ikerketa-sekzioa.

<http://hubmiur.pubblica.istruzione.it/web/ricerca/home>

- Unibertsitate italiarrek ematen dituzten lehenengo, bigarren eta hirugarren zikloko ikasketen bilatzailea.

http://off.cineca.it/pubblico.php/ricerca/show_form/p/studiare

- CercaUniversità. Prestakuntza-eskaintzaren bilatzailea. Irakasleekin bat egiteko modua eskaintzen du eta bai unibertsitate-sistemari buruzko estatistikak ematen dituen behatokia ere.

<http://cercauniversita.cineca.it/>

LETONIA

- Letonian hezkuntza garatzeko estatu-agentzia. Europar Batasunaren programen exekuzioa eta jarraipena.

<http://www.viaa.gov.lv/eng/>

- Estatuak onartutako goi-mailako hezkuntza-erakundeen datu-basea, eta haien web-orrietara jotzeko loturak. Hainbat irizpideren arabera bilaketa.

<http://www.aiknc.lv/en/>

- Letonian diren atzerriko ikasleentzako goi-mailako hezkuntza-programen bilatzailea.

http://www.studyinlatvia.lv/niid_search?level_1=&qy=&x=38&y=18

- Bekak: Ikasleentzat, ikertzaileentzat eta udako ikastaroetara doazenentzat.

http://www.viaa.gov.lv/eng/international_cooperation/scholarships_gov/latvian_scholarships/

- Atzerritarrentzako bekak: ikasleak, ikertzaileak eta Letoniako hezkuntza-erakundeek antolatutako udako ikastaroetara bertaratuko direnak.

<http://www.studyinlatvia.lv/node/17>

LITUANIA

- Lituniako hezkuntza-sistemari buruzko informazio orokorra.

<http://www.smm.lt/web/en/>

- Lituanian egin daitezkeen goi-mailako ikasketen zerrenda, ematen dituzten ikastetxeena eta ikastetxe horiekiko loturak.

<http://www.aikos.smm.lt/Puslapiai/Pradinis.aspx>

LUXEMBURGO

<http://www.mesr.public.lu/>

<http://www.men.public.lu/fr/index.html>

- Luxenburgoko Unibertsitateak atzerriko ikasleentzat prestatutako informazioa, fakultateetan sartzeko bidea eta prestakuntza-eskaintza.

<http://www.en.uni.lu/>

- Ikerketa Luxenburgon.

<http://www.fnr.lu/en/>

- Berrikuntza eta ikerketari buruzko web-ataria.

<http://www.innovation.public.lu/en/index.html>

MALTA

- Atzerriko ikasleei Maltako Unibertsitateak eskaintzen dien informazioa. Herrialdeko unibertsitate bakarra da.

<http://www.um.edu.mt/for/students>

- I + G + b Maltan.

<http://www.ridt.org.mt/>

- Ikerketaren eta prestakuntzaren ardura duen erakunde publikoa

<https://opm.gov.mt/en/CDRT/Pages/CDRT.aspx>

- Kualifikazioak aintzatesteko prozedurari buruzko informazioa.

<http://www.ncfhe.org.mt/content/home-malta-qualifications-recognition-information-centre/52002817/>

HERBEHERAK

- Gobernuaren informazioa, Herbeheretako goi-mailako hezkuntzari buruzkoa.

<http://www.government.nl/issues/education/higher-education>

- Herbeheretan ikasteko oinarriko informazioa.

<https://www.nuffic.nl/en>

- Herbeheretan ikasi nahi duten atzerriko ikasleentzako informazioa: goi-mailako ikasketak, hezkuntza-erakundeak, nazioarteko ikasleentzako beka, Herbeheretako bizitzari buruzko informazio praktikoa.

<https://www.studyinholland.nl/>

- Herbeheretako unibertsitateen zerrenda: kontakturako eta web-orrietarako lotura.

<http://www.vsnu.nl/Universiteiten.html>

- Goi-mailako ikasketetan sartzeko sistema zentralizatua.

<http://info.studielink.nl/en/studenten/Pages/Default.aspx>

- Herbeheretan ikasteko beka-bilatzailea.

<https://www.studyinholland.nl/scholarships>

POLONIA

- Zientzia-ikerketa eta goi-mailako ikasketak Polonian.

<http://www.nauka.gov.pl/>

- Zientzia-ikerketa Polonian.

<http://www.nauka.gov.pl/en/scientific-research/>

- I + G Polonian.

<http://www.ncbir.pl/en/>

- StudyinPoland

<http://www.studyinpoland.pl/en/>

- Ikasketa-trukeak Europan: beka eta programak.

<http://www.nauka.gov.pl/en/higher-education/>

PORTUGAL

- Portugaleko goi-mailako hezkuntza-erakundeen gaineko indormazioa, publikoak zein pribatuak.

<http://www.dges.mctes.pt/DGES/pt>

- Portugaleko unibertsitate eta titulazioei buruzko informazioa.

<http://universidades.universia.pt/>

- Zientzia eta teknologia Portugalen. Gradu-ondokoen prestakuntza laguntzeko beka-deialdiak: doktoretza- eta doktoretza-ondoko bekak.

<http://www.fct.pt/>

ERRESUMA BATUA

- Erresuma Batuko gobernuaren hezkuntzaren web-ataria.

<https://www.gov.uk/browse/education>

- Ikastaro, ikasketa eta prestakuntzari buruzko informazioa. Erresuma Batuko bizimoduari buruzko zertzeladak.

<http://www.educationuk.org/global/>

<http://www.britishcouncil.org/education>

-Ingalaterra, Gales, Eskozia eta Irlandako unibertsitate, ikastaro eta dena delakoari buruzko informazioa.

<http://www.studyinbritain.com/>

- Erresuma Batuko unibertsitateetan sartzeko eskabide-zentrala.

<https://wwwucas.com/>

- Erresuma Batuan dauden ikertzaileentzako gida.

<http://www.britishcouncil.org/new/Global/Euraxess/EURAXESS-UK-guide-for-researchers-moving-to-uk.pdf>

- Ikerketa Erresuma Batuan.

<http://www.rcuk.ac.uk/>

- Maileguak eta ikasketa- eta ikerkuntza-bekak Erresuma Batuan.

<http://www.educationuk.org/global/articles/scholarships-financial-support/>

TXEKIAR ERREPUBLIKA

- Txekiar Errepublikako hezkuntza- maila guztiei eta ikerketari buruzko informazioa.

<http://www.msmt.cz/>

- Goi-mailako hezkuntza Txekiar Errepublikan. Prestakuntza-eskaintza, ikastaroen bilatzailea, bekak, bizitzeko modua, eta abar.

<http://www.studyin.cz/>

- I + G + b Txekiar errepublikan.

<http://www.vyzkum.cz/Default.aspx?lang=en>

- Txekiar Errepublika udako ikastaroetan ikasketak eslaviarrek egiteko bekak, espainiar hiritarrei zuzenduak.

http://www.mzv.cz/madrid/es/cultura_becas_cursos/cursos_de_verano_de_estudios_eslavos.html

ERRUMANIA

- Gobernuak eskainitako informazioa hezkuntza eta ikerketaren gainean.

<http://www.edu.ro/index.php/base/frontpage>

- Errumanian ikasten dutenentzako informazio garrantzitsua biltzen duen gida: ikastaroak, ikasketak, erakundeak, bekak eta laguntzak, bisak, ostatua, eta abar.

<http://www.studyinginromania.com/>

- kerketa Errumanian.

<http://www.cnsc-nrc.ro/home/>

SUEDIA

- Gobernuak eskainitako informazioa hezkuntza eta ikerketaren gainean.

<http://www.government.se/sb/d/2063>

-Suediari buruzko informazioa nazioarteko ikasleentzat. Programa-bilatzailea, unibertsitateen gaineko informazioa, beka-bilatzailea, bisei buruzko laguntza, bizitzeko modua, eta abar.

<https://studyinsweden.se/>

- I + G Suedian.

<http://www.vr.se/inenglish.4.12fff4451215cbd83e4800015152.html>

- Suedian ikasteko bekak.

<http://www.swedenabroad.com/es-ES/Embassies/Madrid/Estudiar-en-Suecia/Estudiar-en-Suecia/Becas/>

4.10 TRUKEAK ETA IKASTETXEEN ARTEKO ELKARLANA

Proiektu berritzailea da Recruiting Erasmus. **Proiektuko kide diren enpresen eta atzerrian unibertsitate-ikasketak egiten ari diren edo amaitu berri dituzten ikasleen arteko kontaktua erraztea du helburu**, bai Erasmus beka baten bitartez, bai nazioarteko antzeko programa baten bitartez.

<http://www.recruitingerasmus.com/>

- **IHIPO**

iHipori esker, erabiltzaileek (ikasle eta graduatuek) atzerriko programak, beka, praktikak eta egonaldia aurkitu ahal izango dituzte. Elkarrizketak eta CVak egiteko laguntza ematen duen atal interesgarria du.

<http://www.ihipo.com/> [EN]

- **Oportunidadeuropa**

Hainbat aukera eskaintzen ditu atzerrian lana, praktikak, beka, boluntario-lana eta kultura-trukeak aurkitzeko.

<http://oportunidadeuropa.com/>

- **Fábrica Cultural**

Fábrica Cultural (Kultur Fabrika) egitasmoaren helburua da ikasleei, profesionalei eta kultur sektoreko erakundeei kulturaren inguruko aukerak ezagutaraztea. **Kultura-enplegua, bekak, diru-laguntzak, sariak...** horiei buruzko informazioa lantzen dute. Horretaz gain, Espainiako kultur alorreko lehen gizarte-sarea egituratu dute.

<http://www.fabricacultural.com/>

- **Erasmus Intern**

ErasmusIntern.org atariak leku egiten dien enpresei eta erakundeei praktikak egiteko eskaintzak argitaratzeko eta hautagaiak bilatzeko. Bestetik, ikasleek euren profilak sortu eta azaleratu ahal dituzte bertan, praktikak aztertu eta praktika-saioak eskatu.

<http://erasmusintern.org/>

- **Graduate Land**

Graduatuei begirako ataria da Graduate Land: **lanpostuak, praktikak eta graduondoko programak dituzte eskura.**

<https://graduateland.com/>

- **European Internships**

Aukeratu interesgarri begitandu zaizun eskaintza. Hainbat sektoretan jarduteko aukera duzu: **hezkuntza, komunikabideak, hizkuntzen irakaskuntza, osasuna, ingurumen-zientziak, psikologia.**

<http://www.europeaninternships.com/>

5.7. PRAKTIKALDIAK ESKAINTZEN DITUZTEN EUOPAR ELKARTEAK

- **AIESEC** (Association Internationale des Etudiants en Sciences Economiques et Commerciales)
<http://aiesec.org/students/intern-abroad/> [EN]
- **ELSA** (European Law Students' Association)
<http://elsa.org/page/traineeships/> [EN]
- **IBA** (International Bar Association)
http://www.ibanet.org/Education_and_Internships/Legal_Internship_Programme.aspx [EN]
- **IAESTE** (The International Association for the Exchange of Students for Technical Experience)
<http://www.iaeste.org/students/> [EN]
- **EIA** (European Intermodal Association)
<http://www.iro.hr/en/infoservice/academic-infoservice/job-openings-and-internships/view-info-341/> [EN]
- **AEDH** (European Association for the Defence of Human rights)
<http://www.aedh.eu/-Work-for-aedh-.html> [EN]
- **Animus Association Foundation**
<http://www.animusassociation.org/?lang=en> [EN]
- **AER** (Association of European Radios)
<http://www.aereurope.org/opportunity-intership-offer/> [EN]
- **ENPA** (European Newspaper Publishers' Association)
http://www.enpa.be/en/news/enpa-is-seeking-for-an-intern-for-his-secretariat-office-based-in-brussels_54.aspx [EN]

- **EADI** (European Association of Development Research and training Institutes)
<http://www.eadi.org/jobs-internships/> [EN]

- **CIMO –Nazioarteko Mugikortasunerako Zentroa, Finlandia**
http://www.cimo.fi/programmes/cimo_scholarships [EN]

- **Espainiako Merkataritza Ganbara Erresuma Batuan**

Lana aurkitzeko zailtasunak handiak direla jakitun, Erresuma Batuan egoitza daukan Espainiako Merkataritza Ganbarak **“Graduate European Programme”** ikastaroa antolatu du, Europako unibertsitate-titulazioa daukatenek praktikak egin ditzaten Londresen dauden hainbat eratako enpresetan.

<http://www.spanishchamber.co.uk/es/content/Programa-Graduate-European>



6. ERASMUS+

6.1. Egitasmoa	136
6.2. Helburuak	137
6.3. Erasmus+ egitasmoaren egitura	138
6.4. Nork har dezake parte?	139
6.5. Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeak	139
6.6. Ekintzen deskribapena	140
6.6. A 1. Ekintza: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta	140
a. 1. Ekintza. Gazteen trukeak	140
b. 1. Ekintza. Gazteen dinamizatzailleen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana	141
c. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)	142
d. 1. Ekintza. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS)	143
6.6. B 2. Ekintza: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana	144
a. 2. Ekintza. Elkarketa estrategikoak	144
b. 2. Ekintza. Gaitasunak indartzeko proiektuak	146
6.6. C 3. Ekintza. Erreforma politikoei laguntzea	147
a. 3. Ekintza. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean	148

LABURPENA

Europar batasunaren programa bikaina da ERASMUS+. ERASMUS bekei esker 2.000.000 gaztek baino gehiagok ikasi atzerrian. Horrek ezagun bihurtu du. Hainbat dira azpimarratzeko ezaugarriak.

- Atal honetan ERASMUS + programak gazteei begira zer-nolako inplikazio dituen aztertuko dugu eta gazteentzat proposatzen dituen ekintzak.
- Europako boluntario zerbitzura jotzea da gazte batek “bere kasa” egin dezakeen ekintza bakarra. Gazteak bilatzen du interesgarritzat duen proiektua, erakundera jotzen du eta eskabidea egiten du.
- Gazte-trukeak eta elkarketa estrategikoak gazteek hain ezagunak ez dituzten dinamikak dira, nahiz eta euren ahalmen handia izan, hainbat herrialdetako gazteen arteko lankidetzeta eta trukea garatu baitaiteke.



ERASMUS+

6.1. PROGRAMA

ERASMUS+ Europar Batasunaren hezkuntza-, prestakuntza-, gazteria- eta kirol-egitasmo berria da, 2014ko urtarrilaren 1etik **2020ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo dena.**

ERASMUS+ egitasmoak **bere baitan hartzen ditu** aurreko “**Etengabeko Prestakuntza** (Erasmus, Leonardo da Vinci, Comenius eta Grundtvig)”, “**Gazteak Ekinean**”, “**Erasmus Mundus**”, **Alfa III**, **Tempus eta Edulink** egitasmoak.

ERASMUS+ egitasmoak 14.774.524 milioi euroko aurrekontua izango du 2014-2020 epealdian, eta horietatik % 10 gazteria-proiektuetara bideratuko da (2015erako aurrekontua: 171,7 milioi €).

Honako hauek dira egitasmoaren bereizgarriak:

- Gaitasunen eta kualifikazioen aintzatespena eta balidazioa
- Nazioarteko dimentsioa
- Hizkuntza-aniztasuna
- Berdintasuna eta inklusioa
- Parte-hartzaileen babesa eta segurtasuna

Egitasmoa indarraldiaren lehen urtean dago, eta, horrenbestez, hainbat gauza aldatuz joan daitezke. Gida honetan egitasmo osoa deskribatuko dugu, baina gazteei gehien bideratzen zaizkien ekintzetan jarriko dugu arreta, gazteak baitira gidaren helburu.

• Egitasmoaren gida

Europako Batzordeak Erasmus+ egitasmoari buruz prestatutako webgunean aurkituko duzu egitasmoari buruzko informazio guztia. Webguneak eta edukiak itzuli eta eguneratu ahala, informazio gehiago aurkituko duzu, bai Gazteaukeraren eta Injuveren webguneetan.

http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/index_es.htm

<http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-50720/eu/>

<http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-50720/es/>

<http://www.erasmusplus.injuve.es/>

6.2. HELBURUAK

Honako hauek dira ERASMUS+ egitasmoaren **helburuak**, gazteriaren arloari dagokionez:

- Gazteen oinarrizko gaitasunen maila hobetzea.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea Europako bizitza demokratikoan eta lan-merkatuan.
- Herritartasun aktiboa, kulturen arteko elkarrizketa eta gizarte-integrazioa sustatzea.
- Gazteriaren arloaren eta lan-merkatuaren arteko loturak indartzea.
- Lan-merkatuan hobekuntzak sustatzea, gazteriaren arloko erakundeen eta beste alderdi interesatu batzuen arteko elkarlana areagotuta.
- Toki-mailako, eskualde-mailako eta nazio-mailako politiken erreformak osatzea.
- Ezagutzan eta esperientzian oinarritutako gazte-politikaren garapena babestea.
- Ikaskuntza ez formalaren eta informalaren aintzatespena.

- Gazteen jardueren nazioarteko dimentsioa indartzea.
- Gazteriaren arloko langileek eta erakundeek duten egitekoa indartzea, gazteentzako laguntza-egitura gisa.

6.3. ERASMUS+ EGITASMOAREN EGITURA

Egitasmoak bere baitan hartzen ditu gazteriaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko programak, baina hiru ekintza gakotan egituratuta. Ekintza gako horietan bai ekintza berriak, bai aurretik ezagutzen genituen ekintzak eta programak sartzen dira.

- Egitasmoak bere baitan hartzen ditu gazteriaren, hezkuntzaren eta kirolaren arloko programak, baina hiru ekintza gakotan egituratuta. Ekintza gako horietan bai ekintza berriak, bai aurretik ezagutzen genituen ekintzak eta programak sartzen dira.
- Gazteria. Gazteak Ekinean egitasmoa (trukeak, Europako Boluntario Zerbitzua eta abar).
- Kirolak. EBko kirol-egitasmoa.

Honako hauek dira hiru ekintza gakoak:

- 1. Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta.**
- 2. Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana.**
- 3. Erreforma politikoei laguntzea.**

Gazteriaren esparruan

1. Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta:

- Gazteen mugikortasuna: gazteen trukeak, Europako Boluntario Zerbitzua eta ekintza berritzaileak.
- Gazteriaren arloan lan egiten dutenen mugikortasuna.

2. Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana:

- Garapenerako, gaitasunak indartzeko eta ezagutzak trukatzeko laguntza, erakundeen arteko elkarlana-akordioaren bitartez.

3. Erreforma politikoei laguntzea:

- Gazteriaren arloko Europar Batasuneko agenda politikoaren aplikazioa.
- Kualifikazioak garatzeko tresnen aplikazioa (Youthpass).
- Europako eremuko sareentzako eta GKEentzako laguntza.
- Elkarrizketa politikoa Europa- eta nazioarte-mailan eta elkarrizketa egituratua gazteekin (topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean).

6.4. NORK HAR DEZAKE PARTE?

Norbanakoak: ikasleak, irakasleak, hezitzaileak, lan-praktikak egin dituzten edo helduen heziketako programetan parte hartzen duten pertsonak, boluntarioak, gazteak —13 eta 30 urte bitartekoak, ekintzen arabera—, eta hezkuntzan, prestakuntzan eta gazterian jardunean dauden erakundeetan lan egiten duten pertsonak.

Erakundeak: pertsonen parte-hartzea Erasmus+ egitasmoan erakunde publiko nahiz pribatuen edo pertsonen taldeen bidez gauzatzen da beti.

6.5. EGITASMOAN PARTE HARTZEN DUTEN HERRIALDEAK

- Europar Batasuneko kide diren 28 Estatuak.
- **Europar Batasunetik kanpoko herrialdeak:** Mazedoniako Yugoslaviar Errepublika / Liechtenstein / Suitza / Norvegia / Turkia / Islandia.
- **Auzo-herrialde elkartuak:**

Ekialdeko Balkanak	Ekialdeko Europa eta Kaukaso	Mediterraneoko herrialde elkartuak
Albania Bosnia y Herzegovina Kosovo Montenegro Serbia	Ekialdeko Elkarteko herrialdeak: Armenia Azerbaijan Bielorrusia Georgia Moldavia Ucrania Beste herrialde batzuk: Errusiako Federazioa	Aljeria Egipto Israel Jordania Líbano Libia Maroko Palestina Siria Tunisia

6.6. EKINTZEN DESKRIBAPENA

6.6.A. EKINTZA 1: Pertsonen mugikortasuna, ikaskuntza dela-eta

Ikaskuntzagatiko pertsonen mugikortasunak honako gai hauetan lagunduko du:

- Egitasmoan parte hartzen duten herrialdeen artean **ikaskuntza ez formaleko eta informaleko jarduerak** egin nahi dituzten gazteen mugikortasuna.

- Gazteen trukeak eta boluntario-lana, Europako Boluntario Zerbitzuaren bitartez.

- Mugikortasunari buruzko xedapenetan jasota ez dauden ekintza berritzaileak.

- **Gazteen begirale gisa edo gazteen erakundeetan lan egiten duten pertsonen mugikortasuna**, bai eta agintari gazteena ere. Mugikortasun-modu honek prestakuntzako eta sareko laneko jardueren forma har dezake.

- Gazteen begirale gisa edo gazteen erakundeetan lan egiten duten pertsonen mugikortasuna, bai eta agintari gazteena ere, **herrialde elkartuetara** eta herrialde elkartuetatik, bereziki, auzo-herrialdeetatik.

Egitasmoaren finantziazioari dagokionez, berritasun nagusia joan-etorrien kostuen kalkuluarekin lotuta dago. Joan-etorri bakoitza joan-etorriaren distantzian oinarritutako kuota jakin batzuen bitartez finantzatuta dago. Laguntza eta barne har daitezkeen kostu guztiak **egitasmoaren gidan**, Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoaren webgunean <http://www.oapee.es/oapee/inicio/sepie.html> eta Espainiako Agentzia Nazionalean kontsulta daitezke <http://www.erasmusplus.injuve.es/>

a. 1. EKINTZA. Gazteen trukeak

Gazteen trukeei esker, herrialde desberdinetako gazteek elkar ezagutzeko eta elkarrekin bizitzeko aukera izango dute, 5 egunetik 21 egunera. Trukeak dirauen artean, parte-hartzaileek programa bat garatuko dute (tailerren, ariketen, eztabaiden, simulazioen aire zabaleko jardueren eta abarren nahasketa), parte-hartzaileek eurek trukearen aurretik diseinatu eta planifikatu.

Gazteen trukeei esker, gazteek gaitasunak garatzen dituzte, gizarte-gaien inguruan kontzientziatu; kultura eta bizimodu berriak ezagutu, batez ere parekoen arteko

Ikaskuntzaren bitartez; eta elkartasuna, demokrazia eta antzeko balioak bultzatu. Ikaskuntza **hezuntza ez formaleko metodoen bidez gauzatzen da.**

Trukeak Europar Batasunaren barruko eta kanpoko bi erakunderen edo gehiagoren arteko elkarlan transnacionalean oinarrituta daude..

Jarraian zerrendatzen diren jarduerak **EZIN dira Europar Truke gisa diruz lagunduak izateko hautagaiak izan:**

- Ikasketa-bidaia akademikoak
- trukeak, onura ekonomikoa lortze aldera
- turismotzat har daitezkeen truke-jarduerak
- jaialdiak
- opor-bidaiak
- ikuskizunen birak

Jardueraren iraupena	5 egunetik 21 egunera, bidaietarako egunak kanpo
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Irteerako eta harrerako herrialdeetako 13 eta 30 urte bitarteko gazteak
Parte-hartzaile kopurua eta talde nazionalen osaera	Gutxienez, 16 parte-hartzaile; gehienez, 60 (taldeetako buruak kanpo) Gutxienez, 4 parte-hartzaile taldeko (taldeetako buruak kanpo) Talde nazional bakoitzak taldeko buru bat izan behar du, gutxienez (gazteen trukean gazteei lagun egingo dien heldua, ikaskuntza eraginkorra, babesa eta segurtasuna bermatuko dituen).

b. 1. EKINTZA.

Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna: prestakuntza eta sareko lana

Jarduera hau gazteen dinamizatzaileen garapen profesionalerako lagungarria da, honakoen bitartez:

- Gazteen dinamizatzaileen parte-hartzea mintegietan, prestakuntza-ikastaroetan, elkarre-jardueretan eta ikasketa-bisitetan.
- Atzerrian gazteriaren arloan jardunean dagoen erakunde baten jarduera profesionalak behatzea.

Jardueraren iraupena	2 egunetik 2 hilera, bidaietarako egunak kanpo
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Adin-mugarik gabe. Parte-hartzaileak irteerako nahiz harrerako erakundearen herrialdekoak izan behar dira.
Parte-hartzaile kopurua	50 parte-hartzaile, gehienez ere (hezitzaileak eta bideratzaileak barne), proiektuaren jarduera bakoitzean.

c. 1. EKINTZA. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)

EVSk aukera ematen die 17 eta 30 urte bitarteko gazteei borondatezko zerbitzu batean engaiamendu pertsonala adierazteko, 12 hilabetera arte, egoitzako herrialdea ez den beste batean. **Boluntario-lana ez da ordaintzen, irabazi-asmorik gabekoa da, eta jardunaldi osoa.**

Jardueraren iraupena	2 hiletik 12 hilera (jarduera hilaren lehen zazpi egunetan hasi behar da) 2 astetik 12 hilera 10 boluntarioko taldeentzat edo aukera murriztuak dituzten gazteentzat
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	17 eta 30 urte bitarteko gazteak, irteerako erakundearen herrialdekoak. Boluntarioek EVS proiektu bakarrean parte har dezakete. Salbuespena: gehienez ere 2 hilabete iraun duen EVS proiektu batean parte hartu duten boluntarioek beste EVS proiektu batean parte hartu ahal izango dute.
Parte-hartzaile kopurua	Boluntario 1, gutxienez, eta 30, gehienez ere.



OHARRA: Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzeko informazio gehiago duzu 9. Atalean (Boluntario-lana).

d. 1. EKINTZA. Europako Boluntario Zerbitzuaren eskala handiko ekitaldiak (EVS LS)

Ekintza honek EVSren eskala handiko ekitaldiak (gutxienez 30 boluntariokoak) laguntzea du helburu, gazteriaren, kulturaren eta kirolaren arloko Europa- edo mundu-mailako ekitaldien baitan (adibidez, Gazteen Munduko Goi Bilera, Europako Kulturaren Hiriburua, Europako Gazteen Hiriburua, Europako kirol-txapelketak).

Zer jarduerarako da lagungarri ekintza hau?

- EVS: konpromisoa **ordaindu gabeko eta jardunaldi osoko** boluntario-lanaren bitartez adierazteko beta ematen die 17 eta 30 urte bitarteko gazteei, atzerrian eta, gehienez ere, 2 hilabetez. Boluntarioei aukera ematen zaie **Europa- edo nazioarte-mailako ekitaldi baten baitan** antolatzen diren jardueretan **parte har dezaten**.
- **Jarduera osagarriak:** hitzaldiak, mintegiak eta tailerrak ekitaldia burutu bitartean, boluntario-lana eta, nagusiki, EVS sustatzera bideratuak.

Jardueraren iraupena	14 egunetik 2 hilera, bidaietarako egunak kanpo.
Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak	Egitasmoko herrialde bateko (proiektua egiten den herrialdea ez dena) edo elkartutako herrialde auzo bateko 17 eta 30 urte bitarteko gazteak. Boluntario bakoitzak EVS LS proiektu bakarrean har dezake parte Erasmus+ egitasmoaren indarraldian.
Parte-hartzaile kopurua	Gutxienez, 30 boluntario.

6.6.B. 2. EKINTZA: Berrikuntzarako eta praktika egokien trukerako elkarlana

Ekintza hau honetarako izango da lagungarri:

1. Elkarre estrategikoak, ekimen bateratuak garatu eta abiarazteko, **gazteen ekimenak eta herritartasun aktiboa, gizarte-berrikuntza**, bizieta demokratikoan **parte-hartzea** eta enpresa-izpiritua sustatzen duten proiektuak barne, parekoen arteko ikaskuntzaren eta esperientzien trukearen bitartez.

2. **Honako alderdi hauek** bultzatuko dituzten plataforma informatiko laguntzaileak:

- parekoen arteko ikaskuntza,
- alderdi hauetan oinarritutako gazteriaren arloko lana:
- ezagutzan
- mugikortasun birtualean, eta
- praktika egokien trukean.

3. Gaitasunen garapena eta indarketa eta ezagutzen trukea, **nagusiki parekoen arteko ikaskuntzaren bidez, egitasmoko herrialdeetako eta elkartutako herrialdeetako erakundeen artean elkarre-akordioak sinatuta.**

a. 2. EKINTZA- Elkarketa estrategikoak

Elkarre estrategikoak (**Strategic Partnership** delakoak) **elkarlanean aritzeko** aukera ematen die hezkuntzaren, prestakuntzaren eta gazteriaren arloetan jardunean dabilzan erakundeei, **enpresei, administrazio publikoei** eta hainbat sektore sozioekonomikotan jardunean dauden **gizarte zibileko erakundeei** elkarlanean aritzeko, honako helburu hauek lortze aldera:

- Irakaskuntzaren, prestakuntzaren, ikaskuntzaren eta gazteen dinamizazioaren arloetan kalitate-maila altuak lortzeko praktika berritzaileak ezartzea.
- Instituzioak modernizatzea.
- Berrikuntza soziala sustatzea.

Gazteriaren arloan gauza daitezkeen jardueren tipologia:

- Gazteen dinamizazioaren arloko elkarlan-jarduerak
- Gaitasunen aintzatespena eta balidazioa
- Gazteriaren arloko ekimen transnazionalak

Elkarte estrategikoetan diruz lagunduko diren prestakuntza-, ikaskuntza- eta irakaskuntza-jarduketak:

- Ikasleen, hezitzaileen, ikasle helduen eta gazteen mugikortasun mistoa (mugikortasun fisikoa: 5 egunetik 2 hilera)

Mugikortasun fisikorako tarte txiki bat edo batzuk (guztira, 2 hilabete, gehienez ere) eta **mugikortasun birtuala konbinatzen dituzten jarduerak** (adibidez, informazio- eta komunikazio-teknologiak elkarlanerako gune gisa erabiltzea, bideokonferentziak, gizarte-komunikabideak eta abar, mugikortasun fisikoaren emaitzak osatze edo luzatze aldera).

- Gazteen dinamizatzaileen mugikortasuna (2 hiletik 12 hilera)

Gazteen dinamizazio-lana beste herrialde batzuetan nola gauzatzen den jakiteko aukera ematen die dinamizatzaileei. Hartara, gaitasun profesional, pertsonal eta interkulturalak indartzen dira.

Gazte-eragileek atzerrian lan egiteko aukera dute 2 hiletik 12 hilera, harrerako erakundearen eguneroko lanean aktiboki parte hartuta eta, aldi berean, profila aberastu egiten dute, landa-laneko profesional gisa.

- Gazteen ekimen transnazionalak

Elkarte Estrategikoen bidez Gazteen Ekimen Transnazionalak laguntzen dira, programako herrialde desberdinetako gazteen **bi taldek edo gehiagok garatuak eta gizarte-konpromisoa eta ekintzaile-sena sustatzera bideratuak.**

Gazteek hasi, diseinatu eta gauzatutako proiektuak dira gazteen ekimenak. Horrela, aukera ematen zaie euren ideiak probatzeko, **proiektuen plangintzan eta ezarpenean zuzenean eta aktiboki parte hartzeko beta** emango dieten ekimenen bitartez. Gazteen ekimen batean parte hartzeak ikaskuntza ez formalerako esperientzia garrantzitsua dakar.

Ekimen transnazonala gauzaten duten gazteek **begirale** baten —gazteekin lanean esperientzia duen pertsona baten— laguntza izan dezakete.

Begiraleak ez du ekimenean parte hartuko, baina gazteen taldeari lagunduko dio ekimena prestatzen, burutzen eta ebaluatzen, eta ikaskuntza-prozesua bultzatuko du.

Parte-hartzaile kopurua	Gutxienez egitasmoko 2 herrialdeetako 2 erakunde (gazteria)
Jardueraren iraupena	6 hiletik 2 urtera. Aparteko kasuetan, Elkarte Estrategiko baten iraupena 3 urtera arte luza daiteke, onuradunak hala eskatzen badu eta eskumena duen Agentzia Nazionalaren oniritziz. Kasuotan, diru-laguntzaren zenbateko osoa ez da aldatuko.

b. 2. EKINTZA- Gaitasunak indartzeko proiektuak

Elkarlan-proiektu transnazonalak dira, programako herrialdeetan eta munduko beste herrialde elkartuetan gazteriaren arloan jardunean dauden erakundeen arteko **alde anitzeko elkarreetan oinarrituak**. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloetako eta bestelako sektore sozioekonomikoetako erakundeek ere parte har dezakete.

Proiektuaren iraupena	9 hiletik 2 urtera.
------------------------------	---------------------

Jarduerak:

- Elkarriketa politikoa, elkarlana, sareko lana eta gazteriaren arloko praktiketako trukeak sustatzea: mintegiak, konferentziak, tailerrak eta topaketak.
- Gazteriaren arloko eskala handiko ekitaldiak.
- Informazio- eta kontzientziazio-kanpainak.
- Gazteen dinamizazioa komunikatzeko (hedatzeko) forma berriak sortzea, bereziki honakoen bitartez: ikaskuntza-material ireki eta malguak, elkarlan birtuala eta hezkuntza-baliabide irekiak.

- Informazioa, komunikazioa eta media direlakoetako tresnak garatzea.
- Gazteen dinamizatorako metodo, material eta tresna berriak garatzea, bai eta curriculum-materialak gazteen dinamizatorako, prestakuntza-moduluak eta Youthpassen moduko agiri gisako tresnak.

6.6.C. 3. EKINTZA. Erreforma politikoei laguntzea

<p>Hautagai izan daitezkeen parte-hartzaileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • GKEak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak • Toki-mailako erakunde publikoak • Europa-mailako gazteen GKEak, egitasmoaren herrialdeetako batean kokatuta daudenak. <p>Elkartutako herrialde auzoetako erakundeen parte har dezakete, baina ezin dute eskaririk aurkeztu.</p>
--	---

Jarduerak:

- Europar Batasunak gazteriaren arloan duen agenda politikoa aplikatzea, Koordinazio Metodo Irekia baliatuta.
- Egitasmoko herrialdeetan, kualifikazioen aintzatespenerako eta gardentasunerako EBko tresnak aplikatzea, bereziki, Youthpass.
- Europar Batasunaren mailako sareei eta Europako gazteen esparruko GKEei laguntzea.
- Elkarrizketa politikoa Europako alderdi interesatuekin eta elkarrizketa egituratua gazteekin.
- Europako Gazteen Foroa, gazteriaren arloko lana garatzeko baliabideen zentroak eta Eurodesk sarea.
- Herrialde elkartuekin eta nazioarteko erakundeekin politikei buruzko elkarrizketak egiteko laguntza.

a. 3. EKINTZA. Elkarrizketa egituratua: topaketak gazteen eta gazteen arloko arduradun politikoen artean

- Gazteen eta arduradun politikoen arteko topaketa nazionalak eta mintegi transnazionalak, elkarrizketa egituratuaren edo Gazteriaren Estrategi Europarraren alderdi garrantzitsuei buruz.
- Europar Batasunaren lehendakaritza duen Estatu kidean seihileko bakoitzean antolatzen diren Youth Conference direlakoak prestatzeko topaketa nazionalak eta mintegi transnazionalak.
- Europako Gazteriaren Astean antolatzen diren jarduerekin lotuta dauden gazte-politikei buruzko eztabaidak eta informazioa sustatzen duten ekitaldiak.
- Gazteei kontsultak egitea (sareko kontsultak, iritzi-inkestak), gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeari lotutako premiak ezagutze aldera.
- Gazteen eta arduradun politikoen arteko topaketak eta mintegiak, informazio-ekitaldiak edo eztabaidak, gazteek bizitza demokratikoan parte hartzeari buruz.
- Institutuzio demokratikoen funtzionamendua eta politikariek instituzio horietan betetzen duten papera simulatzen duten ekitaldiak.

Europako lan-merkatuan sartzeko funtsezkoa da hizkuntzak jakitea. Gero eta ugariagoak dira eskura ditugun aukerak eta baliabideak, gero eta gehiago ikasteko modu askotarikoak: zure kasa jardutea, akademietan, trukeen bitartez, prozesu alternatiboei ekinda edo atzerrian eskainitako ikastaroetara bertararuta. Hona aukera horiei begira aurki ditzakegun baliabideak:

- Zure lanbidean egokiro jarduteko maila aproposa lortzea funtsezkoa da. Aztertu ondo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua eta hizkuntza bakoitzean proposatutako ziurtagiri baliokideak zeintzuk diren. Erabaki zein den eskuratu nahi duzun maila eta zeinek ziurtatzea nahi duzun.
- Bai ikastaro bat egiteko asmotan bazabiltza, bai zure curriculumaren osatze-lanetan badiharduzu, zure jakite-maila zertan den zehaztu behar duzu. Egizu autoebaluazio-proba bat.
- Milaka dira hizkuntzak ikasteko aukerak; hortaz, aitzakiarik ez. Aukerok zure gustuei, zure bizimoduari, zure mailari eta zure ahalmen ekonomikoari egokitzen dira. Trukeak, gizarte-sareak, abestien eta jolasen lanketan oinarritutako ikastaroak, edozein ordutegitan irakasteko prest dauden irakasleak... horiek guztiak txertatu ditugu proposamen-zerrendan. Hautatu gustukoena duzun sistema eta eutsi!
- Zalantza barik, ikasteko modurik onena beste herrialde batean aritzea da. Atzerrian zure beharretara egokitutako ikastaroak antolatzen dituzten agentzien zerrenda luzea eskainiko dizugu.
- Ez dago denon esku atzerriara hizkuntzak ikastera joatea, diru-kontuak direla eta. Eman begiratu bat Beka eta laguntzei dagokien pasarteari, eta kontu egin ezarritako epeei.
- Hizkuntzak eta enplegua atala garrantzi handikoa da, baldin eta buruan badarabilzu lanean jardutea zure egonaldia diruz laguntzeko. Baliabide gomendagarria da.

7 HIZKUNTZAK

7.1. HIZKUNTZAK IKASTEKO

Hizkuntzak pertsona guztientzat dira baliagarri, adina eta bakoitzak hizkuntzak ikasteko dituen arrazoiak edozein izanik ere. Oztupo pertsonalak eta nazionalak gainditzen laguntzen dute hizkuntzek, eta europarrei elkarren artean komunikatzeko aukera ematen diete, baita lankidetzan aritzeko, lan egiteko, ikasteko eta bidaiatzeko aukera ere.

Europar Batasunak Europako beste hizkuntza batzuk ikastera animatu nahi ditu Europako herritarrak, merkatu bakarraren barruan mugikortasun profesionala eta pertsonala errazteko eta kulturen arteko harremanak eta elkar ulertzea ahalbidetzeko.

Espania da –eta ostetik Hungaria eta Bulgaria baino ez daude– 25 eta 64 urte bitartean EBn atzerriko hizkuntza bat bederen hitz egiten dakitela adierazten duten heldu gutxien duen herrialdeetako bat. % 51k baino ez daki beste hizkuntza bat, Europako batez bestekotik oso urrun (%66), Eurostat estatistika-bulegoak 2014an argitara emandako datuen arabera. Ingelesa da Espainian gehien erabiltzen den atzerriko hizkuntza, EBko herrialdeetan gertatu bezala, Baltikoko herrietan (errusiera), Eslovakian (txekiera) eta Luxenburgon (alemana) izan ezik.

Espainian ingelesa hitz egiten dutenen artean, % 40k dio haien maila ertaina dela, % 42k ontzat dauka eta bakarrik % 19k irizten dio bikain.

Lana eskuratzeko hizkuntzak jakitearen garrantzia funtsezkoa da. ADDECOK egindako azken ikerketaren arabera, Espainian atzerriko hizkuntza bat jakiteak bide ematen du eskainitako lanpostuen heren bat eskuratzeko. Lan eskaintzen % 90ek ingelesa jakitea galdegiten dute; alemanaren kasuan, berriz, % 7,2 da eskakizun-maila.

Nola ikasi

Hizkuntzak ikasteko esperientzia atsegina eta oso esker onekoa izan daiteke. Bakoitzaren premietara eta eskuragarri duen denborara egokitutako metodoa aurkitzea da garrantzizkoena.

Aukera bat baino gehiago daude:

1. Ikasi zure erritmoan: hainbat hizkuntza bakarka ikasteko ikastaroak daude, askotariko ikus-entzunezko euskarri eta testu-liburu biltzen dituztenak.

2. Irratia eta telebista: kate askok hizkuntza-ikastaroak eskaintzen dituzte.

3. Internet bidez: gero eta gehiago dira hizkuntza-eskolak eskaintzen dituzten webguneak, txatak, gizarte-sareak, aplikazioak eta abar, askotan soinu, irudi eta guzti.

4. Irakasle batekin: ikasle talde baten barruan eskolak jasotzeak baditu alde on batzuk; besteak beste, ikasleak elkarren artean animatzen dira, eta irakasleak gidatu egiten ditu beren premia zehatzen arabera.

5. Lanean: gero eta enpresa gehiagok onartzen dute hizkuntzak funtsezkoak direla negozioren arrakasta bermatzeko, eta enpresa handi askok doako edo diruz lagundutako ikastaroak eskaintzen dituzte.

6. Binaka: binaka ikasteko, jatorrizko bi hiztunek, hizkuntza bakoitzeko banak, komunikatu behar dute elkarren artean, posta elektronikoz, telefonoz eta abar.

7.1. A. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua: ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa (HEEEB) Europako Kontseiluak garatutako esparru estandarra da, hizkuntza bateko ulermen-, idazmen- eta mintzamen-mailak neurtzeko nazioarteko eredia izatea lortu nahi da.

Mailak

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua **maila berberak** ezartzen ditu hizkuntza guztietarako, eta, horiei esker, errazago erka edo homologa daitezke erakunde ziurtatzaileek emandako tituluak.

		Trebetasunak	
EEEbren kompetentzia-mailak	Erabiltzaile kompetentea	C2	Hizlari natiboarenaren moduko komunikazio-maila, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean
		C1	la hizlari natiboarenaren moduko komunikazio-maila. Gai da aurkezpenetan, negoziazioetan eta bileretan ongi moldatzeko
	Erabiltzaile independentea	B2	Gai da nozio konplexuak ulertu, landu eta komunikatzeko, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean
		B1	Gai da nozio arruntak ulertu, landu eta komunikatzeko, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean
	Oinarrizko erabiltzailea	A2	Gai da gai errazak ulertzeko eta komunikatzeko, bai arlo pertsonalean, bai arlo profesionalean
		A1	Oinarrizko egiturak ulertzen eta lantzen ditu, hala ahoz, nola idatziz
			Entzumena
			Irakurmena
		Mintzamina	
		Idazmena	

Iturria: Red de plurilingüismo de Sevilla. www.cepcastilleja.org

Garatu behar diren gaitasunak

Maila bakoitzean, ulermenari, mintzamenari eta idazmenari dagokienez, ikasleak gainditu behar dituen gaitasunak zehazten ditu Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak.

Ulermenean entzumena eta irakurmena hartzen dira barne; mintzamenean, aldiz, ahozko interakzioa eta ahozko adierazmena; azkenik, idazmenari dagokion kategorian idatzizko adierazmenerako trebetasuna neurtzen da.

7.1. B. Ingelesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Ingeleseko ziurtagiriak ematen dituen erakunde ugari dago.

- Espainian gehien ezagutzen denetako bat **Cambridgeko Unibertsitatea** da <http://www.cam.ac.uk/> Cambridge ESOL Exams direlakoak antolatzen dituena. Sei ziurtagiri daude, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratukoen parekoak, oinarritzko mailatik (A1) altuenera (C2) doazenak. Ziurtagiri horrek aintzatespen zabala du nazioartean, unibertsitateetan, negozio-eskoletan eta enpresetan.

Azterketa egin nahi baduzu, Espainian hainbat zentro dago horretarako. Horieta bazueta matrikula zaitezke, alde zurretik inolako prestakuntzarik egin beharrik gabe. Gainerakoak akademiak eta hizkuntza-eskolak dira, alde zurreko azterketak antolatzen dituztenak, gero ikasleei azterketak egiteko. Tasak 60 eurotik (mailarik apalena) 200 eurora (mailarik aurreratuen) doaz.


- El **Cambridge Young Learners (YLE)** delakoa 7 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta **hiru mailatan** banatuta dago: Starters, Movers eta Flyers. Mailetak bakoitzean irakurmen-, idazmen, entzumen- eta mintzamen-arietak daude. Azterketa horiei Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan dagozkien mailak A1 eta A2 dira.
- El **Key English Test (KET)** delakoa A2 mailaren parekoa da eta Preliminary English Test (PET) delakoa, B1 mailaren parekoa. First Certificate in English (FCE) izeneko ere B1 mailari dagokio.
- **Certificate in Advanced English (CAE)** titulua C1 mailarekin dator bat. Ingelesaren ezagutzan maila altua adierazten du ziurtagiri honek; ikasleak arrakastaz lortzen du eguneroko bizitzako egoera gehienetan komunikatzea. Enpresak eta unibertsitateak ziurtagiria onartzen hasita daude.
- **Certificate of Proficiency in English (CPE)** delakoa, azkenik, C2 mailaren parekoa da, eta eskala profesional altuagoetan garatu nahi dutenei zuzendurik dago. Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen <http://www.cambridgeenglish.org/es/exams-and-qualifications/proficiency/exam-dates/>

Beste ziurtagiri batzuk ere badaude:

- **BEC (Business English Certificates)**, interesatuak negozioen testuinguruan duen trebetasuna balioesteko hiru azterketa (Preliminary Vantage eta Higher)
- **ILEC (International Legal English Certificate)**, abokatuei eta Zuzenbideko ikasleei zuzendua
- **ICFE (International Certificate in Financial English)**, kontulariei eta finantzaren arloko profesionalei zuzendua
- **IELTS (International English Language Testing System)**, ingelesez ikasi edo lan egiteko
- **CELTA (Certificate in English Language Teaching to Adults)**, beste hizkuntza batzuetako hizlarietarako ingelesez irakasteko
- **DELTA (Diploma in Teaching English to Speakers of other Languages)**, aurrekoaren xede bera duena
- **TOEFL (Test of English as Foreign Language)** delakoaren bitartez ingeleza unibertsitate- mailan erabili eta ulertzeko gaitasuna neurtzen du. Ziurtagiri hori ingelesez mintzatzen den unibertsitate askotan eskatzen da. IELTS Ameriketako ingelesera bideratuta dago; TOEFL Britainia Handiko ingelesera.

HEEEB	Ingeles orokorra	Academikoa	Profesionala				
Maisutasuna C2	CEP Certificate of Proficiency in English	IELTS				BULATS	
Ezagutza operatibo eraginkorra C1	CAE Certificate in Advanced English		BEC Higher	ILEC	ICFE		
Aurreratua B2	FCE First Certificate in English		BEC Vantage				
Atarian B1	PET Preliminary English Test		BEC Preliminary				
Plataforma A2	YLE Flyers	KET Key English Test					
Sarbidea A1	YLE Movers						
	YLE Starters						
Hizkuntzeta-rako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua	Cambridge Young Learners English Tests	General English	International English Language Testing System	Business English Certificates	International Legal English Certificate	International Certificate in Financial English	Business Language Testing Service

Cambridge English A range of exams to meet different needs



Fuente: www.cambridgeenglish.org/

7.1. C. Frantsesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Frantzia aintzatetsitako **diploma- eta ziurtagiri-aukera zabala** dago gaur egun. Hori dela-eta, horietako bat hautatzeko garaian, kontuan hartu beharko ditugu gure egungo eta geroko premiak.

DILF, DELF eta DALF diplomak Frantziako Hezkuntza Ministerioak aintzatesten ditu, atzerritarrek frantsesez duten trebetasuna justifikatzeko. Centre International d'Études Pédagogiques erakundeak (www.ciep.fr) prestatzen ditu ziurtagiri hori eskuratzeko azterketak, Frantzia nahiz Espainian egin daitezkeenak.

- **Diplôme initial de langue française** (DILF) oinarritzko mailaren ikaskuntza-ziurtagiria da, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailari dagokiona.

- **Diplôme d'Études en Langue Française (DELF)** hainbat mailatan bereizten da, A1etik B2ra, beheko koadroan ikus daitekeen bezala.

CECRL	DELF	Utilisateur
A1	DELF A1	élémentaire
A2	DELF A2	
B1	DELF B1	indépendant
B2	DELF B2	

Iturria: www.ciep.fr/

- **Diplôme Approfondi de Langue Française (DALF)** ostera, diploma aurreratua da, unibertsitateetarako sarbidea ematen duena.

Gainera, **Test de Connaissance du Français (TCF)** Frantziako Hezkuntza Ministerioaren azterketa ofiziala da, atzeritarrak frantsesez duen trebetasuna aintzatesten duena. Komunikazio profesionalerako edo pertsonalerako erabiltzen den hizkuntzaren ebaluazio orokorra da. Kalifikazioek Europako Kontseiluak zehaztutako sei mailako eskalako pareko balioa ematen dute. Oinarrizko azterketak 80 galdera ditu, hautazko hiru atalekin. Galdera horiei esker, ahozko, idatzizko nahiz egiturazko trebetasunak ebaluatzen dira.

Edonor aurkez daiteke nahi duen azterketara, bai eta, saio berean, **diploma bat baino gehiagotara aurkeztea ere**.

Izen-ematea zuzenean egiten da azterketa-tokietan, bai Frantzian, bai Espainian. Ordaindu beharreko diru-zenbatekoa tokian-tokian aldatzen da.

Bestalde, Parisko Merkataritza eta Industria Ganberak antolaturiko azterketak egin eta gero, **Français des Affaires et des Professions** erakundeak ematen dituen zenbait ziurtagiri eta diploma hartzen dira barne. Negozioetara eta turismoarekin, ostalaritzarekin, zientziarekin, teknologiarekin edo legeekin lotutako lanbideetara bideratuta daude, Negozioetarako hiru diploma daude eta lau espezializatu.

Hona hemen Hezkuntza Ministerioak aintzatetsi eta Frantziako unibertsitateek onartutako beste diploma batzuk: **Certificat Pratique de Langue Française (CPLF)**,

Diplôme d'Études Françaises (DEF) eta Diplôme Supérieur d'Études Françaises (DSEF).

Era berean, Alliance Françaisesk emandako **CEFP1, CEFP2, DL eta DSLCF** diplomak Europako Kontseiluaren mailekin parekatuta daude eta mundu osoan aintzatetsita.

Azkenik, **Business Language Testing Service (BULATS)** azterketen zerbitzua da, sei mailatan banatuak. Ordenagailuz zein idatziz egin daitezke probak, eta ikasleak negozioetako hizkuntzan dituen trebetasunak neurtzen ditu. Ez dago Frantzia erabat aintzatetsita, baina mundu osoan onartzen da.

7.1. D. Alemana. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Alemaneko titulazio ofizialak bat datoz Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratukoekin bat datoz, hasiberrien A1 mailatik maila gorenera, C2ra, alegia.

- **SD1 o Start Deutsch 1 (A1)** delakoan 60 ikastordutik 150era hartzen dira barne. Azterketa hori gainditzeak zera esan nahi du: eguneroko egoeretako galdera, argibide eta mezu soilak ulertzen direla.
- **SD2 o Start Deutsch 2 (A2)** delakoan 150 ikastordutik 260ra hartzen dira barne, eta ikasleak eguneroko elkarrizketetako informaziorik garrantzizkoena ulertzen duela, galdetegiak bete ditzakeela edo elkarrizketa bateko alderdiren bat eztabaida dezakeela ziurtatzen du.
- **ZD o Zertifikat Deutsch (B1)** delakoan 260 ikastordutik 490era hartzen dira barne. Azterketa gaindituz gero, ikaslea gai da kazetaritza-testuak ulertzeko, zerbaiti buruzko informazioa emateko, zerbait proposatzeko edo adosteko.
- **Goethe-Zertifikat (B2)** delakoaren bitartez, zera adierazten da: ikaslea gai dela gai zehatzen eta abstraktuen ideia nagusiak ulertzeko, testu-aukera zabal bat ulertzeko eta idatziz argiro eta egitura bati jarraituta adierazteko.
- **TestDaf o Test Deutsch als Fremdsprache (Alemana Atzerriko Hizkuntzatzen dutenentzako Ziurtagiria B2-C1)** delakoa aurkituko dugu. Hizkuntza ikasteko 525 eta 750 ordu eman izana hartzen du barne. Ziurtagiriak honako hau adierazten du: ikaslea gai dela informazio garrantzitsua ateratzeko, mezu osoak ulertzeko eta elkarrizketak edo diskurtso zientifikoak konprenitzeko. Gainditzeko, berariazko ikastaro trinkoa egitea gomendatzen da.

- **Goethe Zertifikat (C1)** delakoak alemana 600 eta 750 ikasi izana hartzen du barne. Zera egiaztatzen du: ikaslea gai dela testu espezializatuak ahaleginik gabe uler ditzakeela. Era berean, gai dela ahoz bat-batean eta erraztasunez adierazteko eta pentsamenduak eta iritziak zehaztasunez emateko.
- **ZOP o Zentrale Oberstufenprüfung (C2)** delakoak honako hau adierazten du: 750 eta 900 bitarteko ordu-kopurua eman dela alemana ikasten. Ikasleak alemanez irakurtzen eta entzuten duen guztia esfortzurik gabe ulertzen duela egiaztatzen du.
- **KDS o Kleines Deutsches Sprachdiplom** delakoak ZOP-ren baldintza berberak ditu, baina bideratuago dago literaturara. Azterketa hauek maiatzean eta azaroan izan ohi dira.
- **GDS o Grobes Deutsches Sprachdiplom** delakoak alemaneko 900 ikastordu hartzen ditu barne. Ziurtagiri honen bitartez, zera egiaztatzen da: ikasleak ezagutza bikainak dituela alemanez eta gai dela testu literarioak eta zientifikoak aztertzekeo.

Azterketak maiatzean eta azaroan izan ohi dira.

Alemaniko unibertsitate batean ikasteko, **Unibertsitatean sartzeko Alemaneko Azterketa (DSH)** egitea eskatzen da. Ziurtagiri hori eskuratzeko probek ahozko atala eta idatzizkoa dute. Idatzizko atalak zati hauek ditu: entzumena, idatzizko ulermena eta testu bat idaztea. Unibertsitate bakoitzak bere DSH azterketa prestatzen du, baina Alemania osorako arauen mende daude denak.

Azterketa hori gainditzeko, ahozko eta idatzizko probaren bi heren gainditu behar dira. Ikasle bakoitzak bi bider baino ezin du azterketa hau egin, beraz, gomendagarria da Alemaniako goi-mailako irakaskuntza-erakundeek antolatutako prestakuntza-ikastaroa egitea. Ikastaro hori doakoa da ia, ikasleak izena emateko kuota txiki bat baino ez baitu ordaintzen.

7.1. E. Italiara. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

Hainbat dira italiararen ziurtagiriak ematen dituzten **erakundeak**:

- **Dante Alighieri italiar hizkuntzaren proiektua (PLIDA)**

1889an sortu zen **Dante Alighieri erakundea**. Berak ematen du PLIDA ziurtagiria (Progetto Lingua Italiana Dante Alighieri), italiar hizkuntzaren gaitasuna egiaztatzeko titulu ofiziala. PLIDA ziurtagiria Lan eta Gizarte Politiken Ministerioak onartuta dago. Europako Kontseiluak ezarritako sei mailen eskalari egokitzen zaio ziurtagiri hau, italiararen gaitasuna atzerriko hizkuntza gisa egiaztatzen duena. PLIDAREN A1 maila bat dator Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailarekin. Eta mailaz mailako baliokidetasunak ezartzen dira: goren PLIDA C2 da, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C2ri dagokiona.

Horretaz gainera, PLIDAK bi ziurtagiri berezi ematen ditu:

- **PLIDA JUNIORES**, deritzona, 13 eta 18 urte bitarteko gazteei begirakoa. Gazteek eurek ezagunak dituzten testuingurutan oinarrituta dago (eskola, kirola, aisia, eta abar). A1etik C1era.
- **PLIDA COMMERCIALE**, merkataritza-gaien inguruan italiara darabilenari egokitutakoa. Esparru Bateratuaurreikusitako hiru mailen gaitasuna dago aurreikusita: B1, B2 eta C1.

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen: www.ladante.it

- **Perugiako Unibertsitateko azterketak (CELI)**

Universita per Stranieri di Perugia erakundeak atzerritarrei zenbait test eta azterketa-mota eskaintzen dizkie, ikastea eta lana ezaugarritzat dauzkan testuinguru bateko hautagaien italiararen gaitasuna ziurtatzen duena. Ministero della Pubblica Istruzione erakundeak onartuta daude ziurtagiri hauetako batzuk, eta Italiako unibertsitateetan sarrera egiteko balio dute (CELI 3), edo italiara irakasteko estatuaren mendeko eskola eta institutuetan (CELI 5).

Europako Erreferentzia Esparru Bateratua oinarritzen dira, eta bost mailek badute parekotasuna: CELI 1ek A2rekikoa, CELI 2k B1ekikoa, CELI 3k B2rekikoa, CELI 4k C1ekikoa eta CELI 5ek C2rekikoa.

Merkataritza arloko Italiararen ezagutza-ziurtagiriak (CIC). Hauek ere Europako Erreferentzia Esparru Bateratua dute oinarria, eta langai dute enpresen eta negozioen testuingurua. Bi maila bereizten dira CIC ziurtagirietan: CIC1 (B1) eta CIC2 (C1).

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen: www.cvcl.it

- **Italiako Hizkuntza Akademiaren azterketak**

Italiako Hizkuntza Akademia (AIL) elkargo profesionala da, italiara atzerriko hizkuntza gisa, eskola, erakunde eta irakaskuntzako adituak biltzen dituena.

Hona hemen banatzen dituzten diplomak:

- **DELI** edo **Diploma Elementare di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan A2.
- **DILI** edo **Diploma Intermedio di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B1 eta B2.
- **DALI** edo **Diploma Avanzado di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan C1 eta C2.
- **DILC** eta **DALC** edo **Diploma Commerciale di Lingua Italiana** Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B1 eta C1

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen: www.acad.it.

7.1. F. Portugesa. Ziurtagiriak, azterketak eta ikastaroak

1999an ezarri zen **Portugesa Atzerritar Hizkuntzatat kalifikatzeko sistema (PLE)**. Camões Institutuaren, Portugalgo Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eta Lisboako Unibertsitatearen akordioaren ondorengoa izan zen. Sistema horrek ahalbidetzen du PLE delakoak ezarritako bost mailak garatzea, aintzatestea eta kudeatzea.

- **CIPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatat: Hasierako Ziurtagiria, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan A2.
- **DEPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatat: Oinarrizko Diploma, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B1.
- **DIPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatat: Diploma Ertaina, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan B2.
- **DAPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatat: Diploma Aurreratua, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan C1.
- **DUPLE**, Portugesa Atzerritar Hizkuntzatat: Unibertsitate Diploma, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan C2.

Kontsultatu datak, azterketa-motak eta azterketa-tokiak hemen:

<http://ciple.letras.ulisboa.pt/>

7.2. BALIABIDEAK

7.2. A. Online hiztegiak eta itzultzaileak

- **Word Reference**

WordReferencek doako online hiztegiak eskaintzen ditu. Gaztelaniarako honako hiztegi hauek ditu: hiztegi elebakarra, gaztelaniatik ingeleserako, frantseserako eta portugueserako hiztegiak, eta sinonimo eta antonimoen hiztegia. Nabarmentzekoa da argota, esaerak eta abar itzultzeko foroak ere eskaintzen dituela.

www.wordreference.com

- **Yourdictionary.Com**

Zenbait diziplinatako hiztegiekiko ezinbesteko lotura. Besteak beste, gramatika bat eta itzultzeko zenbait tresna aurkituko dituzu, balio handikoak.

www.yourdictionary.com/ [EN]

- **Free Translator**

Sarean eskuragarri dauden doako hiztegi-ikastaroen, itzultzeko tresnen eta hiztegien aukera. Erraz erabiltzen da, eta 40 hizkuntza baino gehiago biltzen ditu.

www.free-translator.com [EN]

- **Reverso**

Aditz-jokagailua, itzultzailea, hiztegia eta gramatika-nozioak.

http://www.reverso.net/text_translation.aspx?lang=EN

- **Linguee**

Hizkuntza anitzeko hiztegia eta beste pertsona batzuek egindako milioika itzulpenetarako sarbidea duen bilatzailea. Hizkuntzak: gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana eta portugesa.

<http://www.linguee.es/>

- **Verbix**

100 hizkuntza baino gehiagoren aditz guztiak jokatuta eta mundu zabalean hitz egiten diren hizkuntzen gaineko informazio baliagarria.

www.verbix.com [EN]

- **Microsoft Office**

Microsoft Office 2003 aplikazioak eta ondorengo bertsioek eskaintzen dituzte, batetik, itzulpen-zerbitzuak, tokiko edo lineako hiztegi elebidunak erabiltzen dituztenak, eta, bestetik, itzulpen automatikoa webgunearen bitartez. Erreferentzia ezaugarri berriari

jarraiki, sakatu ALT eta klik egin dokumentuaren hitz batean, eta itzulpena berehala ageriko da “Erreferentzia” izeneko zeregin-panelean.

- **Google Translate**

Googlek itzultzeko doako aplikazioak biltzen ditu: Google Translate testu laburrak itzultzeko, itzulpen automatikoa Gmail mezuetarako. Google Chrome nabigatzaileak itzulpen automatikoa biltzen du; Google barrak hitzez hitzeko itzulpena eskaintzen du; mugikorretarako Android aplikazioak, berri, elkarrizketarako eta bidaiarako gidak ditu.

<https://translate.google.es/>

- **Worldlingo**

Webgune honek, esaldiak eta testuak itzultzeaz aparte, webguneak eta dokumentuak ere itzultzen ditu, kalitate onez.

www.worldlingo.com

7.2. B. Autoebaluazio probak

- **CUID. Urrutiko Hizkuntzen Unibertsitate Zentroa (DIALANG)**

Elkarte hau 1994. urtean sortu zen au pair lanetan aritzen diren pertsonak babesteko. *Au pairrei* herrialdeari buruzko informazioa ematen die; au pair zerbitzuen kudeaketarekin loturiko enpresa eta agentziak biltzen ditu eta laguntza praktikoa bermatzen du.

www.iapa.org/ [EN]

- **Au pair World**

Au pair moduko enpleguari buruzko datu-base ezagunena da Interneten. Au pairrak eta harrera-familiak doan erregistra daitezke. Erregistratu ostean, zuk nahi duzun au pairrarekin eta familiarekin zuzenean harremanetan jar zaitezke munduko edozein txokotan.

<http://www.aupair-world.net/>

- **Au pair Box**

Ezin errazagoa! Bete ezazu «eskaintzak» edo «eskaerak» inprimakia eta bidali Internet bidez. Era berean, Txat bat eta foro bat ere baditu, esperientziak elkartrukatzeko.

www.au-pair-box.com

- **Find au pair**

Mundu osoan komenigarrienak diren au pairrak eta familiak aurkitzeko atari bat. Etabaida-foroa, bisatuei buruzko informazioa eta ohiko galderak.

www.findaupair.com [EN]

- **Planet au pair**

1992an sortua, 'au pair' programa baten bitartez Espainian, Frantzia, Alemanian, Austrian, Italian, Ingalaterran, Irlandan, Eskozian edo AEBetan bizitzeko aukera ematen die gazteei Planet Au Pair agentziak.

www.planetaupair.com

- **Europortunidades**

Webgune honek informazioa eta aholkuak eskaintzen ditu, bai eta agentzien zerrenda bat ere, bai jarduera herrialde bakarrean garatzen dutenena, herrialdez herrialde sailkatua, bai mundu osoan dihardutenena.

<http://www.ingalicia.org/2013/12/irse-de-au-pair-como-y-donde-buscar/>

- **Au Pair elkarteak**

- RC Aupairs: <http://www.rcaupairs.com/>
- International Au Pairs: <http://www.languageabroad.info/>
- Au Pair in Spain: <http://www.aupairinspain.es/>

- **Erresuma Batuan eta Irlandan 'au pair' gisa lan egiteko agentzien zerrenda**

Kangarooaupair

Easyaupair

Aupairnet24

Learn4good

Aupair-village

Findababysitter [EN]

Care [EN]

Greataupair [EN]

Nanny-agency [EN]

Find a babysitter [EN]

Sittercity [EN]

Meetaupairs [EN]

Childcare [EN]

Universalaupairs [EN]

<http://www.bapaa.org.uk/displaypage.asp?page=1> [EN]



9. BOLUNTARIO LANA

9.1. Nazioarteko boluntarioak	196
9.1.A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa	197
9.1.B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak	198
9.2. Europako Boluntario Zerbitzua (EVS)	201
9.2.A. Europako Boluntario Zerbitzuak Euskadin dituen erakundeak	202
9.2.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak	203
9.3. Auzolandegiak	204
9.3.A. Auzolandegiekin loturiko baliabideak	205
9.4. Gazte trukeak	206
9.4.A. Baliabideak	207

Besteei laguntzeaz batera, ez daukazun gaitasunak eskuratu nahi dituzu? Boluntario-lanak bestelako jendea eta kulturak ezagutzeko aukera emango dizu, eta zure bizitzan eta zure etorkizuneko lan-ibiltzian eragin itzela izango duen esperientzia biziko duzu. Boluntario-lanean beste herrialde batera joan ahal zara edo zure etxetik gertuago lankidetzan aritu. Jarraian datozen orrialde hauek Europan eta munduan eskura duzun aukera zabalaren berri emango dizute.

- Nazioartean boluntario ibiltzea alde aurretik planifikatu behar da eta hainbat baliabide eskura izan. Irakurri arretaz atal hau, edozertan hasi baino lehen.
- Interesa baduzu, baina aurreneko aldia bada, erabili Eusko Jaurlaritzak eskainitako baliabideak (Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa eta Auzolandegiak).
- Europako Boluntario Zerbitzua aukera interesgarria da: ez dakar kosturik eta gaikako lanketak proposatzen ditu.
- Oraindik ere zalantzarik? Kontsultatu Gazteaukeran hurbil dituzun kolektiboak eta baliabideak, hautu onena egiten lagunduko dizute eta.

9

BOLUNTARIO LANA

9.1. NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK

Nazioarteko Boluntario Zerbitzua aurreko mendean sortu zen, 1920. urtean, eta hainbat esparrutako ekintzak biltzen ditu, hala nola hezkuntza-alorreko lankidetzak, boluntarioak larrialdi eta katastrofe humanitarioetan, prebentzioa eta landa-garapena.

Europako Boluntario Zerbitzuak baino perspektiba zabalagoa du.

Prozesuan **hiru parte-hartzaile** nagusi daude: **boluntarioa**, erakunde igorlea eta erakunde hartzailea. Kontuan izan behar da erakunde igorlerik ez dela beti izaten.

Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek ostatua eta otorduak eskaintzen dizkiete gazteei berariazko programetan laguntzako eta lankidetzako lanak egitearen truke. Oporrak edo gure bizitzako aldi bat igarotzeko beste modu bat da; beste hizkuntza eta/edo kultura bat ezagutzeaz gain, interes sozial, kultural edo humanitarioko proiektu batean lagun dezakegu. Erakunde bat edo beste aukeratzeko garaian, hainbat faktore izan behar dira kontuan: zer alorretan lan egin nahi dugun, non egin behar diren boluntario-lanak, zenbat denbora dugun eta gure berariazko prestakuntza.

9.1. A. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bazara, 20-31 urte badituzu eta jarduera gauzatuko den herrialdeko nazioarteko hizkuntza baldin badakizu, programa honen bidez boluntario-zerbitzua eskain dezakezu Amerikako, Afrikako edo Asiako herrialdeetan, hiru hilabetez.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatzen dute programa hau, Euskadiko gazteak sensibilizatzeko Hegoaldeko herrialdeen garapenari laguntzeko lankidetzak-ekintzen bidez eta EAEko gazteengan herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzeko.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa: Informazio gehiago Gazteukera webgunean:

www.gazteukera.euskadi.net/r58-6525/es/contenidos/informacion/jov_coop_1programa/es_13753/programa.html

9.1. B. Nazioarteko boluntarioentzako baliabideak

Zerrenda honetan, boluntarioen programak dituzten **erakundeei buruzko informazioa** aurkeztuko dugu:

- **Volunteers for peace**

Bakearen aldeko ekimenetan eta laguntza humanitaria ematen nazioartean lan egiteko boluntarioak.

www.vfp.org/ [EN]

- **World volunteer**

Mundu osoko boluntarioen lanerako baliabideak biltzen dituen webgunea.

www.worldvolunteerweb.org/ [EN]

- **Boluntario programen nazioarteko elkarteak**

Kontsulta itzazu online aukera guztiak eta irakurri informazio praktikoa, baita, oro har, boluntarioen lanari buruzko zenbait gomendio ere. Bi hilean behin buletina kaleratzen dute, eta harpidetza egin daiteke.

www.volunteerinternational.org/ [EN]

- **Global volunteer network**

Libre dauden boluntario-postuei buruzko informazioa, Txina, Ekuador, Ghana, Nepal, Errumania, Errusia, Thailandia eta Ugandako erakunde kideen bitartez. Hautagai izan nahi baduzu, online formularioa bete dezakezu. Eta ez ahaztu argazkiak begiratzea!

<http://www.globalvolunteernetwork.org/> [EN]

- **OXFAM**

Oxfam International erakundearen edo bere erakunde elkarturen baten boluntario-zerbitzuaren jardueretan parte hartzeko moduari buruzko informazio praktikoa.

<http://www.oxfam.org/en/countries/volunteer-us>

- **Nazioarteko zerbitzu zibila**

Boluntarioen proiektuak, epe labur eta luzekoak, mundu osoan; horrelako proiektuak gauzatzen dituzten erakundeei buruzko informazioa eta beste hamaika lotura eta dokumentu baliagarri.

www.sciint.org [EN]

- **Boluntarioak atzerrian**

Boluntario-zerbitzua interesatzen al zaizu? Webgune honetan boluntarioen lanari buruzko informazioa aurkituko duzu, baita nondik hasi behar duzun ere. Beste webgune baliagarri batzuekiko loturak ere baditu.

<http://www.goabroad.com/volunteer-abroad> [EN]

- **Rural volunteers**

Ingurumenaren arloko boluntario-lana egin nahi duzu, nagusiki metodo ekologiko eta iraunkorrekin lan egiten duten landetxeetan edo herrixketan? Orduan, WWOOF da zure elkarte. Bilaka zaitetz WWOOFER eta parte hartu esperientzia honetan, mundu osoko landetxeetan.

<http://ruralvolunteers.org/WHOSTS/> <http://wwoofinternational.org/>

- **Volunteer Action for Peace (VAP)**

Volunteer Action for Peace Erresuma Batuko ongintza-erakundea da, nazioarteko bakea, justizia eta gizakien arteko elkartasuna eraikitzearen eta horiei eustearen alde lan egiten duena, bai pertsonentzat, bai euren komunitateentzat. Proiektuak garatzen ditu mundu osoan.

<http://www.vap.org.uk/>

- **Lagundu etxetik**

Webgune honek etxetik mikroboluntario-lana egiteko aukera ematen dizu, hau da, astialdiaren zati bat kausa handietan eta etxetik laguntzeko erabiltzeko. Proposamen interesgarria. Mikroesfortzua, makroinpaktua.

<http://helpfromhome.org/>

- **Workingabroad**

Erakunde independentea, mundu osoan boluntario aritzeko aukera ematen duena. Hautagai izateko formularioa online bete dezakezu eta boluntarioen esperientziak ere irakur ditzakezu.

www.workingabroad.com [EN][FR]

- **Youth challenge international**

Erronkak gustuko dituzu? Bizi ezazu esperientzia hau 18-30 urteko boluntario-taldeekin batera, tokiko garapenaren, arreta sanitarioaren eta ingurumenaren esparruetan.

www.yci.org [EN]

- **British trust for conservation volunteers**

Fundazio honek ingurumena babestearekin loturiko boluntario-lanak sustatzen ditu.
www.tcv.org.uk/ [EN]

- **Community service volunteers**

Erresuma Batuko boluntario-lanari buruzko informazioa eskaintzen du.
www.csv.org.uk [EN]

- **Cross-cultural solutions**

Boluntario-programa hauek osasunarekin, hezkuntzarekin eta garapenarekin loturik daude, garapen-bidean dauden herrialdeetan. Asiako, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako hainbat eremutan dituzte programak.
www.crossculturalsolutions.org/ [EN]

- **Do it**

Britainia Handiko boluntario-erakundea; 40 urtetik gorako esperientzia du. Erresuma Batuko boluntario-lanari buruzko datu-basea eskaintzen du.
<https://do-it.org/> [EN]

- **Educo**

Proiektu humanitarioak Asian, Afrikan eta Latinoamerikan. Boluntarioen poltsa dauka.
<http://www.educo.org/>

- **I-TO-I**

Boluntario-lanak hamaika herrialdetan eta ingeles-irakasle izateko prestakuntza.
www.i-to-i.com/ [EN]

- **Kibbutz Volunteer**

Israelgo kibbutz batean boluntario jarduteko gomendioak eta informazioa.
www.kibbutzprogramcenter.org/ [EN]

- **Teaching & Projects Abroad**

Irakaskuntzako eta boluntarioen proiektuak mundu osoko hoge herrialdetan.
www.teachingabroaddirect.co.uk/ [EN]

- **United Nations Volunteers**

Nazio Batuen boluntario-laneko programa.
www.unv.org/

- **Boluntario-lanak Erresuma Batuan egiteko asmorik?**

Charityjob.com

Charitypeople.co.uk

Volunteering.org.uk

Voluntaryworks.org.uk

Wrvs.org.uk

Idealist.org

Handsupholidays.com

Keenlondon

Timebank

Redcross

Nationaltrust

9.2. EUROPAKO BOLUNTARIO ZERBITZUA (EVS)

ERASMUS+ egitasmoaren ekintzetako bat Europako Boluntario Zerbitzua da, eta 17-30 urteko gazteei zuzenduta dago; gazte horiek 2 hilabetetik 12 hilabetera bitarteko aldian boluntario-lanak egiteko aukera izaten dute, askotariko jardueratarretan: gizarte-alorra, ingurumena, kultura, kirola, artea..., betiere boluntarioaren jatorrizko herrialdea ez den beste batean.

Ahalegin bereziak egiten dira, baita pizgarriak eman ere, egoera ahuleko gazteek, baita gaigabetasunak dituztenek ere EVSn modu aktiboan parte har dezaten 16 urtetik aurrera.

Nola parte hartu Europako Boluntario Zerbitzuan?

Datu-base batean, harrerako erakunde guztiak eta garatzen dituzten proiektuak biltzen dira, baita gertuen dauden erakunde igoerleak ere. Erabil ezazu datu-basea zure intereseko proiektu bat bilatzeko; jarri harremanetan zure gertuko elkarte batekin eta haiek bideratuko dizute guztia.

http://europa.eu/youth/evs_database_es

Hona hemen EVSen helburuak:

- Kultura-arteko ikaskuntza-esperientzia ez-formal berria eskaintzea, gazteen gizarteratzea eta laneratzea sustatuz eta besteekiko jarduera solidarioetan modu aktiboan parte har dezaten bultzatuz.
- Tokiko komunitatearen garapenari laguntzea.
- Hainbat herrialdetako erakundeen artean esperientziak elkartrukatu eta lotura berriak egin daitezen indartzea.

Proiektua lankidetzan oinarritzen da; hain zuzen ere, **elkartutako hiru aldeen gizarte-lankidetzan**: boluntarioa, erakunde igorlea eta erakunde hartzailea.

Boluntarioak gastu guztiak ordainduak izaten ditu: bidaia, ostatua eta mantenua, aseguruua eta diru xehea. EVS proiektuen bidez ez dira lanpostuak betetzen; ordainsaririk gabeko jarduera boluntarioak dira.

Erakunde igorleak honako konpromiso hauek hartzen ditu: boluntarioari nazioarteko bidaia bideratzeko, aseguruua kudeatzeko eta abiatu aurretik prestakuntza eskaintzeko konpromisoa.

Erakunde hartzaileak honako konpromiso hauek hartzen ditu: boluntarioari etengabe laguntza emango dion tutore bat eskaintzeko konpromisoa; boluntarioa proiektuko jardueretan txertatzeko eta prestakuntza emateko konpromisoa; jarraipena eta tutoretza egiteko konpromisoa; ostatua, mantenua eta diru xehea emateko konpromisoa; eta proiektua gauzatzen den tokiko ingurunean boluntarioa integratzeko konpromisoa, hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen alorretan.

9.2.A. Europako Boluntario Zerbitzuak Euskadin dituen erakundeak

Boluntarioen proiektu batean parte hartu nahi baduzu, jo ezazu Euskadin egiaztatutako erakunde igorle edo hartzailearen batera. Gaur egun Euskadin Europako Boluntario Zerbitzuan parte hartzen ari diren erakunde igorle nahiz hartzaile egiaztatuen zerrenda aurki dezakezu **Gazteaukeran**, bai eta partaideen esperientziak eta argazkiak ere.

www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/es/contenidos/informacion/prog_juve_vol/es_9470/prog_juv_vol_c.html

http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-5072/es/contenidos/informacion/prog_europeos_proyectos/es_9054/programa_juventud_proyectos.html

9.2.B. Europako boluntarioekin loturiko baliabideak

• EVS: Informazio gehiago eta hautagai izateko formularioak

Xehetasun gehiago aurkituko dituzu gazteria-programaren Europako Boluntario Zerbitzuaren proiektuari buruz: proiektuaren deskribapenak, norke parte har dezakeen eta nola parte hartu.

Boluntario nahiz erakunde hartzaile izan, EVSen programa batean parte hartzeko eskaera aurkezteko nahitaez bete beharreko formularioak aurkituko dituzu (PDF edo WORD formatuan)

http://ec.europa.eu/youth/programme/mobility/youth_people_en.htm [EN]

• Europako boluntario ohien espainiako sarea (REVE)

REVE kultura-arloko irabazi-asmorik gabeko elkarteak da eta Europako Boluntario Zerbitzuaren barruko zerbitzua amaitu duten gazteei eta Europako gazte-programen barruko jardueretan parte hartu nahi dutenei laguntza eta orientazioa ematen die.

www.ex-evs.es/

• Zerbitzu boluntarioaren europako erakundeen elkarteak

Elkarte honetan biltzen dira zerbitzu boluntarioaren nazioarteko proiektuak gauzatzen dituzten erakunde nazionalak. Webguneak sarearen aurkezpen zehaztua eskaintzen du, baita kideen zerrenda bat ere.

https://www.facebook.com/alliancenenetwork/info?tab=page_info [EN]

• Zerbitzu boluntarioaren erakundeen elkarteak

Atzerrian boluntario-jarduera egin nahi baduzu, webgune honek informazioa eskainiko dizu Europan zerbitzu boluntarioko programekin lan egiten duten erakunde kide guztiei buruz.

www.avso.org [EN]

• Gazteen europako ataria

Europako Boluntario Zerbitzuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, atari hau bisitatzea gomendatzen dizugu.

http://europa.eu/youth/splash_en

9.3. AUZOLANDEGIAK

Auzolandegia zera da, **arrazaz, kultura, ideologia eta nazionalitate guztietako pertsonak elkarrekin bizi eta lan egiten duten toki bat**; 10 egunetik hilabete batera bitarte irauten du proiektuak eta tokiko babesle batek antolatzen du. Auzolandegi gehienak udan izaten dira eta 7 parte-hartzailetik 25 parte-hartzaileera bitarte izaten dituzte, nazioartekoak.

Auzolandegietan jende askoren energiak uztartu eta elkarrekin gure etorkizun komuneko arazo garrantzitsuak konpontzen dira. Pariseko haurrentzako zentro batean lan egin dezakezu, Austriako garapen iraunkorreko proiektu batean eta abar.

Proiektuak hiru kategoriatan sailkatzen dira:

- lan fisikoa: eraikuntza, konponketak edo haztegiak;
- gizarte-lana: haurrekin edo arazoak dituen jendearrekin; eta
- lana eta ikasketak: lan egitearekin batera ikasi ere egiten da.

Eta hainbat modalitate ere badira, nazioartean erabiltzen den kodearen arabera.

- AGRI - Nekazaritza
- ART - Auzolandegi artistikoak
- CONS - Eraikuntza
- CULT - Kultura
- ENVI - Ingurumena
- FEST - Jaia
- HIST-STUDI – Historia eta ikasketak
- KIDS - Umeekin lan egitea
- MANU - Eskuz egin beharreko lanak
- RENO - Zaharberritzea
- RENO-HERI-RESTORATION – Kultura edo ondarea
- SOCI - Gizarte-proiektua
- WORK & STUDY – lana – ikasketak / Eztabaidak / Ikerketa

9.3.A. Auzolandegiekin loturiko baliabideak

- **AUZOLANDEGIAK Euskadin**

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak Euskadiko gazteentzat auzolandegiak antolatzen ditu atzerrian. Gazteak webgunean izango duzu plazei eta baldintzei buruzko informazioa, baita jendearen esperientziak ere.

www.gazteakera.euskadi.net/r58-3412/es/contenidos/informacion/campos_trabajo_informacion/es_7496/campos_trabajo_informacion.html

- **Nazioarteko zerbitzu zibila**

Boluntario-zerbitzuko erakundea; mundu osoan 37 adar eta talde ditu eta iraupen laburreko auzolandegien antolaketa zuzentzen du. Auzolandegiei buruzko informazio orokorra eta joan aurretik prestatzeko gomendioak. Auzolandegiak bilatzeko, herrialdearen arabera edo gaiaren arabera egin daiteke.

www.ongsci.org

- **Concordia**

Erakunde honek Europan, Afrikan, Asian eta Latinoamerikan auzolandegiak finkatzen eta babesten ditu. Auzolandegiei buruzko informazioa eta, joan aurretik, nola funtzionatzen duten hobeto ezagutzeko eta prestatzeko gomendioak.

www.concordia-association.org/index.php [FR]

- **Nazioarteko trukerako ongintzako erakundea**

Nazioarteko erakunde honek Alemanian, Latinoamerikan eta Suitzan ditu auzolandegiak. Programei buruzko informazio orokorra ematen du eta auzolandegi batean aurki daitekeenaren gaineko gomendioak ere bai. Informazioaren zati bat ingelesez aurki daiteke.

www.ibg-workcamps.org [DE] [EN]

- **Pro International**

Alemanio erakunde honek mundu osoko auzolandegietan jarduten du. Proiektuen deskribapena egiten da webgunean eta hautagai izateko formulario bat ere aurki daiteke, parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko datuekin batera. Informazioaren zati bat ingelesez ere aurki daiteke (programa PDF formatuan).

www.pro-international.de [DE]

- **Nazioarteko boluntario zerbitzua**

Udako kanpamendu batean parte hartzeko aukera izango duzu Europan, Ipar Amerikan edo Afrikako iparraldeko herrialdeetan, mundu osoko jendea ezagutzuz. Proposatzen

dituzten jardueren artean, bakearen aldeko eta arrazakeriaren aurkakoak nabarmen ditzakegu. Egonaldiak iraupen labur, ertain edo luzekoak izan daitezke. 18 urtetik gorakoek baino ezin dute parte hartu.

www.ivs-gb.org.uk [EN]

- **Gaszte boluntarioen nazioarteko zerbitzu komunitarioak**

Alemanian eta Europako gainerako herrialdeetan antolatzen diren iraupen laburreko auzolandegiei buruzko informazioa, baita Afrikan, Asiako hegoaldean eta Latinoamerikan egiten diren auzolandegi luzeei buruz ere. Programen eta proiektuen deskribapena eta eskaera aurkezteko eta prestatzeko gomendioak. Informazioaren zati bat ingelesez aurki daiteke.

www.ijgd.de [DE] [EN]

- **Gaszteen elkartasuna: nazioarteko auzolandegiak**

Frantziako Gaszte eta Kirol Ministerioaren esparruan, elkarte honek nazioarteko auzolandegiak antolatzen laguntzen du. Auzolandegiei buruzko informazio orokorra.

www.solidaritesjeunesses.org/?section=1 [EN] [FR]

- **Kings camp**

Gaszteei euren gaitasunak kirolaren bitartez garatzen laguntzen dien ongintza-fundazio batean dago Kings Camps. Bere kanpamentuetan diruz lagundutako plazak eskaintzen dituen GKE bat da.

<http://www.kingscamps.org/>

9.4. GAZTE TRUKEAK

Truke-programei esker, beste herrialde bateko **familia batera joateko aukera** izango duzu aldi baterako; familia aldez aurretik hautatzen da eta horrekin batera, **ikastetxe batera ere joango zara**, edo bestela, ikasturtea atzerrian egin dezakezu **harrera-familia batean**.

Familiek kultura-trukean parte har dezakete etxetik atera ere egin gabe. Nazioarteko parte-hartzaile bat hartuz gero, familia osoak izango du kultura-arteko esperientzia paregabe eta aberasgarria bizitzeko aukera. Irakatsiz, ikasiz eta konpartituz, denbora eta distantzia gaitutuko dituen adiskidetasuna eta lotura sortuko da.



Oharra: ERASMUS+ programaren barruan, Europar Batasunak taldeko gazte-trukeak finantzatzen ditu. Informazio gehiago nahi izanez gero, ERASMUS+ egitasmoari buruzko 6. atalean aurkituko duzu.

9.4.A. Baliabideak

- **Ikasi eta esperimentatu beste kultura batzuk**

AFS boluntarioen erakundea da, irabazi-asmorik gabekoa. Webgunean programak aurki daitezke, gazte parte-hartzaileen eta nazioarteko ikasle gazteak hartu nahi dituzten familien artean kultura-arteko ikaskuntza sustatzeko programak, hain zuzen.

www.afs-intercultura.org

- **Youth for understanding (nazioarteko ikasle trukea)**

Urtebete edo uda bat atzerriko familia gonbidatzaile batekin bizitzen igarotzeko aukerak aurkituko dituzu. Hautatu zure jatorrizko herrialdea eta parte hartzeko moduari buruzko informazioa lortuko duzu.

www.yfu.org

- **Gazteak bakearen alde ekinean (Youth Action for Peace – YAP)**

Webgune honetan, mundu osoko boluntarioen trukeetan parte hartzen eta nazioarteko gazte-mugimenduekin lan egiten duten erakundeen lotura interesgarriak aurkituko dituzu.

www.yap.it [EN]

- **Lions Club**

Erakunde honek 15-21 urteko gazteen arteko trukeak antolatzen ditu, lau astetik sei astera bitarteko aldiatarako. Nazioarteko harremanen eta zonen arabera trukeen arduradunekin harremanetan jartzeko informazioa aurkituko duzu. Informazioaren zati bat beste hizkuntza batzuetan ere aurki dezakezu; web-orri nagusian egin behar da hautaketa.

www.lionsclubs.org/EN/index.php [EN]

- **Gazteen nazioarteko truke erakundea**

Erakunde honek mugikortasuna, nazioarteko ikaskuntza eta Nazioarteko Boluntario Zerbitzua sustatzen ditu. Hautagai izateko eskaerak aurkezteko eta herrialde elkartuei buruzko informazioa.

www.icye.org [EN]



10. CURRICULUM VITAE-A ETA, EUROPASS

10.1. Curriculum vitae-a eta aurkezpen gutuna	209
10.2. EUROPASS	210
10.2.A. Europass curriculum vitae-a (Europass cv -a)	212
10.2.B. Gaitasunen pasaporte europarra	213
10.2.C. Europass hizkuntza pasaportea	213
10.2.D. Europass mugikortasun dokumentua	213
10.2.E. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria	214
10.2.F. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria	215
10.2.G. Europass agiri berriak	216
10.3. YOUTHPASS	217

LABURPENA

Prestakuntza eta enplegua gogoan, Curriculum Vitae-a berebiziko garrantzia daukan tresna da. Gida honek Europass agiriak eta lagungarri izango zaizkizun baliabide guztiak gomendatuko dizkizu. Horrela zure oinarrizko gaitasunak eta lanari dagozkionak islatu ahal izango dituzu.

- SEPEren aholkuei jarraitu zure CV-a eta herrialdez herrialdeko aurkezpen-gutuna moldatzeko.
- Europass CV agiria prestatzeko egin kasu aholku praktikoei.
- Eskatu garaiz tituluen osagarriak. Laguntza handia emango dizute mugitzeko edo bidaiatzeko asmotan bazabiltza.
- Baliabide eta agiri berriak sortu dituzte, *Arrazoiak agertzeko gutuna edo IKT gaitasunak* direlakoak kasu. Europass agiriak baliabide asko eskaintzen dituzte; hortaz, baliatu itzazu.

10 CURRICULUM VITAE-A ETA, EUROPASS

10.1. CURRICULUM VITAE-A ETA AURKEZPEN GUTUNA

Curriculum vitae, enplegu bat lortzeko gure “bisita-txartela” da. Hortaz, dokumentu labor batean, **nor zaren eta zer lanbide-ibilbide egin duzun eta egin nahi duzun adierazten ahalegindu behar duzu**. Europar ereduak curriculum egituratzeko egokiena, baina originala izaten eta zure nortasuna erakusten ahalegindu behar duzu, enplegu-emaileak irudika dezan lerro horiek idatzi dituen pertsona.

Aurkezpen-gutuna curriculum vitaearekin batera doan dokumentua da, norberak bere burua aurkezteko. Agurretik interesa piztu behar duzu zure hautagaitza jaso behar duen pertsonarengan, **zure curriculumaren ezaugarri pertsonal edo profesional nagusiak nabarmenduz eta enpresak eskatutako profilarekin bat etorritik**.

Testu laburra eta zuzena behar du aurkezpen-gutunak, idatzi duenak ideiak garbi

dauzkala adierazten duena eta enplegu-emailea zure curriculuma irakurtzera eta jarraian zu ezagutzera bultzatzeko gauza.

Curriculum vitaeak eta aurkezpen-gutunak egiteko moduari buruz dokumentu ugari daude eskuragarri. Zure europar curriculum vitae-a egiteko asmoa baduzu, gida honetan balio handiko baliabide bat jarri dugu zure eskura.

Gida honetan balio handiko baliabide bat jarri dugu zure eskura: Europako curriculum vitae-a.

• Curriculum vitae -a eta aurkezpen gutuna herrialdeen arabera

SEPE Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak informazioa eskaintzen du EBko zenbait herrialdetan curriculum vitae-a eta aurkezpen-gutuna egiteko jarraibide orokorren inguruan, eta CVen eta aurkezpen-gutunak zenbait eredu ere aurkezten dizkizu, dagozkien hizkuntzetan. Laguntza handikoak izango dira zuretzat, berariazko ezaugarrien berri ematen dizutelako, herrialdearen arabera.

http://www.sepe.es/contenidos/personas/encontrar_empleo/ayudamos_buscar_empleo.html

• Tituluen aintzatespena

Zure CVa idaztean, kontuan hartu kualifikazioen eta tituluen aintzatespenari buruzko informazioa jaso behar duzula. Hau da, harrerako herrialdean zure lanbidea arautua dagoen jakin behar duzu, baita zure titulazioak bertan zer balio duen jakin ere. Horretarako, jar zaitez harremanetan Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioarekin edo NARIC sarearekin, eta bertako arduradunek informazioa emango dizute EBko estatu kide guztietako aintzatespen akademiko eta profesionalaren inguruan:

www.enic-naric.net/



OHARRA: Gidaren 4. atalean, EBn ikasteari buruzkoan, informazio gehiago aurki dezakezu tituluak baliozkotzeko moduari dagokionez.

10.2. EUROPASS

Beste herrialde batean hezkuntza- edo prestakuntza-programa batean matrikulatzeko, enplegua bilatzeko edo atzerrian lan-esperientzia bat edukitzeko asmoa baduzu, zure gaitasunak eta trebetasunak erraz ulertzeko moduan aurkezteko gauza izan behar duzu.

• **Europass sistema berriari esker, honako zeregin hauek errazagoak dira herritarrentzat:**

- gaitasun eta kualifikazio pertsonalak Europa osoan aurkeztea (Europar Batasuna, AELC/EEE eta herrialde hautagaiak), aise ulertzeko moduan;
- Europa osoan barrena mugitzea eta lan egitea.

• **Europass sistemak sei dokumentu biltzen ditu:**

Interesdunak bere kabuz egin ditzakeen bi dokumentu;

1. Europass curriculum vitae (CV)
2. Gaitasunen pasaporte europarra
3. Europass hizkuntza-pasaportea.

Eskumena duen administrazioak egiten eta ematen dituen hiru dokumentu gehiago:

4. Tituluaren edo ziurtagiriaren Europass osagarria
5. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria
6. Europass mugikortasun-dokumentua

Europass-i buruzko informazio guztia hemen: <http://europass.cedefop.europa.eu/>

• **Zergatik erabili EUROPASS agiriak?**

Asko dira curriculum-ereduak, eta horien artean onena elkarriketa egitera eta horren ondorioz lanean jardutera eramango zaituena da. Dena den, Europass ereduak erabiltzeko gomendioa egiten dizugu. Zergatik?

- Eredu bateratua, estandarra delakoa, gure mugetatik haratago erraz ulertzen dena.
- Lan-kualifikazioei dagokienez, gardena da.
- Europako herrialdeetan erabiltzen diren tokian tokiko kualifikazioen deskribapen-sistemen arteko baliokidetzak azaltzen ditu.
- 2005etik hona 50 milioi CV egin dira.
- Europass ereduak zuk daukazu "ahalmenaz" hausnar egitera bultzatzen zaitu, lan-mundura bideratu ahal duzun ahalmenaz alegia.
- Ohiko ereduaren aldean, Europass Curriculum Vitae-ak garrantzi handia aitortzen die lan-gaitasunei, komunikatzeko, antolatu eta kudeatzeko, edo lankidetzan aritzeko gaitasunei esaterako.

10.2.A. Europass Curriculum Vitae-a (Europass cv-a)

Europass sistemaren dokumentu garrantzitsuenada. Europa osorako estandarizatutako eta normalizatutako curriculum vitae a da, eta, horrenbestez, Europako herritar guztiei aukera ematen die gaitasun eta prestakuntza pertsonal guztiak eredu berean aurkezteko. Gainerako Europass dokumentuak eredu zko dokumentu horri eransteko aukera ere badago.

Europassen web-orrian Europass CVaren ereduak aurki ditzakezu EBko hizkuntza guztietan.

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/curriculum-vitae/examples>

• Arrazoiak agertzeko gutuna

Europass editoreak baliabide hau dakar aldean: Europass formatuari jarraiki arrazoiak agertzeko gutuna egitearena. Aurkezpen- edo Hautagaitza-gutuna izentzat ditu agiri honek ere; bertan arrazoiak emateko gutunak behar dituen osagai guztiak jaso ahal dituzu.

<https://europass.cedefop.europa.eu/editors/es/cl/compose>

• Europass CV-aren eredu a nola bete behar den:

Hiru aukera dauzkazu eskura:

- Europass CVa **online** betetzea: Pantailan ageri diren adibide eta jarraibideei jarraiki.
- Europass CVaren **dokumentuak deskargatzea**: Eredua bete gabe, jarraibideak, adibideak, Europassen lehen orrialdea.
- **Eguneratu** zure Europass CVa (XML / PDF + XML): Dagoeneko Europass CV bat eskura baduzu XML / PDF + XML formatuan, hura kargatzeko eta zure datuak eguneratzeko aukera duzu.

• Gomendioa

Zure Europass CVa online bete nahi baduzu, prozesuaren amaieran hautatuko duzu zer formatutan deskargatu nahi duzun. Guk honako hau gomendatzen dizugu: deskargatu kopia bat XML / PDF + XML formatuan, nahi duzunean kargatzeko eta datuak online eguneratzeko aukera izan dezazun, eta beste kopia bat formatu editagarrian (Word edo OpenOffice). Bi kopieta, CVa egin den data erantsiko dugu artxiboaren izenean, une oro zure curriculum a gutxi gorabehera noiz eguneratu den jakiteko.

Gure aholkua da oinarritzko dokumentu bat sortzea, zure eskarmentu, prestakuntza eta dena delakoaren berri ematen duena. Oinarri hori egokitu egingo duzu aurkeztu behar duzun lekua zein den kontuan izanik.

10.2.B. Gaitasunen pasaporte europarra

Agiri berri hau, basikoki, zure tituluak eta ziurtagiriak sartzeko portfolioa da, zure gaitasunen eta kualifikazioen berri ematen duena. Online sor eta egunera dezakezu, bai eta Europass CVan erantsi ere, osagarri gisa.

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport>

10.2.C. Europass hizkuntza pasaportea

Europass hizkuntza-pasaportea aukera ematen dizu European lan egiteko edo prestatzeko funtsezkoak diren zure hizkuntza-gaitasun pertsonalak deskribatzeko. Horretarako trebetasunen (mintzatzea, irakurtzea, entzutea eta idaztea) araberako gaitasunak deskribatzeko Autoebaluazio-taula erabili da. Noizean noiz taula hori gaurkotu egiten da.

Informazio osagarriaren berri ere ematen du: lortutako diplomak, egindako ikastaroak, edo beste hizkuntza eta kultura batzuekiko kontaktuak.

Europako Kontseiluak sortu du Europass hizkuntza-pasaportea, Hizkuntzen Portfolio Europarrera biltzeko. Beste bi dokumentuk osatzen dute portfolio hori, hain zuzen ere hizkuntza-biografiak eta hizkuntza-dosierrak.

Europassen web-orrian hainbat adibide aurki ditzakezu, EBko hizkuntza ofizial guztietan.

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/language-passport>

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport>

10.2.D. Europass mugikortasun dokumentua

Europass mugikortasun-dokumentua dokumentu pertsonala da. Titularrak jatorrizkoaz bestelako herrialde europar batean egindako berariazko ikastaldia erregistratzen du dokumentu horretan, bere esperientziak —eta, bereziki, jasotako gaitasunak— hobeto komunikatu ahal izateko.

Besteak beste, ikastaldiaren barnean honako hauek har daitezke:

- enpresa batean egindako lan-praktikak;
- ikastaro akademiko bat truke-programa baten barnean;
- aldi baterako borondatezko lana GKE batean.

Europass Mugikortasun-dokumentuak **atzerrian egindako jarduerak eta lortutako gaitasunak** jasotzen ditu. Europako edozein herrialdetan mugikortasun-esperientzia bat egiten duen orori emateko sortu da, pertsona horren adina eta hezkuntza-maila edozein dela ere.

Bi zentro elkartuk, batak jatorrizko herrialdean eta besteak harrerakoan, **ikuskatzen dute** mugikortasun-esperientzia. Bien artean, esperientziaren iraupena, edukiak eta helburua zehazten dituzte; gainera, harrerako herrialdeak tutore bat hautatzen du. Unibertsitateak, eskolak, prestakuntza-zentroak, enpresak, GKEak eta abar izan daitezke ekimen horren zentroak. Titularra atzerrira bidaltzen duen erakundeak online izapidetzen du dokumentua, eta berau gazteleraz eta ingelesez ematen da.

• **Europass mugikortasun-dokumentuen adibideak:**

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/europass-mobility>

• **Non eskura daiteke?**

Jar zaituz harremanetan atzerrira bidali zaituen zentroarekin, eta eska iezaiozu Europass Zentro Nazionalarekin harremanetan jar dadin.

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/about/national-europass-centres>

10.2.E. Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarria

Teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria erdi-mailako lanbide-heziketako tituluari edo profesionaltasun-ziurtagiriari erantsitako dokumentua da, hirugarrenei, bereziki beste herrialde bateko erakunde edo enplegu-emaleei, **ziurtagiriaren esanahia ulertarazteko sortua, titularrak eskuratutako gaitasunei** dagokienez.

Tituluaren/ziurtagiriaren Europass osagarri batean erregistratutako informazioa eskumeneko agintarien eskutik dator, maila nazionalan adostutako prozedurei jarraiki.

• Zer ez den

Teknikari-tituluaren edo profesional-ziurtagiriaren Europass osagarria ezin daiteke inola ere izan:

- titulu edo ziurtagiri ofizialaren **ordezkoa**;
- **automatikoki**, agintari akademikoek jatorrizko ziurtagiria edo **titulua** formalki onartzen dutela **bermatzen duen mekanismoa**.

• Non eskura daiteke?

Prestakuntza-zentroak ematen du teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria, edo, hala badagokio, **jatorrizko titulua** edo ziurtagiria **emateko ardura duen administrazioak**.

- Dagoeneko zenbait herrialdek teknikari tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarrien katalogo nazionalak sortu dituzte;
- Oraindik horrelakorik eduki ezean, jar zaitez harremanetan zure herrialdeko erreferentziako puntu nazionalarekin, teknikari-tituluaren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren Europass osagarria (zure hizkuntzan edo EBko beste hizkuntza batean) egin behar dizun erakundea zein den galdetzeko.

Teknikari tituluaren edo profesionaltasun ziurtagiriaren Europass osagarriaren adibidea:

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/certificate-supplement/examples>

• Lanbide Heziketaren Europass osagarria

Espainiako Lanbide Heziketaren webgunean Lanbide Heziketaren Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloen Europass osagarria deskarga dezakezu, ingelesez eta frantsesez.

<http://todofp.es/todofp/orientacion-profesional/movilidad/que-es-el-suplemento-europass.html>

10.2.F. Goi-mailako tituluaren Europass osagarria

Goi-mailako tituluaren Europass osagarria lanbide heziketako edo unibertsitateko goi-mailako irakaskuntzako **titulu ofizialari erantsitako dokumentua** da, hirugarrenei, bereziki beste herrialde bateko erakunde edo enplegu-emaleei, **tituluaren esanahia ulertarazteko sortua, titularrak eskuratutako gaitasunei dagokienez**. UNESCOk eta

Europako Kontseiluak batera sortu dute goi-mailako tituluaren Europass osagarria.

- **Zer ez den**

Goi-mailako tituluaren Europass osagarria ez da:

- titulu ofizialaren **ordezko** bat;
- **automatikoki**, agintari akademikoek jatorrizko **titulua** formalki onartzen dutela **bermatzen duen mekanismoa**.

- **Non eskura daiteke?**

Jatorrizko titulua eman duen goi-mailako irakaskuntzako zentroak egin behar du goi-mailako tituluaren Europass osagarria.

Goi-mailako tituluaren Europass osagarriaren adibidea:

<http://europass.cedefop.europa.eu/es/documents/european-skills-passport/diploma-supplement>

10.2.G. Europass agiri berriak

Europass agiri bizia da, denboraren joanean eguneratuz doana. Hori dela-eta, bi agiri erantsi zaizkio: **“Europass esperientzia”** eta **“IKT gaitasunak eta trebetasunak (ITC Skills)”** izenekoak.

- **EUROPASS esperientzia**

Alde bateko mugikortasun-esperientziak (bidalketa-agentziarik gabeak) erregistratuko ditu agiri honek, bai nazio barrukoak, bai nazioartekoak. Boluntario-lanarekin, bekekin, praktikaldiekin eta abarrekin lotutako jarduerak erregistratu ahal izango dira. Mugikortasun-esperientzian titularrak jasotako gaitasunak azpimarratzea da agiriaren helburua.

- **IKT gaitasunak eta trebetasunak (ITC SKILLS)**

Informazio- eta komunikazio-teknologiaren arloko gaitasunei buruzko esparrua zabalduko da. **IKTen arloko ezagutzak autoebaluatzeko koadro baten bitartez islatuko dira**, gaitasunak trebetasunaren arabera deskribatuko dituen: informazio-bilaketa, komunikazioa, ekoizpena, segurtasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna.

10.3. YOUTHPASS

Ziurtagiri bat da, gazteen ERASMUS + programaren esparruko ikaskuntza eta parte-hartzea onartzen eta baliozkotzen duena. Aldi berean, “ikasten ikasteko” pedagogia-eta hezkuntza-tresna bat ere bada.

YOUTHPASS Europako Batzordearen ekimen baten emaitza da. Ikaskuntza ez-formala onartu eta baliozkotzeko europar estrategiaren esparruan garatu da ekimen hori, ERASMUS + programaren testuinguruan

Une honetan lanean ari dira etorkizunean YOUTHPASS Europako beste ekimen batzuetan integratzeko, hala nola EUROPASS edo Europako herritartasunaren testuinguruko Europako beste programa batzuk.

YOUTHPASS ziurtagiriaren webgunea
www.youthpass.eu/



11. EUROPAN BARRENA BIDAIATZEKO

11.1. Beharrezko dokumentuak	219
11.2. Bidaiatzeko aholkuak	221
11.3. Lekualdatzea	222
11.3.A. Errepidetik	222
11.3.B. Hegazkina	224
11.3.C. Trena	227
11.3.D. Itsasontzia	228
11.3.E. Metroa	229
11.3.F. Bizikleta eta txangoak	229
11.3.G. Motxila turismoa	229
11.4. Nazioarteko txartelak	230
11.5. Ostatua	231
11.6. Bestelako informazio praktikoak	237
11.7. Bidaiatzeko gidak	238

LABURPENA

Gidaren atal honetan zure bidaia planifikatzeko edozelako baliabideak aurkituko dituzu, bai eta gerta daitekeen edozein gorabeherari aurre egiteko informazio praktikoa.

- Birpasatu beharrezkoak izango dituzun dokumentuak, eta ondo izan gogoan behar besteko denborarekin lortu behar duzula Europako Osasun Txartela. Buruko min asko kenduko dizu horrek.
- Beharpen, deskontu eta aurrezteko bideak badira hor zehar zabiltzanean. Aztertu zein agiri edo txartel-mota etorriko zaizun ondo.
- Europar Batzordearen webgunera jo, helmuga duzun herrialdearen gaineko informazioa kontsultatzeko: abiadura-mugak, moneta, segurtasuna, eta abar.
- Edozein gorabeherari konponbide emateko laguntzarako euskarriak: larrialdietako telefonoa, lapurreta-salaketa, dokumentazioa galtzea, eta abar.

11 EUROPA BARRENA BIDAIAZTEKO

11.1. BEHARREZKO DOKUMENTUAK

• Pasaporte edo nortasun agiria

Dagoeneko muga-kontrolrik ez dago EBko herrialde ugariaren artean. EBko legeriaren parte den Schengeneko itunak kontrol guztiak deuseztatu zituen barneko mugetan. Gainera, kanpo-mugetan kontrol eraginkorrak ezarri zituen, baita bisatuen politika orokorra ere.

Guztira, **26 dira Schengen espazioa osatzen duten herrialdeak**: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgoko Malta, Norvegia, Polonia, Portugal, Txekiar Errepublikak, Suedia eta Suitza.

Hala ere, Bulgaria, Kroazia, Zipre, Irlanda, Errumania edo Erresuma Batura bidaiatzu

gero, indarrean dagoen nortasun agiria edo **pasaporte**a aurkeztu behar dituzu. EBko herrialdeak dira horiek, baina ez daude atxikita mugarik gabeko Schengen esparrura. Bidaian hasi baino lehen, egiaztatu ondo zeintzuk diren beharko dituzun agiriak, eta adi Schengen esparruari atxikita ez dauden herrialde horiekin.

EBn barrena bidaiatzean ere, hobe duzu agiri horiek eramatea, horien premia izan dezakezulako zure burua identifikatzeko edo segurtasun-arrazoiak direla medio. Ez ahaztu **agintari nazionalek emandakoa dela nortasun-agiri baliodun bakarra**.

Ez ahaztu zurekin batera doazen umeez euren nortasun-agiria edo pasaportea eraman behar dutela (gurasoen pasaportean aipatuta egon arren, eta horrela baliozkoak izan arren).

Ondoko kasuetan, baliozko pasaportez edo nortasun agiriaz aparte, umeez bidaiatzeko baimena ematen duen bestelako agiri ofizialen baten beharra izan dezakete, gurasoek, beste gurasoak edo legezko zaintza duten pertsonak sinatua. Batzuetan, filiazioaren eta guraso agintearen frogagiria ere eraman behar dute.

-Bakarrik bidaiatzen badute.

-Euren legezko zaintza ez duten helduekin bidaiatzen badute.

-Gurasoetako batekin bidaiatzen badute.

• **Bisatua**

EBn barrena bidaiatzeko ez duzu bisatu baten beharrik.

Azterriko egonaldiaren lehen hiru hiletan ezin dizute eskatu erregistro batean izena ematerik (hau da, herrialdean egoteko eskubidea berresten duen agiri bat eskura dezazula), baina egin dezakezu, hala nahi baduzu.

Herrialdean **hiru hilabete igaro eta gero, dagokion erregistroan izena ematea exijit diezazukete** (udaletan polizian egin ohi da izapide hori).

• **Aseguruak**

Ez ahaztu aseguruaren (bidaia, osasuna eta automobila) dokumentazioa zurekin eraman behar duzula.

• **Europako Osasun Txartela**

Europako osasun-txartela ere eraman behar duzu. Osasun-txartelak aukera ematen dizu Europar Batasuneko herrialdeetan eta EBrekin hitzarmenak sinatu dituzten herrialdeetan osasun-laguntza jasotzeko.

www.seg-social.es/Internet_4/Trabajadores/PrestacionesPension10935/Asistenciasanitaria/DesplazamientosporE11566/TSE2/index.htm

11.2. BIDAIATZEKO AHOLKUAK

Atzerrian barrena bidaiatzeko, hobe duzu bisitatzen duzun herrialdearen lege eta ohituren berri izatea. Herrialde askoren bizimodua eta kultura gureen oso bestelakoak dira. Legeak ere aldatzen dira, eta zure herrialdean legezkoak eta arruntak diren gauzak arazo-iturri bihur daitezke beste herrialde batean.

Garrantzi handikoa da beste herrialde batzuetan estupefazianteen (alkohola barne) jabetzari, kontsumoari eta trafikoari dagokienez indarrean dauden legeen berri izatea.

Gainera, atzerriko herrialde baterako bidaia hasi aurretik, hobe duzu Espainiak bisitatu beharreko herrialdean duen enbaxadari edo kontsulatuari buruzko informazioa jasotzea. Agiriak galdu edo lapurtuz gero edota beste arazoren bat sortuz gero laguntza handikoak izango dira zuretzat.

Behin argi daukagunean Europako beste herrialde batean zer egonaldi mota egin behar dugun, bidaian abiatu aurretik paperak eguneratuta daudela egiaztatu behar dugu, ezinbestean.

- Hobe dugu garrantzizko dokumentuen **originalekin batera fotokopiak** ere eramatea beste toki batean gordeta, originalak galduz gero lagungarri izan daitezkeelako. Txartel-argazkiak eramatea komeni da, litekeena delako baimen bereziren bat kudeatu behar izatea.
- Eraman beti **nortasun-agiria**, eta kontsultatu helmugako herrialdeak pasaportea eta bisatuak eskatzen ote dituen.
- Idatzi telefono-zenbaki bat dokumentu nagusietan, behar izanez gero, norbaitek zure familiari ohartarazteko aukera izan dezan.
- Eraman zurekin Espainiak bidaiaren herrialdean duen **enbaxadaren edo kontsulatuaren helbidea**.
- Oro har, herrialde bakoitzak zer baldintza jartzen dituen jakiteko (txertoak, bisatua, pasaportea eta abar), erabili lotura hau, eta, ageri den datu-basean, tekleatu interesatzen zaizun herrialdearen izena; bertan, dokumentazioari eta prozedurei buruz behar duzun informazio guztia aurkituko duzu.
<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/SiViajasAlExtranjero/Paginas/RecomendacionesDeViaje.aspx>

Gehienetan, bidaiatzea jarduera atsegina eta positiboa izaten da. Baina bidaia amesgaizto bihurtzeko aukera ere badago. Ezustekoek, kontratatutako zerbitzuak ez betetzak eta beste zenbait arazok zaputz dezakete bidaia. Horregatik, oso garrantzitsua da egin beharreko bidaia ongi prestatzea, kontratua egiaztatzea, eta, bereziki, gure eskubideak errespetaraztea. Hau da, kontsumitzaileen eta kontsumitzaileen eskubideak errespetaraztea.

Europako Batzordearen webgunean, besteak beste, bidaiatzen duzunean dituzun eskubideen eta kontsumitzaile gisa dituzun eskubideen eta abarren berri emango dizute. http://europa.eu/youreurope/citizens/travel/index_es.htm

11.3. LEKUALDATZEA

11.3. A. Errepidetik

Ibilgailu partikular batean bazoaz, ez ahaztu honako hauek eraman behar dituzula:

- Gidabaimena.
- Ibilgailuaren zirkulazioko baimena.
- Ibilgailuaren aseguru eta indarreko ordainagiria.
- Ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartela egunean, baldin eta ibilgailuak lau urtetik gorako antzintasuna badu.

• Gidabaimena

Europar Batasuneko herrialde batean emandako **indarreko gidabaimena baliaduna da gainerako Estatu kideetan**. Herrialde gehienetan, ibilgailua gidatzeko gutxieneko adina 18 urte da. Autoak alokatzeko gutxieneko adina aldatzen da EBko herrialde batetik bestera, baina 20 urtetik 23 urtera bitarte izaten da normalean. Zenbait herrialdetan gehieneko adina ere izaten da, 65 urtetik 75 urtera bitarte izan daitekeena.

• Automobil aseguru

Autoaren aseguruaren polizak gutxieneko estaldura (hirugarrenetikiko estaldura) eskaintzen dizu automatikoki, EBko kide guztien eta Islandiaren, Norvegiaren eta Suitzaren legeriak eskatzen duena. Zure herrialdean arrisku orotako aseguru baduzu, egiaztatuz atzerrian ere estaltzen zaituela.

Gutun berdea ez da nahitaezkoa EBn barrena bidaiatzeko, baina nazioartean

onartua dago aseguru-proba gisa, eta kalte-ordainak erreklamatzeko bidea errazten du istripua izanez gero. Gutun berderik ezean, hobe duzu nahitaezko aseguruaren egiaztagiria eramatea.

www.cobx.org/ [EN]

Zure aseguru-etxeak Europako istripu-partea eman diezazuke, dokumentu estandar horretan zure datuak errazago betetzeko aukera izan dezazun, atzerrian istripua izanez gero.

• Bide segurtasuna

Bide-segurtasunari, abiadura-mugei, bidesariei, alkoholemia-mugei eta Europan barrena gidatzeko bestelako informazio praktikoei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Europar Batasunaren ataria.

http://ec.europa.eu/transport/road_safety/going_abroad/index_en.htm [EN]

“**Atzerrira bidaiatzea**” doako aplikazioa jaitsi ahal duzu. Bertan Europako bide-segurtasunari loturiko arau nagusiak zeintzuk diren aztertu ahalko duzu, eta zenbait jolas dibertigarritan aritu. Abiatu aurretik deskargatzen baduzu, ez dizute ibiltarizta-tarifarik kobratuko.

http://ec.europa.eu/transport/road_safety/going_abroad/index_es.htm

